



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

BAKEAREN BIDEAN: ETA-ko PRESOEN BIRGIZARTERATZE PROZESUA

Gradu Amaierako Lana
Kriminologia gradua
2022-2023 ikasturtea

Egilea: Olatz Mendizabal Blanco

Tutorea: Jokin Alberdi Bidaguren

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA: ETAREN SORRERA, BILAKAERA ETA AMAIERA	8
2. TERRORISMO DELITUEN ZIGOR ZUZENBIDEA ETA ESPETXE POLITIKAK. ETA-ko TERRORISMOARI AIPAMEN ZUZENA	12
3. BIKTIMAK	23
3.1. KONTZEPTUA, IZAERA ETA MOTAK	23
3.2. ETAREN TERRORISMOAREN BIKTIMAK	25
3.3. ZER GERTATZEN DA ERASOA ETA GERO? TERRORISMOAREN BIKTIMAK ETA HAUEN BEHARRAK.....	28
4. BIRGIZARTERATZEA	36
4.1. ETA-ko PRESOEN BIRGIZARTERATZEA eta JUSTIZIA LEHENERATZAILEKO ESPERIENTZIAK	37
4.1.1. Langraiz bidea edo ezagunagoa den “Vía Nanclores”	39
4.1.2. Justizia Errestauratiboa	43
4.2. JUSTIZIA TRANTSIZIONALA	63
4.3. DAMUAREKIN ETA BARKAMENAREKIN LOTUTAKO BIRGIZARTERATZEA	68
5. IKUSPEGI EZBERDINAK: ELKARRIZKETAK.....	75
5.1. GEMA VARONA MARTINEZ	75
5.2. CARMEN GONZÁLEZ BABARRO	79
5.3. ETA-ko PRESOA IZANDAKOA	84
6. ONDORIOAK	90
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	93
ERANSKINAK.....	99
1. ERANSKINA: ELKARRIZKETAK	99
2. ERANSKINA	128
3. ERANSKINA	129
4. ERANSKINA	130

LABURPENA

Lan honetan, ETaren terrorismoarengatik kartzelatuak dauden presoen birgizarteratze-egoera aztertuko dut. Euskal Autonomia Erkidegoak espetxe-sistemaren eskumena bere gain hartu duenetik, azkenengo hilabeteetan maiz ikusten ari gara ETako presoei eskainitako hirugarren graduak. Etorkizunean gertu dugun errealitate bat preso guzti hauen kaleratzea izango da eta ondorioz, birgizarteratze-prozesu bat abian jarri beharko da.

Honen arira, ikerketa honetan, ETako partaideen birgizarteratzearekin erlazioa duten hainbat gertaera eta kontzeptu aztertuko ditut. Lehenengo atal batean, ETako eta espetxe politikaren bilakaeraz gain, bakea eta presoen birgizarteratzea azaltzeko kontzeptu garrantzitsu batzuk azalduko ditut baita biktimen azterketa sakon bat, marko teoriko bat osatzeko. Ondoren, espetxe eta zigor sistemari loturiko Euskadiko justizia leheneratzaileko esperientziak aztertuko ditut; Langraiz bidea eta Euskadiko Justizia Errestauratiboaren Euskal Estrategia (2022-2025) hain zuzen. Horrez gain, justizia trantsizionala, damua eta barkamena ere jorratuko ditut. Eta bukatzeko, ETako presoen birgizarteratze-prosezua baloratzeko, gai honekin zerikusia dituzten subjektuekin elkarrizketa batzuk egingo ditut, egindako galderei erantzunak bilatzeko asmoz.

AURREKARIAK ETA GAIAREN JUSTIFIKAZIOA

Euskal Herrikoa izanda, ETaren terrorismoa, arlo batean edo bestean, nire bizitzako une ezberdinetan beti presente egon den gai bat izan da. Are gehiago, askotan gizartean, gertatutakoari buruz hitz egitea zaila egiten zaigula edo ez mintzatzea nahiago dugula iruditzen zait.

Honekin batera, 2021eko amaieran, Euskal Autonomia Erkidegoak espetxe-sistemaren eskumena bere gain hartu du eta ondorioz, ETako presoen hirugarren graduak martxan jarri dira. Kaleratzea geroz eta gertuago dago eta honek, hainbat erreakzio ezberdin sortarazi ditu. Delitugile eta biktimaren dikotomia horretan, gatazka nabaria izaten jarraitzen du eta bakearen bidean, hainbat gauza daude lantzeko oraindik.

Kriminologiako ikaslea izanda, delitugileen birgizarteratzea nire interesa betidanik piztu duen gai bat izan da. Justizia- eta zigor-sistema garrantzitsuak diren

bezala, espetxearen gerokoa, askotan ahaztua, kontuan hartu beharrekoa da ere. Zigor mugatuetan oinarrituriko sistema batek, etorkizuneko aurreikusi eta horri bideraturiko politikak bermatu behar ditu. Espetxeak ez du soilik delitugilearengan eragina, baizik eta biktimengan ere eta justiziak ezarritakoaren amaiera etortzerakoan, ezin da alde batera begiratu.

Guzti honengatik, nire interesekoak diren bi gai hauek batzea erabaki dut; birgizarteratzea eta ETako presoak. Gainera, ikerketa jorratzeko unean dugun espetxe-sistemaren egoera guztiz aproposa iruditu zait.

HELBURUAK ETA HIPOTESIA

Ikerketa honen helburuetariko bat ETako presoan birgizarteratzea zer unetan kokatzen den aztertzea da, baita iraganean zer nolako jarduerak burutu diren eta horien ondorioak baloratzea. Horrez gain, bai biktimen, bai delitugileen, baita erakundeen ustetan, hurren dauden kaleratzeekin batera zer birgizarteratze plan edo ekintza aurrera eramane beharko liratekeen aztertzea da helburua. Hau da, bakoitzaren iritziz bakearen bidean beharrezkoa edo ezinbestekoa zer den ikertzea.

Beraz, lan ikerketa honen inguruko nire interesekoak diren aztergaiak honako hauek dira:

- Justizia errestituatiboa oso erabilgarria izan daiteke baina ez da kasu guztietan aplikagarria. Beste bide batzuk ere planteatu behar dira.
- Birgizarteratze egoki bat bideratzeko justizia trantsizionalak biltzen dituen ideiak eta ekimenak aurrera eramane behar dira.
- Delitugilearen birgizarteratze egoki bat emateko bestelako arloetan (ekonomikoa, familiarra, soziala, etab.) ere jardun behar da.

METODOLOGIA

Lehenik eta behin, irakurlea gaian eta testuinguruan kokatzeko, marko teoriko bat landu da non, kontzeptu teoriko nagusiak, ETaren bilakaera, espetxe-sistema, espetxe-politika ezberdinak, biktimak, etab. azaldu diren. Ondoren, birgizarteratzearekin erlazioa duten prozesuak edo mekanismoak azaldu dira: justizia leheneratzailea, justizia trantsizionala, barkamena eta damua.

Informazio hau jasotzeko hainbat baliabide elektronikoa erabili dira, besteak beste; dialnet, google-scholar, EHU-ko liburutegi elektronikoa, graduan zehar klasean erabilitako hainbat irakurgai, etab. Bestetik, liburutegitik fisikoki ateratako liburuak ere erabili dira.

Jarraian, aipatutako aztergaiak balioztatzeko, hainbat elkarrizketa egin dira: ETA-ko biktimen arloan lanean aritu den pertsona bat, Zubiko birgizarteratze elkarteko langileetarikoa bat eta ETako kide izateagatik kartzelaturik egon den pertsona bat.

Elkarrizketak bideratzeko, erreferentzia bezala, bakoitzari egokitutako galdera-sorta bat prestatu da. Elkarrizketak audioz edo aurrez-aurre egin dira. Amaieran, elkarrizketa guztietatik lortutako informazioa, lanean jasotako ideiekin eta hipotesiekin lotu da eta azken ondorioak atera dira.

LANAREN PLANA

Gaiaren muinarekin hasi baino lehen, lehenengo atalean, lan honetan zehar nagusiak izango diren zenbait kontzeptu definituko ditut, hala nola; birgizarteratzea, justizia errestituzioa, damua, barkamena, berradiskidetzea, etab. Jarraian, testuinguruan kokatu ahal izateko, ETako terrorismoaren sorrera, bilakaera eta amaiera laburki modu sistematizatu batean azalduko ditut. Honekin elkarloturik, espetxe-araudiei buruz arituko naiz; zeintzuk diren eta iraganean, orainean eta etorkizunean birgizarteratzean zer eragin izan duten baloratuz. Ondoren, biktimak, erresilientzia, eta hauen beharrak jorratuko ditut.

Hurrengo atalean, justizia leheneratzaileko esperientziak aztertuko ditut, Langraiz bidea eta Euskadiko Justizia Errestituzioaren Euskal Estrategia (2022-2025) hain zuzen. Ondoren, justizia trantsizionalari buruz arituko nahiz eta jarraiki, damua eta barkamenaren ideiak landuko ditut.

Amaitzeko, azken atalean, ETako presoen birgizarteratze-prozesuarekin erlazioatutako ikuspegi ezberdinak aztertuko, hainbat elkarrizketa egingo dira: ETA-ko biktimen arloan lanean aritu den pertsona bat, Zubiko birgizarteratze elkarteko langileetarikoa bat eta ETako kide izateagatik kartzelaturik egon den pertsona bat.

LANEAN ZEHAR NAGUSIAK IZANGO DIREN KONTZEPTUAK ETA IDEIAK

Barkamena: eskuzabaltasun ekintza bat da, eta zor bat borondatez kitatzea dakar (Echeburúa, 2013, 66.or.). Ez da kaltea eragindakoak kaltetuari galdatzen dion zerbait, baizik eta azken honek, borondatez ematen duen eskuzabaltasunezko eta gizatasunezko ekintza bat. Barkamena ez da ahanztea ezta gertatutakoa onartzea edo justifikatzea.

Berradiskidetzea: prozesu bat da non aurrez aurre dauden alderdiek harreman suntsitzaile eta irteerarik gabekoari uko egiten diote eta iragana konpontzeko, oraina eraikitzeko eta etorkizuna prestatzeko beste bide bat onartzen dute (Uriarte, 2011, 6.or.). Berradiskidetzeak ez du justizia alde batera uzten baizik eta ulergarritasun eta gizatasun maila bat gehitzen dio. Honen bitartez ez da bilatzen alderdiak lagunak izatea baizik eta gizarte bateko kide gisa elkar errespetatu eta onartzea, baita gertatutakoa berriz ez errepikatzeko adostasuna egotea.

Birgizarteratzea: birgizarteratzea Konstituzioko 25.2. artikuluan preso orori aitortzen zaion eskubidea eta zigor-sistemak duen helburuetariko bat da. Tratamendu egoki eta onuragarri bat jasotzeko aukera eta beharra zehazten du eta honen bitartez, kartzeleratuaren askatasunerako ibilbidea prestatzen da.

Damua: “Zerbait egin izanagatik edo egiteari utzi izanagatik atsekabea sentitzea” (Espainiako Errege Akademia, 2023). Beraz, norbanakoak duen sentimendu bat da, zeozer egiteagatik edo ez egiteagatik sortutakoa.

Erreparazioa: biktimek erreparazioa jasotzeko eskubidea dute. Hau, giza eskubideen urraketak konpontzeko neurriei dagokie, onura material edo sinboliko batzuk ematen zaizkie biktimei edo haien familiei, bai eta eragindako komunitateei ere. Konponketak egokia, eraginkorra eta azkarra izan behar du, eta urraketan larritasunarekiko eta jasandako kaltearekiko proportzionala izan behar du (Nazio Batuak, 2023).

Erresilientzia: gertaera bortitz edo traumatiko baten ondoren, berriro altxatzeko eta bizitzan oreka berri bat aurkitzeko gaitasuna. Gertakari larri, gerra edo hondamendi askoren aurrean, non suntsipena, kaltea eta mina izugarrizkoa den, biktimek indar handia izan eta garatu dezaketela ikusi da. Era batera edo bestera, aurre egiten diote gertakariari eta horrek sorrarazitako minari. Gaitasun honi, erresilientzia deritzo (Hojtink et. al, 2011, Netten eta Van de Donk-en aipatuta, 2018).

Justizia errestitutiboa: zigorrera edo errehabilitaziora baino gehiago, erreparaziora bideratzen den filosofia edo gizarte-mugimendua da. Delitu-egitateak legea urratzeaz gain, biktimei eta komunitateari ere kalte egiten diela uste izatean oinarritzen da, eta alderdiei eta gizarteari gatazken konponbidean protagonismoa itzultze ahalbidetzen du (Eusko Jaurlaritza, 2022, 2.or.)

Justizia trantsizionala: gizarte jakin batzuetan iraganean, maila handiko eraso eta abusuak gertatu dira. Hauek sortutako kalteen konponketa emateko, estatuak berak mekanismo eta zerbitzuak erabiltzen ditu, bai judizialak bai estrajudizialak. Estatu mailako krimen bortitzen kasuetan zigorgabetasunezko egoera bat ez ematea eta biktimekiko errespetua eta babesa bermatzea bilatzen da. justizia trantsizionalaren helburuak gertakariak ikertzea eta zigorgabetasuna eragozte, biktimen erreparazioa eta egia jakiteko eskubideak bermatzea eta etorkizunean horrelako egitateak berriro ez gertatzea dira.

1. TESTUINGURUA: ETAREN SORRERA, BILAKAERA ETA AMAIERA

Lanarekin hasteko, ETAREN bizitza laburki modu sistematizatu batean azalduko dut. Gaiaren muinarekin erlazio zuzena ez izan arren, lanaren barne kohesiorako garrantzitsua iruditu zait. Azken finean, zeregin honen aztergaia ETAKO presoak izan diren kideak dira, eta horrenbestez, ETA nola sortu zen, zer izan zen, zer aldarrikatzen zuen, nola amaitu zen etab. jakitea beharrezkoa iruditzen zait. Gainera, ezin dut ziurtzat jo lan honen irakurle orok ETAREN inguruko jakintasun minimorik izango duenik eta horregatik, puntu honekin hastea erabaki dut.

Gerra Zibilaren (1936-1939) amaieran kokatzen gara, Frankoren garaipenean eta horrela, urtez iraungo zuen bere diktaduraren hasieran. Diktadura honek, Euskal Herriaren aurka bortizki borrokatu zuen. Jose Antonio Agirrek (1952) hitzaldi batean iragarri zuen bezala, Euskal Herria, genozidio kulturalako politika sistematiko baten biktima izan zen, batzuetan basakeriaz, beste batzuetan disimuluz eta hipokrisiaz. Euskara eta haren erabilera debekatu egin ziren, zentsurazko garaia zen eta erresistentziaren ia jarduera politikorik gabe, erregimen frankistak indarrez eragin zuen.

Egoera honen aurrean, hezkuntza-ingurunean eredu nagusiarekin bat ez zetozen lehen ezkutuko guneak sortu ziren. Frankismoaren eta faxismoaren aurkako pentsamendu kritikorako lehen espazioak unibertsitateko ikasleek bakarrik sortu ahal izan zituzten.

1951-1952 ikasturtean, Bilbon unibertsitatean zeuden hainbat ikasleek, kohesio-metodo gisa, Ekin deituriko buletina sortu zuten. Hau, erakunde bihurtu zen eta jada existitzen zen EGI-rekin (Eusko Gaztedi) talka egin zuen. Azken talde honen funtzioa, EAJ-n (Eusko Alderdi Jeltzalea) sartzeko prestakuntza ematea zen. EGI-rekiko lehiak EAJ-ko buruzagiak ohartarazi zituen, eta nortasun krisi honi aurre egiteko, EGI-k eta Ekin-ek, 1955. urtean bat egin zuten. Talde honek, "EGI-bateratua" ("EGI-conjunto") izena hartu zuen.

Hala ere, EAJ-ko hainbat buruk, Ekin-ekoak alderdiaren diziplinatik kanpo zeudela uste zuten, hauek jarraitzen uzteak norabide politikorako arrisku larria zekarrela argudiatuz. Ondorioz, kontaktuak moztu eta krisia areagotu zuten. Krisia 1958. urteko hasieran, bere osotasunean lehertu zen, eta Ekin-eko ikasle ohiek "EGI-bateratua" utzi zuten.

Hilabete batzuk geroago, 1958ko abenduaren 1ean, Ekin-eko fundatzaileek eta EGI-koak ziren gazte batzuek, organizazio berri bat sortu zuten, ETA (Euskadi ta Askatasuna) hain zuzen.

Ikuspuntu objektibo batetik, ETAREN sorrerarekin batera zetorren testuingurua, erakunde berri batek unean zegoen espazio politikoa hausteko egokiena izan zen (Egaña, 2018, 17.or.). Hainbat elementu eman ziren ETAREN aireratzea faboratu zutenak. Alde batetik, EGI-ren banaketak aktibismoa suspertu zuen. Bestetik, Kuba, Afrika eta Asiako hainbat herrialderen dekolonizazio borrokek gatazkaren funtsa Euskal Herrian islatu zuten (Euskal Herria kolonia bezala) eta liberalizazio mugimenduak hasi ziren. Amaitzeko, langileen matxinaden ezta hainbat euskal agertokitan eman ziren eta salbuespenezko-egoeraren ezartzearekin, espetxeratu eta torturatu ugari egon ziren.

ETAk adaptazio prozesu azkar bat izan zuen, ez zuen garapeneko mugimendu linealik izan, baizik eta testuinguruarekin aldatzen joan zen. Bere ibilbidearen zatirik handienean (1960-2010) erakunde sozialista iraultzaile gisa definitu ziren, ordura arte antagonikoak ziruditen bi joera handien batasuna lortuz: liberalizazio nazionalarena eta liberalizazio sozialarena. 1966an, Aberri Eguna zela eta adierazi bezala “sozialismo internazionalista Euzkadi aske eta bakar batean”. Helburu nagusia beraz, Euskal Herriaren biziraupena izan zen, hau da, asimilazioa saihestea eta Espainiako eta Frantziako estatu zapaltzaileen aurrean euste-horma iraunkor bat izatea (Egaña, 2018, 42.or.).

Euskal Herriaren askatasuna lortzeko, borroka armatua erabili zuten, honen ezinbestekotasuna defendituz. Borroka armatuaren iraunkortasuna horren jarraitasuna bermatzen zuen baldintza politikoei atxikitzen zioten; baldintza politiko zapaltzaile hauek desagertzerakoan borroka armatua ez lirarteke gehiago beharrezkoa izango. Estrategia aldaketa bat emateko beraz, ezinbestekoa zen estatuak bere erregimen politikoaren eredia aldatzea. 1977. urtean Egin egunkarian esandakoak, argi eta garbi islatzen du borroka armatuaren inguruko ETAREN pentsaera eta argudiaketa: “Behin Euskal Herriak bere kabuz erabakitzeke ahalmena duenean, ez da beharrezkoa izango gure herria defendatzeko armak erabiltzea”.

1970eko hamarkadan, borroka politikoa eta militarra bereizteko behararen inguruan eztabaidazko une bat egon zen. Ingurune honetan, 1974. urtean leku eman zuen

VI. Biltzarra¹ aipatzekoa da, non, ETAREN barruan, bi talde bereizi ziren: ETAm (ETA militarra) eta ETApM (ETA politiko-militarra). Desadostasunen jatorria, frankismoaren aurkako borrokari aurre egiteko diseinatutako egitura agortzean eta erakunde bereiziak sortzeko beharrea egon zen (Egaña, 2018, 30.or.).

ETApM-k egitura politiko-militar baten alde egin zuen, eta ETAm-k, aldiz, erakunde politiko eta militarren arteko bereizketaren alde. ETApM-ren ustetan, antolakunde armatuaren helburu berberak zituen alderdi politiko bat sortzea beharrezkoa zen. Honen ondorioz, 1976an eman zen VII. Biltzarrean, ETApM-k EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) sortzea erabaki zuen.

Bi talde hauen bereizketak hamarkada bateko iraupena izan zuen, ETApM indargabetu eta desagertu zen arte, bat-egite prozesu batean ETAm-n integratu zelarik. Horrela, gertaera hau, ETAREN bizitzako bereizketa ideopolitiko garrantzitsua bihurtu zen.

ETAREN bizitzan zehar, bi taktika nagusi bereizi daitezke: hasieran (1967-1976), “ekintza - errepresioa - ekintza” taktika erabiltzen zuten, hau da, ETAK erregimeneko agenteen aurkako ekintza bat egiten zuen, eta horrek, sistematikoki, errepresio handia eragiten zuen. Errepresioak eragindako nahigabe sozialak herriaren kontzientzia goratzen zuen eta ondoren, ETAK ekintza berri bat aurrera eramaten zuen, mendeku gisa agurtzen zena. Hau, behin eta berriz errepikatzen zelarik (Egaña, 2018, 58.or.).

1976an, Frankoren heriotzarekin eta Trantsizioaren hasierarekin, egoera soziopolitikoak aldatu zen eta ETAK bide hau alde batera utzi zuen. “KAS Alternatiba” (Koordinadora Abertzale Sozialista) sortu zen eta errepresentante politikoei zuzendutako erasoak hasi ziren. Hurrengo urteetan, KAS alternatiba ezker abertzalearen² ardatz bihurtu zen. Bertan, askatasun demokratikoa, amnistia, langile klasearen bizi-baldintzak hobetzeko neurriak, Estatuko gorputz errepresiboen deuseztatzea, Euskadiren subiranotasun nazionalaren aitortzea, etab. aldarrikatzen ziren.

¹ VI. Biltzarra: Militantziaren biltzarrak edo asanbleak deiturikoak etengabeak izan ziren, zenbakituta ETAREN VI.era arte, ETAm eta ETApM bereizi aurretik. VII. Biltzarra ETApM-rena izan zen, ETAm-ren behatzaileen presentziarekin, eta VIII. Biltzarra soilik ETApM-rena. Orduetik aurrera, batzarrak zenbaki gabekoak ziren.

² Ezker abertzalea: euskal mugimendu ezkertiar eta abertzalea definitzeko erabiltzen den kontzeptua, ETAREN bilakaeran zehar sortua eta gaur egunerarte mantendu dena.

Urte hauetan, KAS alternatibaren berregokitzeari buruzko eztabaidak hasi ziren eta 1995ean, “Alternatiba Demokratikoa” deritzona sortu zen. Honek, KAS Alternatibaren oinarriak aldatu eta bi bide erakutsi zituen: 1) ETA eta Espainiako gobernuak negoziatuko behar zituzten kontuak eta 2) Euskal Herriari eta bere eragile politiko, sozial eta sindikal guztiei dagozkionak. Alternatiba Demokratikoa, 2004ean, Anoetako Deklarazioarekin amaitu zen. Hortik aurrera, ETAk borrokarekin jarraitu zuen baina geroz eta bizitasun gutxiagorekin.

2010eko irailaren 5ean, komunikatu baten bidez, ETAk Euskal Herrian marko demokratiko bat eraikitzeke garaia zela adierazi zuen. Horrela, lehen aldiz, bakea lortzeko eta indarkeria tresna politiko gisa erabiltzeari uko egiteko prozesu bat zabaldu zen.

2011ko azaroaren 20an, borroka armatuari behin-betiko amaiera eman zioten. Honen arrazoia, errealitate berri baten sorreran aurkitzen zen. ETAREN aurkako lehian, Estatuak bere estrategia aldatu eta ezker abertzalea, ilegalizazioaren bidez, agertoki politikoetatik kanpo uzteko taktika martxan jarri zuen. ETAk komunikatuan adierazi zuen bezala, Estatuaren helburua, ezker abertzalearen ekimenak borroka armatura mugatzea zen. Honek, urteetan zehar liberalizazio prozesuan sortutako baldintzak arrisku larrian jarri zituen eta egoera honen aurrean, aldaketa helburu bezala zuen ziklo politiko berri bat posible izateko, sinesgarritasunezko pausu erabakigarri bat eman behar zen; ziklo bat ixtea beste bat zabaltzeko ezinbestekoa zen, eta horrek, zuzenean borroka armatuan eragiten zuen.

Azkenik, Baionan, 2017ko apirilaren 8an, ETAREN armagabetzea eman zen, bere etapa armatuari behin-betiko amaiera emanez.

Urte hauetan, ETA-k guztira 850 hildako baino gehiago utzi zituen, baita milaka zauritu eta beste hainbat bahitu ere. Horrela, pertsona eta familia askori eta gizartearen zati nabarmen bati, izugarritzko sufrimendua eta mina eragin zitzaion, gaur egun bizirik irauten duena. Hau, lanean aurrerago zehaztasun gehiagorekin jorratuko dut.

2. TERRORISMO DELITUEN ZIGOR ZUZENBIDEA ETA ESPETXE POLITIKAK. ETA-ko TERRORISMOARI AIPAMEN ZUZENA

Bigarren puntu honetan, aurrekoarekin batera, ETaren terrorismoa inguratu duen testuingurua osotuko dut, Espainiako Estatuak kontu honi juridikoki nola erantzun dion azalduz. Atal honetan jorratuko ditudan lege eta politika oro, ez dira gaur egun indarrean daudenak, ETaren terrorismoa zigortzeko bere garaian erabili zirenak baizik.

Ikuspegi orokor batetik, Zigor Zuzenbideak jasotzen dituen zigor-askatasun gabetzaileen eta segurtasun neurrien helburua, **berreziketa** eta **gizarteratzea** dira. Hau, Konstituzioko 25.2. artikuluan³ eta Espetxeen Lege Organiko Orokorreko (LOGP) 1. artikuluan⁴ araututa agertzen da. Edukiari dagokionez, Zigor Zuzenbidean espetxe-zigor bat betearazteak **indibidualizazio zientifikoaren sistemari** erantzuten dio (LOGP 72. art.). Sistema honek, zigortuak graduetan (1, 2 eta 3) bereizita egongo direla ezartzen du eta gradu batetik besterako progresioa espetxean egondako denboraren eta jarreraren arabera izango da. Laburbilduz, zigor sistemaren helburu nagusia “birsozializazioa” edo “birgizarteratzea” izango litzateke, non askatasunaz gabetzeko zigorra preso bakoitzaren ezaugarri indibidualetara egokituko den, egindako delituaren izaera edozein dela ere.

Hala ere, Canok (2012, 12.or.) azaltzen duen bezala, terrorismo delituen aurrean, estatuak erantzun punitibista garrantzitsu bat erabili izan du, arlo honetan, salbuespen juridiko-demokratikoko prozesu bat garatuz. Espainian ez da terrorismoaren aurkako izaera berezidun legeria aukeratu, baizik eta Zigor Kodearen barruan salbuespenezko azpisistema penal bat sortzea erabaki da, jarraian zehaztasun gehiagorekin aztertuko dudana.

Ikusi daitekeenez, Espainiako Kode Penalaren ardatz nagusia, askatasunaz gabetzeko zigorra da, hau da, espetxea. Honen iraupena, egindako delituaren arabera izango da, Zigor Kodean aurretik ezarrita dauden parametroak jarraituz. Gaur egun

³ Espainiako Konstituzioko 25.2.artikula: “Las penas privativas de libertad y las medidas de seguridad estarán orientadas hacia la reeducación y reinserción social y no podrán consistir en trabajos forzados.”

⁴ Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 1.artikula: “Las instituciones penitenciarias reguladas en la presente Ley tienen como fin primordial la reeducación y la reinserción social de los sentenciados a penas y medidas penales privativas de libertad.”

indarrean dagoen Zigor Kodea 1995ekoa da. Bertan, 36.2 artikuluan⁵, espetxe zigorrak gutxienez hiru hilabeteko eta gehienez hogeituro urteko iraupena izango duela zehazten da, testuko beste artikuluetan batzuek xedatzen dutena salbu. Hau horrela izanik, Zigor Kodeak hainbat salbuespen ezartzen ditu 20 urteko muga hau igarotzea dakartenak, terrorismo delituak hauen artean aurkitzen direlarik.

Terrorismo delituak gaur egun, Zigor Kodeko 571. artikulutik 580. artikulua bitartean tipifikatzen dira. 573. artikuluan, terrorismoa definitzen da eta 573. bis artikuluan, delituaren larritasunaren arabera zigorrak zehazten dira. Azken honetan, 1.1 atalean⁶ zehazki, **salbuespenezko xedapen** hori ikus dezakegu; 573. artikuluko lehenengo paragrafoan aipatutako terrorismo delituetan, pertsona bat hiltzen bada, kodean aurreikusitako gehieneko espetxe zigorra ezarriko da. Gaur egun, Kodean aurreikusitako gehienezkoa, Espetxe Iraunkor Berrikusgarria⁷ (Prisión Permanente Revisable) da. Hala ere, topea hau izanik, ETaren terrorismo kasuak epaitu zirenean, EIB ez zen existitzen, hau, Kode Penalaren 2015. urteko erreformarekin sartu baitzen indarrean. Beraz, honen aurretik, salbuespenezko muga 30 urtekoa zen.

Salbuespenekin batera, terrorismo delituengatik auzipetutakoek, haien oinarrizko eskubideetan delitu arruntetan ezarri ezinak diren zenbait murrizketa bizi izan dituzte: atxiloketa eta inkomunikazioa gehienez bost egunez luzatzea (PKL⁸ 520bis art.), ofiziozko abokatu bat bakarrik izatea baimentzea (PKL 527. art.), urgentziazko kasuetan epailearen agindurik gabe egoitzan sartzea eta miaztea (PKL 553. art.), etab. Baina, nola liteke posible oinarrizko eskubideen murrizte bat ematea? Erantzuna Konstituzioko 55.2. artikuluan⁹ aurkitzen da, non, lege organiko batek pertsona jakin batzuen oinarrizko eskubide zehatzen etetea nola eta noiz eman daitekeen zehaztu dezakeela arautzen da.

⁵ Zigor Kodeko 36.2. artikulua 1. paragrafoa: “La pena de prisión tendrá una duración mínima de tres meses y máxima de veinte años, salvo lo que excepcionalmente dispongan otros preceptos del presente Código.”

⁶ Zigor Kodeko 573bis artikulua 1.1. atala: “Los delitos de terrorismo a los que se refiere el apartado 1 del artículo anterior serán castigados con las siguientes penas:

1.ª Con la de prisión por el tiempo máximo previsto en este Código si se causara la muerte de una persona.”

⁷ Espetxe Iraunkor Berrikusgarria: salbuespenezko berrikuspen erregimen bati loturiko iraupen zehaztugabeko espetxe zigorra da (Casals, 2019). Larritasun handiko kasuetan bakarrik ezarri ahalko da.

⁸ Prozedura Kriminaleko Legea = Ley de Enjuiciamiento Criminal.

⁹ Espainiako Konstituzioko 55.2. artikulua: “Una ley orgánica podrá determinar la forma y los casos en los que, de forma individual y con la necesaria intervención judicial y el adecuado control parlamentario, los

Are gehiago, mugatze hau, ez da soilik eremu prozesal-penal batean ematen; eskubide murrizketa espetxe-eremuan ere gerta daiteke. Terroristei ezarritako espetxe-erregimen berezian, bi aspektu arazotsu antzeman daitezke. Alde batetik, **zigortuaren klasifikazioa lehenengo graduan** eta **FIES** (Ficheros de Internos de Especial Seguimiento) erregimenaren behartzea eta bestetik, ezaguna den dispertsio geografikoaren politika.

Lehenengoari dagokionez, terrorismoarengatik kondenatutako delitugileen gehiengoa 1^o aurkitzen da, arriskugarritasun nabariko preso bezala kontsideratzen direlako. Ondorioz, ez dute graduan aurrera egiten ezta horrek ekarriko lukeen eboluzio onuragarrian parte hartzen. Horrez gain, FIES erregimenean daude, jarraipen berezia jasotzen duten barneratuen fitxategiak direnak. Hortaz, haien komunikazio guztiak etengabe kontrolatzea eta zuzenean behatzea legitimoa da. Honek, espetxe-administrazioari talde terroristen inguruan ikertzeko eta informazio baliotsua lortzeko aukera ematen dio.

Bigarren puntuari dagokionez, preso terroristentzat indarrean dagoen espetxe-legeriak zigorra betetzeko lekuari buruzko araudia berezirik ezartzen ez duela nabarmentzekoa da, eta, hau horrela izanik, arau orokorra aplikatu beharko litzateke (LOGP 12.1. art.¹⁰). Hala ere, praktikan, delitugileak talde terroristetako kideak direnean, gobernuko agintariek espetxe-legeriaren interpretazio zehatz eta errepresiboa garatu dute (Cano, 2012, 38.or.).

1980ko hamarkadan, ETAko preso terroristak lau espetxetan zentratzea erabaki zen (Nanclares de Oca, Puerto de Santa María, Alcalá de Henares eta Herrera de la Mancha). ETAko kideek kartzelan haien artean lotura eta kohesio handia sortu zuten eta etengabeko presioak eta aldarrikapenak egin zituzten. Egoera honen aurrean, 1987an, Espetxeetako Administrazioak ETAko preso terroristak Espainiako hainbat espetxeetan **sakabanatzeko politikari** ekin zion, 1989an areagotu zelarik eta gaur egun arte, 2023arte iraun duena. Justizia Ministeritzak, dispertsio-politika kideen loturak haustera bideratuta

derechos reconocidos en los artículos 17, apartado 2, y 18, apartados 2 y 3, pueden ser suspendidos para personas determinadas, en relación con las investigaciones correspondientes a la actuación de bandas armadas o elementos terroristas.”

¹⁰ Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 12.1.artikulua: “La ubicación de los establecimientos será fijada por la administración penitenciaria dentro de las áreas territoriales que se designen. En todo caso, se procurará que cada una cuente con el número suficiente de aquéllos para satisfacer las necesidades penitenciarias y evitar el desarraigo social de los penados.”

zegoela azaldu zuen, eta horrekin batera, erakunde terrorista bertan behera uztea, honen ahultzea eta presoaren gizarteratzea bultzatzen zen.

Justifikazio honen aurkako hainbat iritzi eman ziren. Alde batetik, presoan dispertsio politika Konstituzioko 25.2 artikuluaen aurkakoa zela argudiatu zen; pertsona bat bere gizarte-baliabideetatik isolatuz eta bere familia eta kulturarekin komunikazioa galaratuz gizarteratzea eta etorkizun aske baterako prestatzea ezinezkoa baitzen. Bigarrenik, sakabanatze-politikak Konstituzioak 14. artikuluan¹¹ aitortutako legearen aurreko berdintasun-printzipioa nabarmen urratzen zuela arrazoitu zen. Laburbilduz, sakabanatze-politikak ez zion gizarteratze helburuek ezarritako parametroei erantzuten, baizik eta irizpide politikoei jarraitzen zien; sortutako presio politiko edo mediatikoaren arabera zen, ez preso bakoitzaren premien arabera (Cano, 2012, 43.or.)

Terrorismo kasuei buruz ari garenean, beste berezitasun bat antzeman dezakegu: **Audientzia Nazionalaren** figura. Hau, Botere Judizialaren Lege Organikoko 62. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da. Erakunde edo talde terroristetan edo horiekin elkarlanean aritu diren pertsonen egindako delituetan, auzien instrukzioa eta epaiketa ez da egitateak gertatu diren lekuko organo judizialen eskumena izango (gainerako delituetan bezala) baizik eta Instrukzioko Epaitegi Zentrala eta Audientzia Nazionalako Zigor Arloko saila arduratuko da.

Audientzia Nazionalarekin batera, 5/2003 Lege Organikoak, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralaren figura sortzen du. Irudi juridiko hau, zigorrak betearaztearen arloan, Audientzia Nazionalak epaitu dituen delituen kontrol jurisdikzionalaz arduratzen da. Figura hau sortzearen argudiaketa, AN-ak araupetzen eta epaitzen dituen delituengatik ezarritako zigorren kontrolaren esparruan irizpideak betearazteko beharra da (Cano, 2012, 34.or.). Hau da, legegileak azaltzen duen bezala, AN-ren instruitze eta epaiketaren zentralizazioak eta aldi berean, Espetxe Zaintzako Epaileak¹² epaien betearazpenak kontrolatzearen artean sor daitezkeen disfuntzioak saihestu nahi dira. Guzti hau, aurretik aipatu dudan indibidualizazio zientifikoaren printzipioan oinarritutako espetxe-sistema batekin bat ez datorrela ondorioztatu daiteke.

¹¹ Espainiako Konstituzioko 14.artikula. “Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.”

¹² Espetxe Zaintzako Epailea gainerako delituetan epaien betearazpenak kontrolatzen dituen figura autonomoa da.

ETAko presoei ezarritako zigorrei buruz aritzerakoan, ezinbestekoa da **7/2003 Lege Organikoak**, zigorrak osorik eta eraginkortasunez betetzeko erreforma-neurriei buruzkoak, ekarri dituen aldaketak aipatzea. Erreforma oso polemiko bat izan zen eta honen bitartez, hirugarren graduako espetxe erregimena eta baldintzapeko askatasuna lortzeko zailtasunak nabarmenki areagotu ziren.

Alde batetik, espetxe tratamenduko **hirugarren gradu**an sartzeko murrizketak ditugu. Hirugarren graduak, delitugileari zigorra espetxetik kanpoko erdi-askatasuneko erregimenean betetzeko aukera ematen dio. 7/2003 Lege Organikoa indarrean sartu aurreko erregulazioak, espetxera kondenatutako edozein pertsona, bere inguruabar pertsonalen arabera, zuzenean espetxe tratamenduko 3^ora sar zitekeela arautzen zuen (LOGP 72. artikulua). Beraz, kondenaren iraupena eta erruduntzat jotzeko izaera edozein zelarik, pertsona espetxera ez sartzeko aukera ematen zen. 7/2003 Lege Organikoak, 72. artikulua zehaztutakoaren funtsezko aldaketa bat egiten du eta zigortutakoa espetxe tratamenduko 3^oan sailkatu ahal izateko bete beharreko betekizunen erreforma garrantzitsu bat ematen du.

Honetan, **Segurtasun Aldia** deritzona aurki dezakegu. Aurretik aipatu dugun Zigor Kodeko 36. artikuluan, bigarren puntu berri bat sartzen da, non figura hau ezartzen den. 36.2 artikuluko bigarren paragrafoan¹³, espetxe zigorra bost urte baino gehiagokoa den kasuetan, kondenatuaren sailkapena hirugarren graduaren ezarritako zigorraren erdia betetzen duen arte eman ezin izango dela arautzen da. Hurrengo puntuan¹⁴, Espetxe Zaintzako epaileari ahalmena ematen zaio, gizartearen aldeko pronostiko individualizatua egin eta gero, eta errudunaren inguruabar pertsonalak eta berreziketa tratamenduaren bilakaera baloraturaz, betetze-erregimen orokorra aplikatzeko eta beraz, delitugileak zigorraren erdia baino lehen 3^o jasotzeko. Beti ere, terrorismo delituak edo erakunde kriminalen barruan egindako delituak ez badira. Hau da, delitu arruntetan lehenago ateratzeko aukera ematen da, terrorismo delituetan ez bezala. Guzti honekin,

¹³ Zigor Kodeko 36.2.artikulua 2.paragrafoa: “Cuando la duración de la pena de prisión impuesta sea superior a cinco años, el juez o tribunal podrá ordenar que la clasificación del condenado en el tercer grado de tratamiento penitenciario no se efectúe hasta el cumplimiento de la mitad de la pena impuesta.”

¹⁴ Zigor Kodeko 36.3.artikulua: “La autoridad judicial de vigilancia penitenciaria, previo pronóstico individualizado y favorable de reinserción social y valorando, en su caso, las circunstancias personales de la persona condenada y la evolución del tratamiento reeducador, podrá acordar razonadamente, oídos el Ministerio Fiscal, Instituciones Penitenciarias y las demás partes la aplicación del régimen general de cumplimiento, salvo en los supuestos contenidos en el apartado anterior.”

gradueta bereizketa egiten zuen indibidualizazio sistema malguan, zurruntasun maila bat sartzen dela ikus dezakegu (Cano, 2012, 67.or.).

Horrenbestez, ETako presoek, 7/2003 Lege Organikoaren erreformaren ondorioz, 3º lortzeko, gutxienez kondenaren erdia bete behar zuten, nahiz eta jarduera terroristatik ihes egin edota lehen egunetik autoritateekin lankidetzan aritu. Terrorismo delituetan zigorraren erdia nahitaez betetzearen inposizio hau nahiko kritikatu izan zen. Doktrinaren ustetan, berdintasun-printzipioaren urratze larri bat ematen zen; arautzeak, bereizkeriazko tratu onartezin bat egiten zuen, izan ere, gizartearentzako mesedegarria den bilakaeraren aurrean, barneratu batzuk 3º sailka zitezkeen eta beste batzuk ez. Espetxe tratamenduko hirugarren graduari sailkatzea ezin zen ezarritako zigorraren zati bat betetzearen menpe egon, zigortuak espetxe-tratamenduari dagokionez zuen bilakaera indibidualaren menpe baizik.

Segurtasun Aldiaz gain, hirugarren graduari sailkapena eragozten duen beste ezaugarri bat daukagu, Espetxeen Lege Organikoko 72.5. artikuluan¹⁵ arautzen dena. Honen arabera, bost urtetik gorako espetxe zigorra duen subjektuak eta artikuluan zehaztutako delitu tipologia bete duenak (emaitza kaltegarriak eduki ekonomikoa duelarik), 3ºan sailkatu ahal izateko, baldintza bat bete behar du: egindako delituaren edo delituen ondoriozko **erantzukizun zibila** asetzea. Hau bete edo ez betetzea, *conditio sine qua non*¹⁶ izango da 3ºan sailkatzeko edo aurrera egiteko. Gainera, artikuluko bereko hurrengo puntuan, 72.6. artikuluan¹⁷, terrorismo delituen edo antolakunde kriminalen barruan egindako delituen kasuan, erantzukizun zibila asetzeko betekizuna berariaz aurreikusten da. Hau da, interes pribatuak asetzera bideratutako zehapenak askatasunaz gabetzeko zigorra betetzeko modua zehazten du (Cano, 2012, 69.or.).

¹⁵ Espetxeen Lege Organikoko 72.5.artikulua: “La clasificación o progresión al tercer grado de tratamiento requerirá, además de los requisitos previstos por el Código Penal, que el penado haya satisfecho la responsabilidad civil derivada del delito.”

¹⁶ *Conditio sine qua non*: latinetik datorren adierazpena da, zerbait gertatzeko ezinbestekoa edo funtsezkoa den baldintzari edo ekintzari erreferentzia egiten diona.

¹⁷ Espetxeen Lege Organikoko 72.6.artikulua: “Del mismo modo, la clasificación o progresión al tercer grado de tratamiento penitenciario de personas condenadas por delitos de terrorismo de la sección segunda del capítulo V del título XXII del libro II del Código Penal o cometidos en el seno de organizaciones criminales, requerirá, además de los requisitos previstos por el Código Penal y la satisfacción de la responsabilidad civil con sus rentas y patrimonio presentes y futuros en los términos del apartado anterior, que muestren signos inequívocos de haber abandonado los fines y los medios terroristas, y además hayan colaborado activamente con las autoridades.”

Erantzukizun zibilaren betetzearekin batera, 72.6. artikuluan, terrorismo delituengatiko kondenatutakoei hirugarren gradura igartzeko eskatzen zaizkien gainerako betekizunak arautzen dira: 1) bitarteko terroristak eta helburuak alde batera utzi izanaren zantzuak eta 2) agintarietako lankidetzak aktiboak. Lehenengo betekizunari dagokionez, eztabaida sakona izan zen. Gradu progresioa aukera politiko-ideologiko batekin lotzen zen, hala nola, indarkeria ukatzea eta talde terroristako kide izatea gaitzestea. Legegilearen ustez, delinkuentzia terroristak lotura estua zuen ideologia jakin baten bereganatzearekin eta beraz, ideologia hori baztertuta, subjektua ez zen jada arriskutsua. Horretarako, bitarteko terroristak ez ezik, helburuak ere baztertu behar ziren (Euskal Herriaren independentzia nahi izatea). Helburu hauek, Zuzenbide Estatu batean erabat zilegiak eta defenda zitezkeenak ziren, beti ere indarkeria gabekoak izanik. Ondorioz, ez zieten soilik baliabideei uko egin behar, baita helburuei ere eta horrek, kritikak aldarrikatzen zuen bezala, Konstituzioko 16. artikuluan¹⁸ aitortzen den askatasun ideologikoa urratzen zuen.

Hirugarren graduan aurrera egitearekin amaitzeko, azkenengo hilabeteetan doktrinaren aldaketa bat egon dela aipatzekoa da. Euskal Autonomia Erkidegoak espetxe sistemaren konpetentziak bereganatu dituenetik, ETAko presoekin hirugarren graduak Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eskutik abian jarri dira. Honek, Espainiako gizartearen desadostasuna eta sumindura sorrarazi du, baita polemika ere. Urte honetako apirilaren 27an, Eusko Jaurlaritzak proposatutako hirugarren graduak 43 izan dira, non horietatik, Audientzia Nazionalak 10 baliogabetu dituen. Baliogabetze honen inguruan, Auzitegi Gorenaren doktrina berriak kondenatuarentzat onuragarria ez den aldaketa bat ekartzen du: fiskalak erdi-askatasuneko erregimenaren aurka Espetxe Zaintzako Epailaren aurrean errekurtsioa jartzen duen unean, presoak espetxera bueltatu behar da, hau da, errekurtsioa aurkezte hutsak progresioa geldiarazten du eta kaleratutakoa berriz ere unean bertan espetxerazten da.

Bestetik, 7/2003 erreformaren bitartez, hirugarren graduan aurrera egiteko zailtasunez gain, **baldintzapeko askatasuna (BA)** lortzeko zailtasunak ere ezartzen dira. Baldintzapeko askatasuna espetxe-tratamenduaren azken unea da, indibidualizazio

¹⁸ Espainiako Konstituzioko 16. artikulua: "Se garantiza la libertad ideológica, religiosa y de culto de los individuos y las comunidades sin más limitación, en sus manifestaciones, que la necesaria para el mantenimiento del orden público protegido por la ley."

zientifikoko sistemaren fase bat, espetxeratze-denbora efektiboa murrizteko bide bat eta kondena betetzeko modu bat (Calón, 1958, Lledot-en aipatua, 1996).

2003ko erreforma baino lehen, Zigor Kodearen 90. artikuluan¹⁹ ezarritakoaren arabera, honako guztiek baldintzapeko askatasuna jaso zezaketen: 1) espetxe tratamenduko 3^oan zeudenak, 2) ezarritako zigorraren $\frac{3}{4}$ (edo salbuespen gisa $\frac{2}{3}$) bete zituztenak eta 3) jokabide ona zutenak eta birgizarteratzeko pronostiko indibidualizatua aldekoa zutenak. Erreformatik, BA lortzeko, kondenatu guztiei aplikatu beharreko beste baldintza bat gehitu zion Zigor Kodeko 90.1. artikuluari²⁰: erantzukizun zibila ordaindu behar izana. Honez gain, are garrantzitsuagoa da Zigor Kodean gehitu ziren beste hiru aldaketak, terrorismo delituengatik kondenatutakoei edo erakunde kriminalen barruan egindakoei soilik zuzenduta zeudenak:

- 1) Gizarteratzearen aldeko pronostikoa egon dadin, beharrezkoa da subjektuak agintariekin aktiboki lankidetzan jardun izana eta jarduera terrorista utzi izanaren zantzu garbiak erakustea.
- 2) Delitugile mota hauei ez zaie salbuespenezko baldintzapeko askatasunaren araubidea aplikatuko, non nahikoa da kondenaren $\frac{2}{3}$ betetzea.
- 3) Emandako baldintzapeko askatasuna errebotatzen bada, kondenatuari ez zaio BA-ean emandako denbora kenduko espetxean bete behar duen gainerako zigorretik.

Lege Organikoak beraz, Zigor Kodearen 90. artikuluan eskakizun bikoitza sartu zuen; ez zen nahikoa abandonu hutsarekin, baldin eta ez bazen lankidetzarako jokabide positiborik gertatzen (Cano, 2012, 79.or.). Honez gain, erreforma honek jasandako kritika indartsuena 90. artikuluko betekizunek Espetxeen Lege Organikoko 72.6 artikuluko betekizunekin bat egiten dutela da, hau da, hirugarren gradua lortzeko betekizunekin; ez da ulertzen baldintzapeko askatasuna lortzeko 90. artikulua aginduak errepikatzea, horrek alde aurretik eta nahitaez bete behar baitira.

¹⁹ Zigor Kodeko 90.artikulua: “El juez de vigilancia penitenciaria acordará la suspensión de la ejecución del resto de la pena de prisión y concederá la libertad condicional al penado que cumpla los siguientes requisitos:

- a) Que se encuentre clasificado en tercer grado.
- b) Que haya extinguido las tres cuartas partes de la pena impuesta.
- c) Que haya observado buena conducta.”

²⁰ Zigor Kodeko 90.1. artikulua: “No se concederá la suspensión si el penado no hubiese satisfecho la responsabilidad civil derivada del delito en los supuestos y conforme a los criterios establecidos por los apartados 5 y 6 del artículo 72 de la Ley Orgánica 1/1979, de 26 de septiembre, General Penitenciaria.”

Zigor Kodearen 93. artikuluan, 2 eta 3 puntu berriek²¹, terroristei emandako baldintzapeko askatasunaren errebokazioa arautzen zuten. Espetxeko gainerako biztanleentzat oro har aurreikusten ziren errebokatzeko arrazoi bat gehitzen zitzairen terrorismoarengatik kondenatutako delitugileei: BA lortzeko aukerak eman zieten baldintzak ez betetzea. Beraz, baliogabetzeko hiru kasuetatik bat ematen baldin bazen (1. delitu bat gauzatea, 2. ezarritako jokabide arauak ez betetzea edo 3. BA lortzeko aukerak eman zieten baldintzak ez betetzea), askatasunean emandako denbora galduz kartzelara itzuli beharko zen subjektua.

Doktrinaren zati baten iritziz, 93. artikuluan aurreikusitako neurriarekin *non bis idem*²² printzipioa urratzen zen. Delitu egitate bat egin ondoren, baldintzapeko askatasunean igarotako denbora galtzean, kondenatua delitu beragatik zigorraren zati bat bi aldiz betetzera behartzen ari zela ulertzen zen.

Atal honi amaiera emateko, ezinbestekoa da agerikoa izan den **Parot Doktrinaz** aritzea. 7/2003 Lege Organikoak sartzen zituen erreformak, soilik hura indarrean sartu eta gero ematen ziren erabakietan ziren aplikagarri. Hori dela eta, Lege Organiko honen bitartez, ETAko kide nagusi izandako hainbat presoek kaleratzeak ezin izan ziren saihestu. Delitugile haien irteerek Espainiako gizartearengan haserrea eta ezinegona sortu zuten eta ondorioz, legegilea eta epailea ETAko presoek kaleratzeak ahalik eta gehien zailtzen eta luzatzen zituzten mekanismoak garatzera behartuta ikusi ziren (Cano, 2012, 90.or.). Egoera honetan, Parot Doktrina sortu zen.

Parot Doktrinak Auzitegi Gorenak emandako epai garrantzitsu bati egiten dio erreferentzia (197/2006 epaia); horretan, kondenak metatzen diren kasuetan espetxeonurak nola aplikatzen ziren zenbatzeari buruzko interpretazio jarraitua aldatu zen (Cano,

²¹ Zigor Kodeko 93.artikuluko 2 eta 3 puntuak:

“2. En el caso de condenados por delitos referentes a organizaciones y grupos terroristas y delitos de terrorismo del Capítulo VII del Título XXII del Libro II de este Código, el juez de vigilancia penitenciaria podrá solicitar los informes que permitan acreditar que subsisten las condiciones que permitieron obtener la libertad condicional. Si en este período de libertad condicional el condenado delinquiera, inobservara las reglas de conducta o incumpliera las condiciones que le permitieron acceder a la libertad condicional, el juez de vigilancia penitenciaria revocará la libertad concedida, y el penado reingresará en prisión en el período o grado penitenciario que corresponda.”

“3. En el supuesto previsto en el apartado anterior, el penado cumplirá el tiempo que reste de cumplimiento de la condena con pérdida del tiempo pasado en libertad condicional.”

* Artikulu hau gaur egun indargabetuta dago.

²²Non bis idem: latinetik datorren adierazpena da. Pertsona orok egitate edo delitu beragatik behin baino gehiagotan epaituak eta zigortuak ez izateko dugar eskubideari erreferentzia egiten dion printzipioa.

2012, 91.or.). Zigortuari ezarritako kondena osatzen zuten zigor bakoitzak bere indibidualtasunari eutsi behar zion. Metatze-kasuetan, espetxe-onurak ez ziren maximo (30 urte) horren gainean zenbatuko, baizik eta, subjektuak, prozesu ezberdinetan ezarritako zigorrak bata bestearen atzetik bete behar zituen, eta, horietako bakoitzarekiko espetxe-onurak, banan-banan zenbatu behar zitzaizkion. Kondena osoko zigorra hurrenez hurren betetzea, lehenengo zigorrarekin hasten da, hau da, zigor larrienarekin.

Beste era batera azalduta, Parot Doktrina baino lehen, metaketa juridikoaren arabera, milioika urteko kondena bat gehienez 30 urtera murrizten zen, eta muga horren gainean aplikatzen ziren espetxe-onurak. Honek, praktikan, kondena efektiboa erdira murriztu zezakeen. Baina, Parot Doktrinaren ezarpenarekin, preso batek 30 urteko kondena osorik bete zezakeen; espetxe-onurek zigor bakoitzari indibidualki eragiten ziotela ulertzen zen. Izan ere, kondenak metatzeko erregelatik zigor berri bat sortzen zen, autonomia, eta horren gainean aplikatu behar ziren espetxe-onurak (baimenak, baldintzapeko askatasuna, etab.). Doktrinaren interpretazio honen bitartez, epe laburrean aske egongo ziren 185 terroristen iraupena espetxean 10 urtez luzatzea lortu zen. Hau hobeto ulertzeko, adibide bat planteatuko dut:

Imajina dezagun guztira, hiru zigor ezberdinengatik (15,15 eta 25) 55 urteko espetxe zigorra duen subjektu bat dugula. Espetxe-onurengatik, pertsona honek 5 urteko murrizketa bat jasoko du. Parot Doktrina aplikatu gabe, 30 urteko espetxe zigorrari²³ 5 urteak kenduko zaizkio eta ondorioz, 25 urte igarota espetxetik kaleratua izango da. Parot Doktrina aplikatzerakoan aldiz, zigor bakoitzari 5 urteak kenduko zaizkio (15-5=10; 15-5=10; 25-5=20) eta beraz zigorrak 10, 10 eta 20 bezala geratuko lirarteke, hauen batura 40 urteko espetxe zigorra izanik. Kasu honetan, delitugilea kaleratua izateko, honek, 30 urteak, hau da, kondena efektiboa bete beharko du, zeren baturak, maximoa baino handiagoa izaten jarraitzen du.

Parot Doctrina 2013. urtean Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak indargabetu zuen, honek, espetxeratuen hainbat oinarritzko eskubide urratzen zituela ulertu zelako.

²³ Gogoratu espetxean bete ahal den maximoa 30 dela, nahiz eta kondenan ezarritako espetxe zigorra altuagoa izan.

Puntu honetan, ETA-ko kideak izandako presoak zein arauen oinarrian zigortuak, espetxeratuak eta kaleratuak izan diren laburtzen saiatu naiz. Urteetan zehar, hainbat aldaketa eta erreforma eman direla ikus daiteke, gehienak ETA-ko presoek kalterakoak izan direnak; askatasuna lortzeko bidea luzatzen zutenak. Horrenbestez, hasieran aipatu bezala, estatuak erabilitako estrategia edo taktika geroz eta punitibistagoa izan da, salbuespenezko arauak, legeak, doktrinak eta bestelakoak behin eta berriz aplikatuz. Honen adibide dira azaldutako zigortuaren klasifikazioa 1º, FIES erregimenaren behartzea, sakabanatze politika indartsu eta iraunkorra, Audientzia Nazionala eta honen barruan agertzen diren bestelako figura juridikoak, 7/2003 Lege Organikoa, non bereziki terrorismo delituengatik kondenatutakoentzat hirugarren graduak sailkatzeko eta baldintzapeko askatasuna lortzeko zailtasunak ezartzen diren, Parot Doktrina, azken hilabeteetan hirugarren graduak ukatzeko doktrina berria, eta beste hainbat.

Guzti honekin, ETA-ko presoek kaleratzeak eragotzi eta ahalik eta gehien luzatu nahi izan dira. Izan ere, estatuko biztanleen mesedeak asetzearren eta politika-taktika gisa, arauak eta hauen aplikagarritasuna behin eta berriz aldatzen joan dira, oinarriko eskubideak behin baino gehiagotan urratuz. Horrenbestez, askotan, mendekuzko justizia bati buruz hitz egin da.

Bestetik, punitibismoaren eragina azpimarratzea gustatuko litzaidake. Dufraixek (2008, 119.or.) adierazten duen bezala, 7/2003 legeak hartzaile eta helburu bakarra du: ETA-ko terrorista eta bere espetxeratze luzeena ziurtatzea. Hau, atal honetan aztertutako hainbat aldaketa eta figura berrien ezartzearekin ikusi dugu: Segurtasun Aldia, autoritateekin kolaboratzea, barkamenaren eskaera zintzoa, helburu eta bide politikoei uko egitea, Parot Doktrina, sartu berri den doktrina etab. Hauen bitartez, ETA-ko presoaren espetxeratzea nahitaez luzatzen da, eta behin kaleratuta (hirugarren gradua edo baldintzapeko askatasuna), berriz ere espetxera sartzeko aukerak areagotzen dira. Honek, birgizarteratzean eragin negatibo izugarria du eta hainbat langile eta profesionalen lan eta ekimen eraginkorrak oztopatzen ditu (1. Eranskina, 2. Elkarriketa, 3 eta 5. galderak).

Puntu honekin amaitzeko, terrorismo eremuan sortutako salbuespenezko azpistema penaleko zenbait arau, salbuespenetik orokortasunera igaro direla ere azpimarratzekoa da. Honen adibide, baldintzapeko askatasuna dugu. 7/2003 erreformaren bitartez, 93. artikuluko 2 eta 3 puntu berriek, terroristei emandako BA-ren errebokazioa arautzen zutela ikusi dugu, non presoak BA urratu ezker, askatasunean

emandako denbora galduz espetxera itzuli behar zen. Hau, hasiera batean soilik terrorismo delituengatik kondenatutakoentzat zen aplikagarri, salbuespen bezala. Hala ere, gaur egun, 2015. urteko Zigor Kodearen erreforma eta gero, 93. artikulua osorik baliogabetzen da eta askatasunean egondako denbora galtzea preso orori aplikagarri zaio. Honekin, punitibismoaren tendentziak salbuespenetik orokortasunera bidaiatzen duela ikus dezakegu, preso oro kaltetuz, askatasunerako aukera geroz eta gehiago murriztuz eta birgizarteratze egoki eta eraginkorra eragotziz.

3. BIKTIMAK

Nahiz eta lan honetan gehienbat delitugileei buruz arituko naizen, txanponaren beste aldea aztertu gabe presoen birgizarteratzeari buruz hitz egitea ez zait egokia iruditzen. ETA-ko presoen birgizarteratzearen inguruko lan apropos bat egiteko, ETA-ren biktimak, hauen esperientziak, sentimenduak eta batez ere, beharrak aztertzea ezinbestekoa da. Hau, puntu honetan jorratuko dut. Horrez gain, aipatzekoa da lan honetan egindako elkarrizketetako bat atal hau osatzera bideratuta dagoela (1. Elkarrizketa).

3.1. KONTZEPTUA, IZAERA ETA MOTAK

Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak, 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean, onarturako delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren oinarriko printzipioei buruzko adierazpenean, biktima honela definitzen du: estatu kideetan indarrean dagoen legeria penala urratzen duten ekintzen edo ez-egiteen ondorioz (botere-abusua debekatzen duena barne), banaka edo taldeka kalteak jasan dituzten pertsonak dira, sufrimendu emozionala, finantza-galera edo oinarriko eskubideen funtsezko galera barne. Bestetik, adierazpenean, biktimaren kontzeptua gehiago zabaltzen da: "Biktima" esamoldearen barruan sartzen dira, halaber, zuzeneko biktimarekin berehalako harremana duten senitartekoak edo ardurapeko pertsonak eta arriskuan dagoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartzean kalteak jasan dituzten pertsonak.

Beraz, biktima izaera esanahi itxi eta bakar batera mugatzen ez dela ikus dezakegu; hainbat motatako biktimak egon daitezke, nahiz eta egintza guztiz ezberdinen ondoriozkoak izan. Aurreko definizioan aipatu ez arren, delituzko biktimak izateaz gain,

beste egitate batzuegandik kalteak jaso dituzten pertsonak ere biktimatzen hartzen dira, hala nola, ingurumen-hondamendiak (lurrikarak, tsunamiak...), istripuak (hegazkin istripuak, erortzea...), gerrateak eta bestelakoak. Guzti hauetan, amankomuna den elementu bat antzeman dezakegu: kalteak jasan izana. Kalte hauen ondorioak egitatearen subjektu pasiboa den pertsonak pairatzen ditu, hau da, biktimak, eta forma ugariak izan daitezke: ondorio fisikoak, psikologikoak, ekonomikoak, emozionalak, sozialak, etab.

Biktimei buruz mintzatzerakoan, ezinbestekoa da zuzeneko biktimak eta zeharkakoak bereiztea. Echeburuak (2004, Orozco et al.-en aipatuta, 2020) zuzeneko biktimak edo lehen mailako kaltetuak eta zeharkako biktimak edo bigarren mailako kaltetuak ezberdintzen ditu. Zuzeneko biktimak eraso edo gertakari traumatiko batengatik modu zuzenean kaltetuak izan diren pertsonak dira. Zeharkako biktimak aldiz, kondizio fisiko edo soziokulturalengatik trauma jasan duten pertsonak dira; gertaeren edo indarkeriaren lekukoak baina pertsonalki kaltetuak izan ez direnak. Bigarren kategoria honek, biktima zuzenei lotutako gertuko pertsonak eta familiakoak barneratzen ditu.

Terrorismo delituen zabalera eta gailentasuna dela eta, garrantzitsua da aurreko bereizketa kontuan izatea. Alde batetik, erasoengatik zuzenean kaltetutako biktimak ditugu, hau da, hildakoak, lesionatutakoak, arriskuan jarritakoak, bahitutakoak, etab., eta, beste alde batetik, biktima hauen familiakoak eta gertukoak, sufrimendua ere pairatu eta bizi izan dituztenak.


Jarraian, ETaren terrorismoan zentratuko naiz, jarduerazko urteetan egitate eta erasoek utzitako biktimak aztertuz.

3.2. ETAREN TERRORISMOAREN BIKTIMAK

Terrorismoaren Biktimen Fundazioak jasotako datuen arabera, 1968. urtetik 2010. urterarte ETAREN terrorismoak guztira 858 hildako utzi zituen. 70. hamarkadaren amaiera apiatzekoa da, bertan ematen baitira hilketen gehiengoa. Hortik aurrera, tendentzia erdira gutxitzen da eta nahiko egonkor mantentzen da 90. hamarkadaren amaierararte. Honako grafikoan (1 Grafikoa), urte bakoitzean emandako hildakoen kopuru zehatza ikus daiteke:

1 Grafikoa

ETA-k hildako pertsona kopurua 1968. urtetik 2010. urterarte.




Oharra. Terrorismoaren Biktimen Fundaziotik jasotako datuak eta informazioa baliatuz egina.

Hildakoez gain, beste hainbat kaltetu egon ziren. Hauen artean, bereiztekoak dira zaurituak edo kalte fisikoak jasan zituztenak eta bahituak izan zirenak.

Lesionatuak edo zaurituak kuantitatiboki ezagutu ahal izateko, Maria Jimenez eta Gaizka Fernandez-ek *Supervivientes del terrorismo: los heridos y los secuestrados por ETA* lanean azaldutako datuak erabili ditut, hauek, Barneko Ministeriotik atera dira eta hamarkadetan banatuta, zenbat lesionatu edo zauritu egon ziren azaltzen da. Jarraian, grafiko honetan (2 Grafikoa) ikus daiteke:

2 Grafikoa

ETA-k zauritutako pertsona kopurua 1960eko hamarkadatik 2010eko hamarkadararte.




Oharra. Maria Jimenez eta Gaizka Fernandez-ek *Supervivientes del terrorismo: los heridos y los secuestrados por ETA* lanean jasotako datuak eta informazioa baliatuz egina.

Bestetik, bahituak ezagutzeko, Francisco J. Llera eta Rafael Leonisoren *Los secuestros de ETA y sus organizaciones afines, 1970-1997: una base de datos* ikerketan jasotako datuetan oinarrituz, 1970-1997 denbora-espazioan, ETAk 86 pertsona bahitu zituela ikus dezakegu. Jarraian, urte bakoitzean emandako bahiketa kopurua grafiko (3 Grafikoa) baten bidez antzeman daiteke:

3 Grafikoa

ETA-k bahitutako pertsona kopurua 1970. urtetik 1997. urterarte.



Oharra. Francisco J. Llera eta Rafael Leonisoren *Los secuestros de ETA y sus organizaciones afines, 1970-1997: una base de datos* ikerketatik jasotako datuak eta informazioa baliatuz egina.

Grafikoetan jasotako datuei erreparatuz, 1978-1980 bitarteko urteak nabarmentzekoak dira, hilketa, zauritu eta bahiketetan gorakada handi bat ematen baita. Biolentzia eta borroka armatuaren urte indartsuenak izan zirela esan daiteke, non epe labur batean hamarkada oso baten baino biktima gehiago eman ziren.

ETA-ren terrorismoak hainbat biktima izan zituen. Hildakoez gain, beste motatako indarkeria eta erasoak jasan zituzten pertsonak daude, eta hauek ere, biktimak dira. Familiakoak eta gertukoak ere kontuan hartu beharreko pertsonak dira; arestian aipatu bezala, zeharkako biktimak baitira, sufrimendua, mina eta trauma ere pairatu dituztenak. Honez gain, ETA-k izugarrizko mina eta zauri bat utzi duela baieztatu daiteke, bai subjektu aktiboengan, familiengan eta baita gizartearen zati handi batean ere.


3.3. ZER GERTATZEN DA ERASOA ETA GERO? TERRORISMOAREN BIKTIMAK ETA HAUEN BEHARRAK

Terrorismoaren biktimak aztertzeke, lehenik eta behin terrorismoa bera ezagutu eta ulertu behar dugu. Eraso terroristak, normalean, aurreko abisu gabe ematen dira eta beraz, ez dago kontrolerako aukerarik. Bestetik, gizakiarengatik nahita egindako portaera bortitzak dira eta honek, biktimengan edo gizartearengan babesgabetasunezko eta ulertezinezko egoera sortzen du. Hirugarrenik, talde handi edo hedatu bateko kideek burututako eraso sistematikoak dira, ideologia eta helburu amankomun batzuek bultzatuta. Helburuak zehatzak eta argiak dira eta erasoak autoritateek erabaki politiko edo sozial jakin batzuk hartzeko gauzatzen dira. Populazioarengan edo pertsona multzo jakinengan beldurra eta ikara zabaltzen dute; zaugarritasun, beldur bortitz, babesgabetasun eta arrisku sentimendu sakonak eta luzaroan irauten dutenak sorraraziz.

1986. urtean, Raphael-ek, eskala handiko gertakari bortitz bati gizarteak erantzuteko duen eredu edo ziklo orokor bat identifikatu zuen (1. argazkia) eta hau, eraso terrorista baten ondoren ere ematen dela frogatu da. Jarraian, Josée Nettenen eta Maarten van de Donken *Enhancing the resilience of victims after terrorists attacks* (2018) lana oinarri bezala hartuz, ziklo honetan ematen diren fase ezberdinak azalduko ditut. Hauek ulertzea profesional eta autoritateentzat oso lagungarria izan daiteke, berreskuratzeprosesu luzea eta biktimaren beharrak fase bakoitzaren arabekoak eta ezberdinak izan daitezkeela erakusten baitu.

1 Argazkia:

Eraso bortitz bati erantzuteko faseak (Raphael, 1986).



Lehenengo fasean, inpaktu-fasea deritzon ("Impact"), erasoak leku hartzen du, biktimak eta gizartea "shock" egoeran aurkitzen dira. Kasu batzuetan, unean bertan, babes bai emozionala bai fisikoa nahitaezkoa bihurtzen da. Estres erreakzioak ohikotasunez ematen dira eta haserrea, atsekabea, babesgabetasuna, damua eta antsietatea bezalako sentimenduak ere agerikoak izan daitezke.

Bigarren fasea, eztei-bidaia ("Honeymoon"), eraso gertatu eta egun batzuk geroago ematen da eta gutxi gorabehera 3-6 hilabeteko iraupena du. Biktimari laguntza ematen zaio, hau komunitateen eta agintarien eskutik etortzen da eta masiboa izan ohi da; arreta, eskuzabaltasuna, elkartasuna, lotura, ardura, kolaborazioa, etab. nabarmentzen dira. Gobernuko agintarien eskutik, bizitza berriak eraikitzeko promesak ohikoak izaten dira, bizirik baina sufritzen daudenen artean itxaropen handia sortuz. Izugarriko laguntza sozial honek amaiera bat izaten du eta beraz, garrantzitsua da fase honetan, profesionalak agerikoak eta laguntza handikoak izatea, horrela, etorkizunean beharrezkoa izango den kohesiozko eta konfiantzazko harremanen oinarria sortzen da.

Hirugarren fasean, desilusio fasean ("Disillusionment"), eraso terroristak jada ez du arretarik jasotzen, gizartea bere normaltasunera bueltatzen da. Biktimiek haien galerak penatzen dituzte eta nekea nagusitzen hasten da; laguntza antolatua erretiratu egiten da, burokrazia sortzen da eta aurretik egindako promesak ez dira betetzen. Honek, itxaropena galtzea eta bakarrik geratzearen pertzepzioa eragiten du; komunitate partekatuaren sentimendua jada ez da existitzen. Une honetan, premia psikologikoak bortitzak izan daitezke eta ondorioz, laguntza profesionala nahitaez behar izatea gerta daiteke. Errekuperazio prozesua geldoa, luzea eta mingarria izaten da, konplexua ere askotan: laguntza eta informazio psikologiko, ekonomiko eta material egokia lortzeko zailtasunak, auzi korapilatsuak, biktima beraren egoera eta beharrak ez ezagutzea, etab. ematen dira. Fase honek urtez iraun dezake.

Amaitzeko, errekuperazio fasean ("Recovery"), helburu nagusia pertsonen eta komunitateen bizitzak berreraikitzea da. Hau oso astiro doan prozesuaren azkenengo fasea da eta beraz, urte asko beharko dira. Biktimaren egoeraren araberakoa izango da, baina gehiengoarentzat, larritasuna pixkanaka-pixkanaka gutxiagotzen doa oreka berri bat lortzen duten arte.

Fase hauek bereizita, biktima zeinetan aurkitzen den identifikatzea oso erabilgarria izan daiteke laguntza ematerako orduan. Eraso terrorista bakoitza bakarra eta

ezberdina da, kaltetutako pertsonen eta gizartearen erantzunak gertakariaren eta egoeraren arabera izango dira eta ondorioz, biktimen beharrak ere ezberdinak izan daitezke. Prozesu honen faseak ezagutzeak, biktimen beharrak denborarekin aldatzen direla ulertzen laguntzen du eta horrela, babes indibidualizatuago eta egokiago bat lortzen da.

Azaldutako erasoaren faseak kontuan izanda, terrorismoaren biktimen **beharrak** aztertuko ditut. Biktimek, eraso terroristari aurre egiteko eta sendatzeko behar duten laguntza aldarora izan daiteke. Biktima askok behar antzekoak izan arren, guztiek ez dituzte berdinak; bai biktimaren bai gertakariaren ezaugarriek beharren zenbatekoa eta nolakotasuna baldintzatu dezakete (Dinisman eta Moroz, 2017).

Jarraian, eraso terrorista baten biktima zuzenen eta zeharkakoen behar ohikoena aztertuko ditut. Aida de Vicentek (2019), *Victims of Terrorism Quality Assistance Guide* izendatutako gidaliburuan, hamaika behar identifikatzen ditu:

1. Informaziorako beharra:

Biktimarentzat, sekulako gertakari larri batengatik eratorritako ezjakintasuna suntsitzailea izan daiteke, beraren bizitzarekiko kontrolaren pertzepzioa gutxituz. Honen ondorioz, informazioa berehalakoa, zehatza, ulertzeko erraza, garrantzitsua eta ez-kontraesankorra izan behar da. Biktima zuzenei eta zeharkakoei informazioa modu apropos batean erraztea ezinbestekoa da.

2. Autoritateekin eta ahaideekin komunikatzeko beharra:

Biktimek eta hauen ahaideek, autoritateekin edo profesionalekin komunikaziorako zuzeneko bideak izan behar dituzte, kasuaren inguruko informazio garrantzitsua ahalik eta lehen jasotzeko.

Komunikazio bideak hasieratik zehaztuta egon behar dira, eta berehalakoak, pribatuak, errazak, seguruak eta erregularitasunezkoak izan beharko dira. Aurretik erabakitako egutegi eta formatu bat jarraituko dute eta denborak aurrera egin ahala egoeraren arabera egokitu beharko dira.

3. Oinarrizko segurtasun eta/edo babes beharrak:

Babesa, aterpea, arropak, janaria, ura, eta bestelako oinarrizko beharrianak eman beharko dira. Oinarrizko zerbitzu hauen hornitzean, kaosa, inprobisazioa, planteamendu desegokiak etab. kontuan hartu beharreko oztopoak dira, posible den heinean saihesteko. Berehalako laguntzak, pertsona gisa onartuak edo baliozkotuak senti daitezzen laguntzen du.

Espazio publikoetan edo biktima ohikotasunez joaten den lekuetan gertatutako erasoak arrisku sentsazio altu bat sortzen dute. Sentsazio honek, egunak edo hilabeteak iraun ditzake eta beraz, ezinbestekoa da babes pertzepzioa areagotuko duten ekintzak zehaztea.

4. Aitortzea:

Eraso terrorista bat jasan dutenek, pertsona, biktima eta biztanle bezala onartuak izateko beharra dute; eskubideen merezidun direla sentitzea. Aitortze prozesu honetan, garrantzitsua da komunitate edo gizarte zabalago bateko kide izateagatik edo herrialde edo gizarte baten sinbolo izateagatik biktimak bihurtu direla balioestea.

Zuzeneko eta zeharkako biktimek, agintariek, gizarteak eta komunikabideek ekintza terrorista etikoki, sozialki eta politikoki gaitzesten dutela antzeman eta entzun behar dute.

5. Laguntza emozionala eta errekupeazioa:

Biktima zuzenak eta zeharkakoak, errekupeazio prozesuan, lagunduak izaten ari direla sentitzeko beharra dute. Erasoa eta gero, baita hurrengo egun, aste eta hilabeteetan, langileen eta profesionalen laguntza jaso beharko dute. Hau horrela izanik, ezinbestekoa da kaltetuak sorostuko dituzten langileak terrorismoaren biktimei zentratutako prestakuntza jasotzea, errespetuzko eta laguntzazko tratua bermatuz.

6. Osasun fisiko eta mental integrala:

Terrorismo gertaera baten biktimei osasun-laguntza ez da eraso eta gero soilik eman behar, baizik eta bizitza osoan zehar beharrezkoa den heinean. Horrelako esperientzia baten ondorio fisiko eta psikologikoak denboran luze iraun dezakete, are gehiago, kronikoak izan daitezke edo hilabeteak pasa ondoren bapatean agertu.

Ikuspegi integral bat garatzea garrantzitsua da; biktimak laguntzerako orduan ez da soilik kondizio fisikoetako tratamendua baloratu behar, osasun mentaleko arazoak ere kontuan izan behar dira.

7. Besteekin harremanetan jartzeko eta talde batekoak izateko beharra:

Erasoa eta gero, biktimek laguntza sozial gutxiago jasotzea gerta daiteke. Komunitatea, lagunak eta baita familia, biktimarengandik urundu daitezke, izan ere, biktimak sentitzen duen sufrimendu, min edo atsekabeari aurre egiteko gai ez dira.

Honengatik, biktimak haien inguru sozial hurbilenetik urrun sentitzen dira. Aldentze honi terrorismo ekintza bortitzek sortzen duten gizakiarenganako konfiantza galera gehituz, biktimak guztiz isolatuta geratzea gerta daiteke. Egoera honen aurrean, biktimak aurrera egin dezan, lotura emozionalak berrestea eta laguntza hautematea funtsezkoa da. Horretarako, beste batzuekin elkar lotzea, kontaktu familiarra, gizarte-trukea, beste biktima batzuekin interakzio soziala, laguntza taldeak, eta bestelakoak bultzatu behar dira.

8. Duintasuna, intimitatea eta hedabideen tratu egokia:

Kaltetuen duintasuna eta intimitatea une oro babestu beharrekoak dira. Biktimaren irudia kaltetu edo haren sufrimendua areagotu dezakeen edozein irudi ezin izango da publikoa egin. Biktimaren eta bere senideen identitatea baita gainerako informazio pribatua ezin izango da hauen baimenik gabe hedabideei eman.

Laguntza ematerakoan, begirale bitxiak, hor egoteko justifikaziorik ez duten langileak eta komunikabideen presentzia saihestu behar dira. Biktimek eta haien senideek espazio pribatu babestuak izatea ziurtatu behar da, non nahi dutena askatasun eta intimitate osoz kontatu eta partekatu dezaketen.

Gainera, biktimek haien eskubideekiko aholkuak jaso behar dituzte, bereziki hedabideekin erlazionatutako eskubideen ingurukoak. Hedabideek, gertatutakoa kontatzearen eta biktimaren bizitza, duintasuna eta irudia errespetatzearen artean balantze bat aurkitu behar dute.

9. Laguntza praktikoa eta adituen aholkua:

Eraso terrorista batengatik kaltetuak izan direnek, beraien bizitzaren gaineko kontrola berreskuratzeko eta ahalik eta gehien normaltasun batera bueltatzeko laguntza behar dute. Honetan, laneko, etxeko eta hezkuntza laguntza eta maila ezberdinetako (soziala, sanitarioa, juridikoa, hezitzailea...) aholkularitza espezializatua barneratzen dira.

10. Justizia eta egiaren beharra:

Terrorismo kasuen biktimak haien ongizate fisikoa eta psikologikoa erasotu duten indarkeriazko gertakarien helburu zuzenak izan dira eta beraz, haien oinarrizko eskubideak urratu zaizkie. Erreparaziozko-prozesu honetan, ezinbestekoa da haien eskubideak babesten ari direla sentitzea, hau da, babes judizial egokia jasotzen ari direla antzematea.

11. Parte-hartzea eta memoria:

Parte-hartzeko beharra ez da prozesu penal, zibil edo administratiboetan parte hartzeri mugatzen, haien eskubideei buruzko edozein ekimen politiko edo legetara ere zabaltzen da.

Biktima eta honen senideei hitz egiteko eta entzunak izateko aukera emateak lagundu egiten du beraien bizitzarekiko kontrol zentzua berreskuratzen. Biktimek gizartearen eta agintarien babesa dutela jakin behar dute, beraien historia ez dela ahanzturan eroriko eta gertatutakoa argitzeko beharrezko ahalegin guztiak egingo direla.

Biktimen beharrei buruz ari garelarik eta bereziki azken puntu honekin erlazionaturik, biktimak urte askotan zehar, gizartearengatik babestuak sentitu izan ez direla azpimarratzea gustatuko litzaidake, bakardadea eta arduragabekeria nagusitu direlarik. ETA-ren eskutik pertsona bat galdu duten zeharkako biktima askok, abandonua eta hostasun soziala bizi dutela azaltzen dute, euskal gizartearen zati handi batek enpatiarik sentitzen ez zuelako edo eta unean gertatzen ari zena onartu eta aditu nahi ez zutelako. Askotan, biktimak beraien herritik eta bizilekutik alde egin behar izan zuten, bizilagun eta herrikideengandik babesa eta laguntza jasotzen ez zutelako. Testigantzak izugarriak dira eta izendatzaile amankomun bat dute: jendearen urruntasuna senidearen

hilketaren ondoren. Biktimak biktimizazio bikoitz²⁴ hori jasaten zuen; izan ere, galera ez ezik, gizarte-babesgabetasuna ere jasaten zuen, pertsonen urruntasuna alegia, eta horrek elkartasuna saihesten zuen (Millán, 2021, 17.or.).

Erresilientzia:

Puntu honekin amaitzeko, erresilientziari aipamen txiki bat egitea garrantzitsua iruditu zait, biktimologian hainbatetan aztertu eta ikasi den fenomeno baita. Biktimen “errekuperazio” edo normaltasunera bueltatzeko ibilbideari buruz ari garela, ezinbestekoa da erresilientzia aipatzea. Terrorismoaren biktima izatea, gertaera traumatiko pribatu bat da, baina baita esperientzia publiko eta politiko bat ere (Lambert, 2015, Argomaniz eta Lynch-en aipatuta, 2018). Eraso terrorista baten ondoren, gizarteak nazio baten indarra edo erresilientzia biktimaren sendatzearekin parekatu ohi du. Biktimengan espektatiben pisua oso handia bilakatzen da, eta askotan, gizarteari aurrera egiten uzteko ardura, galera pertsonal izugarria edo esperientzia traumatiko bat bizi izan dutenengan finkatzen da (Argomaniz eta Lynch, 2018).

Arestian aipatu dudan bezala, erresilientzia gertaera bortitz edo traumatiko baten ondoren, berriro altxatzeko eta bizitzan oreka berri bat aurkitzeko gaitasuna izango litzateke. Fenomeno hau, maila ezberdinetan eman daiteke: ikerketek, alde batetik, banakako faktoreak, bestetik, komunitateko faktoreak eta azkenik, bereziki hondamenditestinguru batekin zerikusia duten faktoreak bereizten dituzten (Hojtink et. al, 2011, Netten eta Van de Donk-en aipatuta, 2018).

Banakako maila batean, erresilientziak zerikusia izan dezake biktimaren nortasunarekin, hala nola, norberarekiko konfiantza, sendotasuna, ausardia, etab. Bestetik, inguruabarrekin ere lotuta egon daiteke: familia, lagunak, bizilagunak, lanekoak, etab. Estresezko uneetan oso lagungarriak izan daitezkeenak eta biktima bakarrik ez sentiaraztea lor dezaketeenak.

Komunitate maila batean, biktima pertsona talde jakin bateko kide izatearen sentimenduari edo etxean, seguru eta babesean sentitzen den leku edo eskualde

²⁴ Biktimizazio bikoitza: bigarren mailako biktimizazioa edo birbiktimizazioa bezala ere ezagutzen da. Eraso baten ondoren, biktimek haien ongizatearen kargu dauden langile edo instituzioetatik laguntza eskasa edo ezegokia jasotzen dutenean ematen da. Sorospena, egoera negatiboek izan dezaketen eragin psikologiko, fisiko eta mentala kontuan izan gabe ematen da eta honek, sufrimendua areagotu dezake. Eragile sozial eta instituzionalek eragindako biktimizazioa lehenengo mailakoari gehitzen zaio, hau da, eraso terroristarengatik sortutako biktimizazioari (De Vicente, 2019, 7.or.).

geografiko batekin lotura emozionalak izateari dagokio erresilientzia. Zenbat eta kohesio handiagoa izan komunitatean eta indartsuagoak loturak, orduan eta sendoagoa da erresilientzia. Komunitate baten barruan, instituzioak laguntzarako baliabide eraginkorrak bihurtu daitezke.

Azkenik, hondamendi-testuinguru batekin zerikusia duten faktoreei dagokienez, gertakari baten izaerak eta hedaturak biktimen erresilientzian ere eragina izan dezake. Norris et. al-ek (2002, Netten eta Van de Donk-en aipatuta, 2018) baieztatzen dutenez, gizakiak eragindako gertakariak aurre egiteko askoz ere zailagoak dira. Hau, eraso terroristei aplikagarri zaio. Esposizio-denbora ere kontuan hartu beharrekoa da: eraso jasateko arriskua zenbat eta handiagoa izan, aukera gehiago egongo dira biktima batek arazo eta nahaste psikologikoak garatzeko.

Azaldutakoarekin batera, erresilientzia, indarkeria kolektiboko gertakarietan ere eman daitekeela argitzeko da. Hori horrela izanik, terrorismo delituetan, biktima batek erresilientzia garatzea posible da. ETA-ko terrorismoaren inguruan adibide bat, Sara Buesaren kasua da (2. Eranskina). Sararen aita, Fernando Buesa, abokatu eta politikaria zen, Euskadiko Alderdi Sozialistako (PSE-EE) kidea. 2000. urteko otsailaren 22an, ETA-k hil egiten du. Sarak, hasiera batean minak, sufrimenduak eta amaigabea zen tristurak dena betetzen zuela azaltzen du, mundua une batez gelditu egin zela. Ezezagunak ziren hainbat pertsonen haien laguntza, babesa, enpatia, berotasuna, etab. erakutsi zieten, haien mina nolabait gutxiagotzeko edo baretzeko saiakeretan. Horrek, indarra eta errukia aurkitzera bultzatu zuen. Sarak, bere esperientzia oso gogorra baina aldi berean oso argigarria izan dela kontatzen du, sentiberatasun berezi bat lortu baitu.

Saraz gain, ETA-ko terrorismoaren biktimak izan diren eta erresilientzia bizi eta garatu izan duten beste pertsona batzuk ere daude, haien bizitza berreskuratu eta indarrez aurrera egiten jarraitu dutenak.

4. BIRGIZARATERATZEA

Puntu honetan, lanaren muina jorratuko dut: birgizarteratzea, baina, ez preso ororen birgizarteratzea modu orokor batean baizik eta ETA-ko presoena hain zuzen. Kriminologia graduan emandako urteetan zehar, birgizarteratzea hainbatetan jorratu, sakondu eta ikasitako ideia izan da; arlo ezberdinetatik aztertu dugu, juridikoa, soziala, psikologikoa, etab., kontzeptu zabala baita.

Birgizarteratzea, Konstituzioan bertan araututa agertzen da eta beraz, gure sistema penalean finkatuta dago. Espainiako Konstituzioko 25.2 artikulua, Zigor askatasun-gabetzaileak eta segurtasun-neurriak berreziketara eta birgizarteratzerara bideratuta daudela arautzen du. Honen bitartez, espetxe zigor eta segurtasun neurri ororen helburua birgizarteratzea bera dela baieztatu daiteke. Hau, Konstituzioan ezarrita egotea paradoxikoa eta kontraesankorra gerta daiteke, askatasunaz gabetzea eta pertsona bat birgizarteratu nahi izatea baterakorrak ez direlako, lehenengoak bigarrena zailtzen duelako eta azken finean, espetxe-sistema barrutik ukatzeari izaera konstituzional ematen ari zaiolako (Solar, 2020, 691.or.). Espetxe-sistemak askatasunaz gabetzeko dituen barne-alternatibak (baimen arruntak, hirugarren gradua eta baldintzapeko askatasuna) beharrezko inkongruentzia bihurtzen dira EKren paradoxa konpontzeko: erakunde itxi batetik gizarteratu nahi izatea. Sistema horiek kondenatua pixkanaka gizarte-ingurunean txertatzeko erabiltzen dira, espetxe-zigorra betearazteak dakartzan ondorio desozializatzaileak minimizatuz (Solar, 2020, 691.or.). Espetxe- eta zigor-sistema beraz, presoaren birgizarteratzerako kaltegarria eta oztopo nagusia da baina, aldi berean, birgizarteratzea errazteko eta kalte horien ondorioak minimizatzekeo tresna propioez baliatzen da. Hau da, helburu bera eragozten du baina hura barrutik alternatiben ezarpenekin konpontzen saiatzen da. Sistema honetan, gizarteratzeko ibilbide bat garatzen da non baimenek, hirugarren graduak eta baldintzapeko askatasunak ezinbesteko rol bat jokatzen duten preso askatasunera eta bizitza kolektibo batera prestatzeko orduan.

Paradoxikoa dirudien arren, sistema demokratikoa eta honek ezartzen dituen arauak eta legeria gizakienganako mesfidantzan oinarrituta dago. Gaur egun estatu demokratiko honetan ezarrita dauden legeen edukiaren gehiengoa gizakiak egin ditzakeen portaera negatiboan aurrean oztopo edo muga bezala ezarrita daude. Hala ere, birgizarteratzeak itxaropen maila bat edo bigarren aukera baten sinesmena erakusten du.

Birgizarteratzearen ezarpenarekin, zigorrari mendeku pertsonal, sozial, sistematiko eta juridiko hutsez bestelako asmoak esleitzen zaizkio. Zigorraren zeregin funtzionala bultzatzen da, gizartearentzako onuragarria izango dena eta mendekuaren eta punitibismoaren joera aldentzen duena. Kontzeptu hau beraz, delituak egin dituenari bigarren aukera ematen dion printzipio konstituzionala da. Hala ere, ezin daiteke birgizarteratzea zigorraren helburu bakar bezala ikusi, Solar-ek (2020, 695.or.) azaltzen duen bezala, barneratuei gizarteratzeko eskubide subjektiboa aitortzeak ez luke zigorrak prebentzio bereziaz gain beste helburu batzuk izatea eragotzi beharko.

Beraz, birgizarteratzea Konstituzioan aitortutako presoaren eskubidea eta zigorsistemak duen helburuetariko bat dela ondorioztatu daiteke, tratamendu egoki eta onuragarri bat jasotzeko aukera eta beharra arautzen duena eta honen bitartez, kartzelatuaren askatasunerako ibilbidea prestatzen dena.

4.1. ETA-ko PRESOEN BIRGIZARTERATZEA eta JUSTIZIA LEHENERATZAILEKO ESPERIENTZIAK

Kartzelatu dagoen presoaren birgizarteratzea edozein delitutan ematen da, ez da tipologiaren edo subjektu aktiboaren arabera salbuespenezko egoerarik egiten. Hala ere, nahiz eta delitu eta delitugile orok barneratuta duen ibilbide bat izan, honen aplikagarritasuna eta eraginkortasuna aldakorra izan daiteke hainbat ezaugarriren arabera. Terrorismo delituei buruz aritzerakoan, birgizarteratzea zailtasunez betetzen den prozesu bat bihurtzen da. Lan honetako bigarren puntuan argitara eraman dudana bezala, ETA-ren terrorismoaren arloan erabilitako espetxe politika eta salbuespenezko arau asko eztabaidagarriak izan dira eta hauek, kaleratzeak eta horrekin batera datorren birgizarteratze aproposa eragotzi dute.

ETA-ko presoek buruzko birgizarteratze egoki bat planteatzerakoan, hau ezin da mendekuzko espetxe-politika eta arau penaletara mugatuta edo hauengatik baldintzatuta egon; espetxe- eta gizarteratze-politikak gizartearen aldeko eta bizikidetzako politikaren zati bat izan behar dira (Eusko Jaurlaritza, 2016, 71.or.). Espetxe-politika bizikidetzapolitika ere izan behar da eta hau oinarri bezala hartuta, erakundeek, alderdi politikoek, hedabideek, gizarteak eta herritarrek prozesu honi lagundu behar diote, presoak birgizarteratzeko prozesuari. Ez du ezertarako balio bizikidetzan oinarritutako politika eraginkorrak eta ezin hobeak izatea alderdi politikoek eta hedabideek hauen propaganda

desegokia eta negatiboa uneoro gauzatzen badute, bizikidetzarako aukera bat nahi ez dutela erakutsiz eta gertatutakoa haien onura politiko, instituzional eta elektoraletarako erabiliz. Honen bidez, gizartearen desadostasuna eta aurkakotasuna bultzatzen dute, politika aurrerakoi eta berritzaileen aplikagarritasuna eta birgizarteratze aproposa, bizikidetzakoa eta berradiskidetzekoa ezinezkoa bihurtuz. Espetxe-politikak eta gizarteratzea beraz, etorkizun baketsu bat eraikitza bideratuta egon behar dira, giza eskubideen babesean (biktima eta biktimarioarenak), printzipio demokratikoetan eta errespetuan oinarrituta.

Horrez gain, birgizarteratze prozesu egoki bat bideratzeko, ezinbestekoa da biktima eta egitatearekin zerikusirik ez dituzten gainerako alderdi sozialak ere jorratzea. Hau da, ezin ditugu alde batera utzi bestelako zereginak, hala nola, lana bilatzea, familia bueltatzea, herri edo hirira bueltatzea, harreman sozialak, guraso rol eta arduraren urte hauetan eman diren aldaketa eta hobekuntza teknologikoen eguneratzea, etab. ETA-ko terrorismoari buruz ari garenean, biktiman, erreparazioan, berradiskidetzean, errestituzioan, egindako mina onartzean, damutzean, memorian, barkamenean etab. murgildutako birgizarteratze prozesu batean zentratzen gara, eta hau nahitaezkoa izan arren, gainerako delituetarako jorratzen diren beste arlo guztiak ezin dira alde batera utzi, neurri berdinean garrantzitsuak eta ezinbestekoak baitira. Are gehiago, terrorismo delituek espetxe-zigor luzeak dituzte atxikituta eta honek sortutako isolamendua eta errealitatearekiko aldentzea askoz ere nabariagoa izan daiteke. Hori horrela delarik, gizarteratzeko puntu hauek lantzea eta jorratzea birgizarteratze apropos baterako ezinbestekoak dira.

Puntu honekin jarraitzeko, ETA-ko kideak espetxeratuak egon diren urte hauetan emandako birgizarteratze prozesu edo ahalegin ezberdinak aztertuko ditut. Bakoitzaren azalpen orokor bat emango dut eta horrekin batera, puntu zehatz batzuetan nire iritzia eta kritika adieraziko dut. Lehenik eta behin, esperientzia leheneratzaileko bi prozesu jorratuko ditut: hasteko, mende honetako lehen hamarkadan Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernu sozialistak abian jarri zuen Langraiz Bidea aztertuko dut eta ondoren, azken urteetan ezaguna egin den Justizia Errestauratiboa. Azken honetan, Eusko Jaurlaritzaren justizia errestituzioaren euskal estrategia 2022-2025 landuko dut. Jarraian, Justizia Trantsizionala zer den azalduko dut, euskal gatazkan honek izan dezakeen aplikagarritasuna baloratuz. Atal honekin amaitzeko, damutzean eta

barkamenean oinarritutako birgizarteratzea zer den eta gure paradigman nolako aukerak dituen aztertuko dut.

4.1.1. Langraiz bidea edo ezagunagoa den “Vía Nanclares”

Langraiz bidea gobernu sozialistak 2007. urtean martxan jarritako birgizarteratze prozesua izan zen. Honen bitartez, preso talde batek Euskal Autonomia Erkidegotik eta Nafarroatik urrun zeuden espetxeetan egoteari utzi zioten, gizarteratze-prozesuan nabarmen aurrera eginez eta ETAREN borroka armatuari berariaz eta zalantzarik gabe uko eginez.

Langraiz bidearen helburu nagusia, prozesuan parte hartzen zutenen benekotasuna ziurtatzea zen, hau da, borroka armatuari eta indarkeriaren erabilerari uko egiten bazioten eta bandarekin loturak hausten bazituzten egiaztatzea. Horretarako, fase ezberdinetan (1. taula) banatutako birgizarteratze ibilbide bat jarraitu behar zuten. Gimbernat-ek (2016, 105.or.) azaltzen duen bezala, lehenik eta behin, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak, kondenatua Puerto de Santa Maria espetxera lekualdatzen zuen, non ETA-ko presoaren sektore erradikalena aurkitzen zen. Talde teknikoak presoaren balorazioa egiten zuen eta behin lotura eza ziurtatuta, bigarren fasean, A Lama espetxera lekualdatzen zuten. Fase honen baitan, presoari bandaren idatzizko ukatzea, gaitzestea eta mespretxua galdatzen zitzaion. Ondoren, hirugarren fasea abiatzen zen eta presoak Villabona edo Zuerako espetxera lekualdatzen zuten, Euskal Herritik geroz eta gertuago. Fase honetan, ETA talde terroristatik berariaz kanporatuak zirenean, zuzenean Langraiz Oka (Nanclares de la Oca) espetxera lekualdatzen zituzten, laugarren eta azkenengo fasea emanez.

1 Taula

Langraiz Bidearen faseak

1. Fasea: Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak kondenatua <u>Puerto de Santa Maria</u> espetxera lekualdatzen du. Bertan, ETA-ko presoaren sektore erradikalena aurkitzen da. Talde teknikoak presoaren balorazioa egiten du eta lotura eza ziurtatzen du.
2. Fasea: lotura eza ziurtatuta, <u>A Lama</u> espetxera lekualdatzen da. Kondenatuari bandaren idatzizko ukatzea, gaitzestea eta mespretxua galdatzen zaio.
3. Fasea: presoaren <u>Villabona</u> edo <u>Zuerako</u> espetxera lekualdatzen da, Euskal Herritik geroz eta gertuago.
4. Fasea: subjektua ETA-tik berariaz kanporatua denean <u>Langraiz Oka</u> espetxera lekualdatua da.

Oharra. Eva Gimbernat-ek (2016) *El Derecho penitenciario del enemigo aplicable a los presos por delitos de terrorismo* kapituluaren (105.or.) azalduakoa erabiliz egina.

Azkeneko fasera helduta, Langraizeko espetxean presoek bete beharreko kondena errespetu moduluetan betetzen zuten. Errespetu moduluak XXI. mendearen hasieran sortzen dira. Hauetan, presoek autonomia gehiago dute eta eguneroko bizitza antolatzen eta kudeatzen dute; parte-hartze aktiboagatik bereizten dira. Modulu hauen barnean, bizikidetzaren batzordeak daude: presoek osatutako taldeak dira eta bitartekari lanen bidez gatazkak konpontzeaz arduratzen dira. Errespetu moduluetan delitu ezberdinak gauzatu dituzten pertsonak aurki daitezke, delitu larriak egin dituzten pertsonak ez dira zertan modulu hauetatik kanporatzen (terrorismo delituak adibidez). Modulu hauetan aurkitzen direnak jarrera ona erakusten duten barneratuak dira, bizikidetzan egon daitezkeenak. Hala ere, oso diziplinarioak dira eta bertako edozein arauraren urraketak berehalako kaleratzea ekarriko luke.

Langraiz Okako ETako presoak bigarren graduan sailkatuta zeuden (erregimen arrunta), eta horri esker, baldintza jakin batzuk betez gero, baimenak lor zitzaketen. Are gehiago, horietako askori Espetxe Erregelamenduaren 100.2 artikulua²⁵ aplikatu zitzaie, hau da, erregimen erdi-irekia baina hirugarren gradua baino murriztuagoa dena. Honek,

²⁵ Espetxe Erregelamenduaren 100.2.artikulua: “No obstante, con el fin de hacer el sistema más flexible, el Equipo Técnico podrá proponer a la Junta de Tratamiento que, respecto de cada penado, se adopte un modelo de ejecución en el que puedan combinarse aspectos característicos de cada uno de los mencionados grados, siempre y cuando dicha medida se fundamente en un programa específico de tratamiento que de otra forma no pueda ser ejecutado. Esta medida excepcional necesitará de la ulterior aprobación del Juez de Vigilancia correspondiente, sin perjuicio de su inmediata ejecutividad.”

irteerak egiteko aukera ematen du, baita eguneroko irteerak ere, beti ere lan- edo prestakuntza-programak jarraitzeko bada. Espetxe-erregimen horretan sartu ahal izateko, honako betekizun hauek eskatzen zitzaizkien:

- Bandaren ingurunetik urruntzea.
- Espetxe-politika onartzea.
- Presoen kolektiboa uztea.
- Publikoki uko egitea ETAko kide izateari eta indarkeria erabiltzeari.
- Biktimei barkamena espresuki eskatzea.
- Biktimei erantzukizun zibila ordaintzeko konpromisoa hartzea.
- Justiziarekin lankidetzan aritzea.

Honi erreparatuz, betekizunek ETA-rekin guztiz aldentzera eta taldea modu zuzen batean osorik gaitzestera bideratuta daudela ikus daiteke, baita egindako kaltea eta mina modu batera erreparatzera. Hau, birgizarteratze ikuspuntu objektibo batetik aproposa eta egokia dirudi, hala ere, honen eraginkortasuna zalantzan jartzera ausartzen naiz. Obligazio guzti hauen galdakizuna erregimen aldaketa baten edo baimenen intzertiboarekin eztabaidagarria iruditzen zait. Presoaren birgizarteratze prozesua ez litzateke aurretik ezarritako motibazio eta parametro guztiz zehatz batzuen betekizunaren menpe egon beharko, gutxinaka-gutxinaka subjektuak berak espetxe-ibilbidean egiten dituen jokabideen eta erakusten dituen aldaketa positiboaren menpe baizik. Hau da, birgizarteratzean ematen diren aurrerapausoak borondate osoak izan behar dira eta ez aurretik ezarritako eskakizun zehatz batzuen esku hartzekoak. Birgizarteratze prozesua ezin da pausuz-pausu finkatu edo faseetara mugatu, ETA-ko preso guztiak ez baitirelako berdinak eta egindako terrorismo delituak ezta ere. Beraz, indibidualizazio gehiago eta betekizun zehaztapen ez hain mugatuago bat duen birgizarteratze prozesu bat agian aproposagoa lirateke.

Horrez gain, bertan galdatzen den eskakizunetako bat bereziki soberan dagoela iruditzen zait, justiziarekin lankidetzan aritzea hain zuzen. Galdakizun honen helburua ulergarria da; talde terroristaren eta partaideen informazioa jasotzea eta kondenatuak bere leialtasuna ukatzea, taldea salatzea eta ondorioz, prozesu berri baten merezidun dela erakustea. Hala ere, subjektibotasunez gehiegi baldintzatuta dagoen betebeharrak bat dela iruditzen zait. Zer da justiziarekin lankidetzan aritzea? Soilik informazioa ematea edo baita parte-hartze aktiboago bat izatea? Edozer informaziok balio du edo agintarientzat bereziki erabilgarria den informazioa? Zein informazio da bereziki erabilgarria?

Espetxean eta zigor sisteman eman daitezkeen eskubideen urraketen salaketa justiziarekin kolaboratzearen aurka joango lirateke? Guzti hau ez dago zehaztuta, agintarien balorazio subjektibora nahitaez itsatsita dago eta horrek oztopoak suposatu ditzake. Are gehiago, ETA-ko preso oro ez dira berdinak, guztiek ez dute informazio eta botere maila bera eta hori horrela delarik, kontuan izan behar da ETA-ko agintarietako batek izan dezakeen lankidetzaren maila edo kalitatea eta kolaboradore huts batek izan dezakeena parekarriak ez direla. Beraz, galdakizun hau ez zait aproposa iruditzen, erabiltzekotan, birgizarteratze prozesuan dagoen ETA-ko preso bakoitzaren talde barruko estatusa, ibilbidea, kontaktuak, eta bestelako hainbat faktore baloratu beharko lirateke, bestela ez litzateke berdintasunezko esparru batean arituko. Laburbilduz, betebeharraren honen egokitasuna bi arrazoi nagusiengatik eztabaidagarria iruditzen zait: eskakizuna betetzeko aukerak ezberdinak direlako eta lankidetzaren balorazioa subjektiboegia delako.

Langraiz bidearen eraginkortasuna baloratzeko orduan, Buesak (2012, 9.or.) bildutako datuak aipatzea egokia iruditu zait. Birgizarteratze programa garatu den bost urteetan (2007tik 2012ra) 68 izan da parte hartu duten presoek kopurua. Hauetatik, 30ek soilik amaitu dute ibilbidea Langraizko espetxean, espetxe-onuretarako sarrerako atea bezala kontsideratu dezakeguna. Horrez gain, espetxe-agintaritzak gutxienez bost preso programatik kanporatu izan ditu, eta gainerakoak beren borondatez utzi dute. Azkenean, hamahiru presok baino ez zuten espetxe-erregimen arindua lortu, Espetxe Erregelamenduaren 100.2 artikularen babesean, eta hauetatik, zazpi hirugarren graduan sailkatu ziren eta hiruk baino ez zuten baldintzapeko askatasuna lortu.

Datu hauei erreparatu, Langraiz bidearen eraginkortasuna oso altua ez dela ikus dezakegu. Parte hartu zuten 68 presoetatik soilik 30ek amaitu zituzten lau faseak, Langraizko espetxera helduz. Honek, birgizarteratze programan parte hartu zuten presoek %44.12 fasetariko baten geratu zela suposatzen du, ia parte-hartzaileen erdiak. Honez gain, Langraizera iritsi ziren 38 presoetako 5 soilik izan ziren agintariengatik kanporatuak, hau da %13.16, gainerakoek (%86.84) borondatez utzi zuten. Azken datu honek programaren erabilgarritasuna eta baliozkotasuna kolokan jartzen du. Faseak bete zituzten %44.12 horren gehiengoa ez ziren haien birgizarteratzeko ez-gaitasunagatik edo parte hartzeko ezintasunagatik kaleratuak izan baizik eta bestelako arrazoiengatik borondatez uztea erabaki zuten. Honez gain, aipatzekoa da 100.2. artikuluko erregimena,

hirugarren gradua eta baldintzapeko askatasuna lortu zuten presoek kopurua oso baxua dela, ia ez dagoela ez esatearren.

4.1.2. Justizia Errestauratiboa

Justizia errestituatiboaren definizio garatu bat eman baino lehen, Europako Parlamentuaren 2012/29/UE zuzentaruauan zehaztutakoari adituko diogu. Zuzentaruauo 2. artikuluan definizioak jasotzen dira, hala nola, zer den biktima, familiarrak, adingabea eta justizia erreparatzailea. Azken hau, honela definitzen da:

Biktimari eta arau-hausleari zigor-arloko arau-haustearen ondoriozko arazoak hirugarren inpartzial baten laguntzarekin konpontzen aktiboki parte hartzeko aukera ematen dien prozesu da, horretarako baimena askatasunez ematen badute. (2.d) artikulua)

Beraz, definizio honetatik hainbat ezaugarri bereizi daitezke. Alde batetik, arau-hauste bat dugu, hau da, delitu bat, eta honek, edozein izaeradun arazo edo kalteak sortu ditu. Bestetik, biktima eta arau-hauslea ditugu, gatazkaren bi aldeak, lehenengoa kaltetua eta bestea kalte horren eragilea direlarik. Amaitzeko, hirugarren inpartzial baten ezinbesteko figura daukagu. Honek, gatazka konpontzen lagunduko du, bi alderdien parte-hartze aktiboa bermatuz. Guzti hau, noski, bi alderdien askatasun guztizko adostasuna dagoenean soilik emango da.

Zuzentaruauan zehar, definizioaz gain justizia errestituatiboaren beste atal batzuk garatzen eta arautzen dira; biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dira, eta justizia leheneratzailearen barruan egindako kaltearen erreparazioa posiblea izateko biktimaren eta arau-hauslearen arteko interakziorako aukerak zeintzuk diren eta baita nola eman behar diren espresuki jasotzen dira.


Justizia errestituatiboan gehiago sakonduz, ikuspegi kriminologiko batetik, ez da zigortzera edo birgizarteratzera zuzenean enfokatutako tresna bat, baizik eta gehiago erreparazioa ardatz bezala duen baliabide bat. Delituak legea urratzeaz gain, biktimei eta komunitateari kalte egiten diela ulertzen da eta hau oinarritzat hartuz, gizarteari eta alderdiei gatazken konponketan modu zuzen batean aritzeko aukera ematen zaie (Eusko Jaurlaritza, 2022, 2.or.).

Justizia errestitatiboko jardunaldiak hainbat delitu ezberdinekin gauzaten dira, bai delitu larri, ez hain larri eta arinekin. Hauen adibide dira familia abandonuak, zuhurtziagabekeriazko giza-hilketak, lesioak (bai doluzkoak bai zuhurtziagabekeriazkoak), mehatxuak, lapurretak, ebasketak, injuriak, kalteak, bide-segurtasunaren aurkakoak, jazarpena, eta beste hainbat. Noski, terrorismo delituetan ere ematen dira horrelako jardunaldiak eta hau da jarraian aztertuko dudana.

ETA-ko preso eta biktimekin egindako justizia errestitatibozko topaketak aztertu baino lehen, delitu tipologia guztiak barneratzen dituen justizia errestitatibozko jardunaldien datu batzuk ikustea ondo legoke. Eusko Jaurlaritzako berdintasun, justizia eta gizarte politiketako sailak, Justizia Errestitatiboaren inguruan ateratako azkenengo memoriako (2021) zenbait datu aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, covid-19-aren eragina eta honek topaketak egiteko ekarri zituen zailtasunak aipatzekoa da, hori horrela izanik, 2021. urteko datuek goranzko tendentzia bat erakusten dutela ikus dezakegu, espero zitekeen moduan. 2021ean, Justizia Errestitatiboko Zerbitzuak 1.458 auzi hartu zituen guztira (2020an baino 277 gehiago), 1.323 deribatu (aurreko urtean baino 257 gehiago) eta 135, 2020tik datozenak. Epategi deribatzaileari kudeatu eta konpondutako 1.302 espediente itzuli zaizkio (2020an baino 256 gehiago). Prozesu errestitatiboan bidez lan egin da 712 kasutan; horietatik 511 espediente (%72,59) bitartekaritza-prozesu baten bidez ebatzi dira, 7 Konferentzia Errestitatiboaren bidez, eta 1 Zirkulu Errestitatiboaren bidez. Guztira, errestitazio-prozesu batetik igaro diren espedienteen akordioen % 73,71. Hau jarraian, modu eskematikoago batean irudikatuko dut (1 Eskema):

1 Eskema

Eusko Jaurlaritzako berdintasun, justizia eta gizarte politiketako sailak, Justizia Errestauratiboaren inguruan ateratako azkenengo memoriako (2021) zenbait datu



Oharra. Eusko Jaurlaritzako berdintasun, justizia eta gizarte politiketako sailak 2021. urteko Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuko memoriako datuak erabiliz egina.

Ikus dezakegunez, justizia errestitatiboaren barruan, mediazioaz gain beste tresna batzuk ere daude, Konferentzia errestitatiboak eta Zirkulu errestitatiboak zehazki. Konferentzia errestitatiboak biktima eta delitugileaz gain gertakariengatik kaltetuak izan diren gainerako pertsonak prozesuan barneratzea bilatzen du. Ez dago bitartekari bat baizik eta pertsona bideratzaile bat, taldeko komunikazioa errazten duena. Konferentzia hauetan biktima, haren familia edo/eta gertuko pertsonak eta delitugilea, haren familia edo/eta gertukoak egongo dira. Helburua hurbileko pertsonak integratzea da (UPV/EHU, 2017, 3m48s). Zirkulu errestitatiboetan aldiz, aurrekoan baino pertsona gehiago barneratzen dira; ez daude soilik biktima, delitugileak eta hauen familiar edo gertukoak baizik eta komunitatearen ordezkariak ere, baita profesionalak. (UPV/EHU, 2017, 4m55s). Beraz, mediazioarekin daukaten ezberdintasuna biktima eta delitugileaz gain beste hainbat pertsonen parte hartzen dutela da. Horrekin batera, konferentzia eta zirkuluen arteko bereizketa parte hartzen duten pertsona kopuruan aurkitzen da, hau da, zirkuluak handiagoak dira, komunitatearen ordezkariak baita barneratzen direlako. Justizia errestitatiboaren modalitate hauek tresna oso erabilgarriak izan daitezke baita; biktimaren eta delitugilearen familia edo gertuko pertsonak barneratzerakoan, hau da,

laguntza eta babesa ematen duten gizabanakoak gehitzerakoan, bai biktimaren erreparazio prozesuan eta baita delitugilearen birgizarteratzeko prozesuan eragina izan dezake. Horrez gain, gizarte oso bat edo talde bat kaltetua izan den heinean, komunitatearen ordezkari bat egotea oso lagungarria izan daiteke. Bi tresna hauek hain erabiliak ez diren arren, indartsuak dira baita ere, aurreko taulan adierazitako 8 kasuak (zirkulu 1 eta 7 konferentzia) akordio batean amaitu dute eta.

Memoria honetan, beste hainbat datu agertzen dira: alderdi bakoitzaren profila (adina, sexua...), probintzia bakoitzean emandako kasuak, delitu tipologia ezberdinak eta hauen intzidentzia, akordioen edo desakordioen zergatia eta izaera, etab. Datu hauen gainbegiraketa orokor bat eginez, aipatzekoa da gehien ikusten diren delituak delitu arinak direla eta tipologiari dagokionez, lesio delituak eta mehatxuak dira nabarmen.

Bestetik, bitartekaritzari dagokionez, bi mota bereizi daitezke: bitartekaritza zuzena eta zeharkako bitartekaritza. Bitartekaritza zuzenean, zigor-arloko auzi batean parte hartzen duten salatzailen eta salatuen arteko aurrez aurreko elkarrizketa ematen da, bideratzaile gisa diharduen hirugarren pertsona batek emana (Eusko Jaurlaritza, 2021, 33.or.). Zeharkako bitartekaritzan aldiz, zigor-arloko auzi batean parte hartzen duten salatzailen eta salatuen arteko elkarrizketa presentziala edo ez-presentziala ematen da, bideratzaile gisa diharduen hirugarren pertsona batek emana, elkarrekintza idatziz edo ikus-entzunezko bidez garatuz (Eusko Jaurlaritza, 2021, 33.or.). Beraz, bi hauen arteko ezberdintasuna aurrera eramateko forman dagoela ikus dezakegu. Lehenengoan bitartekaritza bai edo bai presentzialki ematen da. Bigarreanean aldiz, presentzialki edo ez-presentzialki emateko aukera dago baina beti ere idatziz edo ikus-entzunezko bideak erabiliz. Memoriak ematen dituen datuei erreparatuz, gehien erabiltzen den bitartekaritza mota zeharkakoa da. Honen arrazoia nire ustetan, praktikoagoa, erosoagoa eta azkarragoa delako da. Azken finean, presentzialki egon beharrak zailtasun edo oztopo nagusi bat dauka: bizilekutik urrun egon daitekeen leku batera bertaratu beharra. Idatziz edo modu telematikoaren bidez egiteak, muga hau gainditzen du eta bizilekutik egin daiteke, denborarik galdu gabe. Egia da, nire ustetan honek bere alde txarra ere duela, ikus-entzunezko baliabideak erabiliz egiten diren topaketak nahiz eta praktikoagoak izan, ez dira bete-betekoak. Hau da, presentzialki eginda lortzen diren hainbat ezaugarri online edo idatziz egite horren bitartez galtzen dira, hala nola, aurpegi eta gorputz adierazpenak, berehalako erreakzioak, ahotsaren tonu maila eta azken finean gatazka bateko beste alderdiarekin aurrez-aurre egotearen guztizko sentazio hori. Gainera, zer esan ez

teknologiek askotan huts egiten dutela: konexio baxua izatea edo guztizko galera, bateria gabe geratzea, ahotsa une puntualetan moztea eta informazio guztia ez jasotzea, irudia moztea, etab.

Eusko Jaurlaritzaren memoria aztertzen amaitzeko, aipatzeko da bertan ETA-ren terrorismo kasuetan egindako justizia errestituzio jardunaldirik agertzen ez dela. Bi arrazoi posible antzematen ditut: 2021. urtean topaketarik eman ez dela edo Carmenek egindako elkarrizketan komentatzen duen bezala, oso ezkutuan egiten ari direla (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 7. galdera). Azken finean, ETA-ko preso eta biktimen arteko topaketak oso mediatikoak izan daitezke, publikoak egin diren kasuetan ikusi dugun bezala eta ondorioz, honek, prozesua eragotzi eta kaltetu dezake. Eraginkortasuna bermatzeko eta jardunaldiak babesteko helburuarekin, posible litzateke eman arren publikoari ez ezagutaraztea eta datuetan ez agertzea.

Justizia errestituzioa beraz, biktimei sortutako kaltea erreparatzean zentratuta dagoen justiziaren tresna gehigarri bat da, ez du helburu bezala subjektu aktiboa zigortzea. Helburu nagusia erreparazioa da, baina, horrez gain, delitugileak gauzatutakoaren ardura eta mina onartzea ere da asmoa. Honen bitartez, arau-hausleak gertaerak onartzen ditu eta kalteak eta sorrarazitako mina berea egiten du, honek, birgizarteratzeko prozesuan lagundu dezake, kontzientzia hartzea ezinbestekoa baita.

Baliabide honi buruz ari garenean, kontuan izan behar dugu izaera penaldun egitate guztiak ez direla prozesu errestituzio batentzat aproposak. Bi alderdien borondatezko parte hartzea ezinbestekoa da, bete beharreko eskakizun fundamentala. Horrez gain, delitugileak portaera terroristaren erantzukizuna onartu behar du. Bi alderdiek prozesuaren inguruko informazioa jaso beharko dute: nola egiten den, non, zer ondorio izan ditzakeen, akordioa, bitartekariaren papera zein den, zenbat saio izango diren, saio hauen iraupena, etab. Behin prozesuaren inguruko oinarrizko informazioa izanda, borondatezko parte hartzea helarazi dezakete, beti ere hertsapenik gabekoa. Ondoren, alderdi bakoitzarekin modu indibidualizatu batean lan egingo da eta profesionalak ziurtasun osoz bi alderdiak prest daudela erabakitzen duenean, topaketa emango da.

Bitartekaritza errestituzio batek beraz, komunikazio prozesu bat suposatzen du, non tresnak entzutea eta hitz egitea diren, une oro errespetua mantenduz. Elkarbizitza eta bestearekiko enpatia garatzean oinarritzen dira. Biktima eta biktimarioa aurrez-aurre

esertzen dira eta norabide bikoitzeko elkarrizketa batean gertatutakoari eta horrek sortutako kalte eta minari buruz mintzatzen dute. Ideia, azalpen, bizipen eta sentimenduen truketze honetan, beti hirugarren pertsona bat egongo da, bitartekaria izango dena eta elkarrizketa kontrolatu eta egokitasunez bideratzea bermatuko duena. Hau, ulergarritasunez eta enpatiaz beteriko prozesu bat dela esan daiteke, non egindako mina onartzen den eta alderdi bakoitzean bakea lortzea bilatzen den.

Esan bezala, justizia errestitutiboa ez da zigortzeko beste modu bat edo zigor gehigarri bat, baizik eta erreparazio prozesuan eta baita birgizarteratzean erabiltzen den baliabide eraginkor bat. Delitugileari, indarrean dagoen legearen arabera zigorra aplikatu beharko zaio, baina hau nahiz eta beharrezkoa den, ez da nahikoa; justizia penalarrekin eta zigor zuzenbidearekin ez da bakea edo lasaitasuna lortzen, ez dira barruko sentimendu, emozio eta kezka argitzen, soilik egitateengatiko proportzionala den askatasunaz gabetzen duen zigor bat ezartzen da. Delituak egin dituztenak epaitzea, zigortzea eta hauek zigorra espetxean edo erdi-askatasunean betetzea beharrezkoa eta legez ezarritakoa da gure gaur egungo sistema penalean, baina honek, ez du gatazka guztiz konpontzen ezta edonor asetzen. Zigor-justiziak ezin du justizia errestitutiboak ematen duena eskaini: biktimen premiak asetzea eta arau-hauslearen egozgarritasuna eta honen berreskuratzea lortzea (Pascual eta Ríos, 2014, 429.or.).

Justiziaren tresna hau ETA-ko terrorismoari aplikatzerakoan, alde aurretik jarraitu beharreko hainbat pausu aipatzekoak dira. Lehenik eta behin, deklarazio judicial formal bat egon behar da, hau da, epai bat. Hortaz, partaide bakoitzaren kategorizazioa (biktima eta biktimarioa) ezarrita dago. Subjektu aktiboak jada bete beharreko kondena finko bat dauka edo, hein handi batean, hau jada beteta dauka. Ondoren, noski, indarkeriaren erabileraren ukapena eman behar da; borroka armatuaren legitimazioa eta babesa behin-betiko ezabatuta egon behar da. Honekin, biktimari gertatutakoa berriz errepikatu ez dela bermatzen zaio. Ibilbide leheneratzaile bakoitza indibidualizatua da, hau da, kasu bakoitzaren arabera izango da; ezaugarri, baldintza eta testuinguruari moldatzen joango delarik. Horrez gain, zintzoa izan behar, ezkutuko helbururik gabekoa. Goian esan bezala, alde aurretik profesionalek alderdi bakoitzarekin bakarka arituko dira lanean, topaketarako prestatuko dituztelarik. Pascual eta Ríosek (2014, 433.or.) adierazten duten bezala, prest egote hau soilik denborak aurrera egitearekin, zaurien nolabaiteko orbatzearekin, batzuetan tratamendu espezifikoarekin eta sufrimenduaren kudeaketarekin ahalbidetu daiteke.

Baina, justizia leheneratzaileak ez du berehalakotasuna esan nahi, biktimei erreparazioa ematera bideratutako komunikazio-prozesuan oinarritutako justizia-modua baizik (Varona, 2012, 203.or.). Hau da, ez da berehalako prozesu labur bat, eman eta dena konpontzen duena, bere denbora dauka eta iraupen hori onartu eta horretan mantendu beharra dago. Biktimaren erreparaziora bideratuta dago eta batzuetan beste batzuetan baino ondorio eraginkorragoak izan ditzake.

Bestetik, justizia errestitutiboaren inguruan Varonak (2012) argi eta garbi adierazten duen honako hau aipatzekoa da ere:

Justizia errestitutiboak ez du esan nahi zigorgabetasuna, barkamena, adiskidetzea edo ahanztura, ez eta ETArekin amaierari laguntzeko edo presoan gizarteratzea konpontzeko metodo bat ere, baizik eta esku-hartze boluntario bat, orokortu ezin dena, pertsonen artekoa eta, hala badagokio, komunitatearena, eragindako kaltea konpontzeko. Oso konplexua da, biktimentzako eta biktimagileentzako bermeak baitakartza. Konponketa ez da erantzun biguna. Bestalde, beste gizaki batek nahita hainbesteko mina eragin dezakeela ulertzea ez da barkatzea edo justifikatzea, baina biktimizazioa minimizatzen lagun dezake, euskal politikan indarkeriaren erabilera ez-legitimoa prebenitzeko elementuak bilatzen. (203.or.)

Justizia errestitutiboaren norainokoa eta mugak aditzeko, paragrafo honetan azaldutako hainbat elementu ulertzea ezinbestekoa iruditzen zait. Lehenik eta behin, argi izan behar dugu justizia errestitutiboak ez duela zigorgabetasunik ekartzen; delitugileak, geratzen zaion kondena betetzen jarraitu beharko du, ez zaio erantzukizunetik salbuetsiko, ezta espetxe edo erregimen onurarik emango. Bestetik, ez du nahitaez barkamenik edo adiskidetzetik ekartzen. Kasuak eman dira non hau gertatu den baina ez da topaketa denetan eman beharreko zeozer; biktimaren erabaki soila da barkatzea eta ez du zertan eman edo ezta sentitu behar. Alegia, delitugileak elkartzearen bitartez ez du barkamen edo adiskidetzetik bilatu behar. Elkarrekin aritzeak ez du suposatzen adiskidetu behar direla, ezta gertatutakoa ahaztu behar dutenik; biktima eta biktimarioaren artean ez da erlazio bat garatu behar, ez dira lagunak egin behar, gertatutakoa ez da ezabatzen eta ezer gertatu ez balitz bezala jokutzen. Azkenik, nahiz eta orain arte justizia errestitutiboari birgizarteratze-metodo gisa erreferitu naizen, hau ez da helburua; prozesuan lagundu dezake eta oso erabilgarria izan daiteke baina

baliabide honen helburua ez da preso birgizarteratzea baizik eta kaltea termino orokorretan konpontzea.

Bestetik, ulertzearen terminoa azpimarratzea gustatuko litzaidake. Kriminologia graduan zehar, hainbatetan azaldu izan digute gure lana ulertzea eta egitateen zergatia bilatzea dela. Honekin batera, aurreko ikasturtean Delitugilearen Tratamendua ikasgaiari Jose Luis Alvarez (2022) irakaslearen esaldi baten aipamena egitea gustatuko litzaidake “gure lana ez da justifikatzea, baizik eta ulertzea eta hauek, bi gauza guztiz ezberdinak dira”. Esaldi honek, goiko paragrafoaren ideia berdina gordetzen du, ulertzearekin ez da egitatea eta gertatutakoa justifikatzen ezta barkatzen, baizik eta pertsonaren egoera, ezaugarriak, inguruabarrak, helburuak, motibazioak, arrisku faktoreak, bizipenak, etab. kontuan hartzen dira eta hauen eraginaren ondorioak baloratzen dira. Ulertzeak biktimizazioan lagundu dezake, gertatutakoaren eta sortutako minaren atzean arrazoi bat dagoela jakitea, ez justifikagarria edo onargarria dena, baina bai zergati bat.

Azken finean, gizabanakoak diren pertsona bezala tratatzea besterik ez da: gizaki aldakorak, indarkeriazko jokaeretara mugatu ezin direnak, eta, jakina, iraganagatik behin-betiko hipotekatutako pertsonatzat ez hartzea (Pascual eta Ríos, 2014, 431.or.). Bergizarteratze posible baten sinistu behar da, erreparazioarekin bateragarria dena eta izan beharko lukeena. Helburu orokorra beraz, bi alderdiek beraien bizitza osoan zehar iraganeko gertakariak sortutako minaren zama ez izatea, zauriak sendatzea eta etorkizunera irekitzea da, etorri ahal daitekeena ahalbidetzea eta gozatzea.

Biktimak batek justizia errestitiboko elkartzeko batean parte hartzea onartzen duenean, bere errehabilitazio edo asetzeko egiten du; atentatua edo egitatea burutzearen zergatia jakin behar du, motibazioak zeintzuk izan ziren, atzetik dagoen arrazoia zein den. Hau entzun eta zintzotasunez sentitu behar du. Horrez gain, delitugileari jasandako sufrimenduaren eta minaren berri ematen dio eta honek, erantzukizuna eta sortutako kaltea onartzen ditu; eragindako mina aitortzen du eta kontzientzia hartzen du.

ETA-ko terrorismo delituen inguruko topaketei buruz ari garela, arestian esan bezala, biktimek gure herrialdean biktimizazio bikoitza bizi izan dutela azpimarratzekoa da. Zirkunstantzia honek, beste batzuekin batera, zaildu egiten dute topaketa errestitiboetan parte hartzeko borondatea. Azkenean, delituaz gain horrek ekarri dituen ondorio sozialak eta judizialak sufritu ondoren, normala eta ulergarria da kolaboratu nahi ez izatea; ETA-ren terrorismoaren inguruan eta euskal gizarte eta

justiziaz gehiago jakin nahi ez izatea. Delitugileari dagokionez, honen parte hartzeko borondatea ere oztopatuta ikus dezakegu, gehienbat horrelako kasuei ematen zaien hedatze mediatiko eta esanahi politikoarengatik. Justizia errestitatiboa justizia bide nahiko gizatiar bat izanik, gizartearengan harridura sortzen du eta hedabideek haien interesetarako topaketa hauek publikatzen, mediatizatzen, politizatzen eta eskrupulurik gabe zabaltzen dituzte. ETA-ko kide izandako delitugilea hainbatetan egon da foku mediatikoan, horren eragina bizi izan du eta beharbada bere burua ez du arriskuan jarri nahi, ez du berriz gauza bera jasan nahi.

Hala ere, justizia errestitatiboaren bitartekaritza tresna bai erabili da eta honen adibide dira Langraiz Bidean emandako topaketak. Hauek, 2011ko maiatzetik aurrera bideratu ziren, Langraiz Arabako espetxean, eta guztira 14 topaketa eman ziren, urte bereko abendurarte, PPK hauteskundeak irabazi eta Langraiz bideari amaiera ematea erabaki zuen arte (Goyoaga, 2021). Ondoren, justizia errestitatiboan oinarritutako biktima eta biktimarioaren arteko elkartzak ematen jarraitu dira; hainbat izan dira, ezkutuan eramandakoak baina gutxika-gutxika errealitatea agerian jartzen joan direnak. Honen adibide famatuena Maixel Lasarena da, Juan Maria Jauregiren alarguna, ETA-k eraildako politikari sozialista. Horrelako kasuei esker, areagotu egin da herritarrek justizia errestitatiboarekiko duten pertzepzio positiboa. Baliabide hauen eraginkortasuna geroz eta gehiago onartzen da eta eragindako kaltearen ordaina eta erantzukizuna emateko prozesu egoki gisa ulertzen dira.

Jarraian, justizia errestitatiboaren puntuarekin amaitzeko, honen inguruan argitaratu berri den euskal estrategia (2022-2025) aztertuko dut.

4.1.2.1. Justizia Errestitatiboaren euskal estrategia 2022-2025

2021ko urriak 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoak Basauri, Zaballa eta Martuteneko espetheen antolaketa, araubidea eta funtzionamendurako eskumena bereganatzen du. Une horretatik, hiru espetxe hauek kudeatzeko ibilbide bat martxan jartzen da, egin beharreko eta aldatu beharreko hainbat gauza daudelarik. Erroketariko bat, lan honetan interesatzen zaidana, ETA-ko presoak dira. Urte honetan, sakabanatze politika oraindik errealitate bat zen; 2021eko otsailean 191 sakabanatutako preso zeuden (3. Eranskina) eta beraz, hauek Basauri, Zaballa edo Martuteneko espetxeetara ekarri behar ziren. 2023ko martxoak 24an, dispersio-politikari amaiera ematen zaio. Egoera

honen aurrean, ETA-ko presoak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskudunak diren hiru espetxeetan egonda, 2022. urtean, Justizia Errestauratiboaren euskal estrategia 2022-2025 aurkezten da.

Estrategia honen bitartez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak, biktimen beharretan eta zigorraren birgizarteratze funtzioan eragitea bilatzen duela adierazi du. Aurkezpenean, Eugenio Artetxek (2022), Eusko Jaurlaritzako Justizia zuzendariak, azken helburua honako hau zela adierazi zuen: "Euskadirako justizia errestitutiboko estrategia bat onartzea, printzipio, arau eta orientazio komun en arabera bultzatuko duena, biktim ek eta biktimagileek justizia errestitutiboa hai entzat egokia den ala ez erabakitze ko aukera izan dezaten". Gu zti hau, "zigor-arlo ko justiziaren prozesuaren fasea alde batera utzita, betearazpena barne", eta horrek, Eusko Jaurlaritzaren ustez, "justizia penala humanizatzen lagun dezake".

Diskurtso honetan, jada lanean zehar jorratutako hainbat elementu ikus ditzakegu. Alde batetik, biktimen beharrei erreparatzen zaie; estrategia bat onartzen da, printzipio eta arau orokor batzuetan oinarritutari koa, eta biktim ek, hai en erreparaziorako egokia den edo ez erabaki dezakete, aukera hor dago, baina ez da beharrezkoa. Bestetik, justizia errestitutiboa zuzenbide penala eta ezarritako zigorraz kanpo dagoela zehazten da; ez du eraginik izango zigorraren betearazpenean, ez da beste zigor mota bat, ez du inolako zerikusirik justiziako prozesu penalarekin. Amaitze ko, humanizatzen lagundu dezakeela aipatzen da, arestian aipatu bezala, elkarrekintza hauetan, enpatia eta beste alderdiarenganako ulergarritasunezko sentimenduak lortu daitezke.

Estrategian gehiago sakonduz, 12 atalez osatuta dagoela ikus dezakegu. Lehenengo atalean (2-3.or.), justizia errestitutiboa zer den azaltzen da, arestian aipatutako Europako Parlamentuaren 2012/29/UE zuzentarauari erreferentzia egiten zaio eta presupostu hirukoitzeko tresna bat dela adierazten da: biktimaren erreparazioa, biktimarioaren erantzukizuna eta gatazkaren konponbidean komunitateak edo gizarteak parte hartzea.

Bigarren puntuan (4-6.or.), oinarritako galderak zeintzuk diren aurkezten da, baita hauei garatutako erantzun bat eman. Galderak honako hauek dira:

- Nork parte hartu dezake justizia errestitutiboan?
- Noiz erabili daiteke justizia errestitutiboa?
- Zertarako balio du justizia errestitutiboak?

Hirugarrenean (7-11.or.), justizia errestitatiboaren marko kontzeptuala azaltzen da, modu nahiko ordenatu eta laburtu batean. Hiru ataletan banatzen da: Nazio Batuak, Europako Kontseilua eta Europar Batasuna. Bakoitzean, hainbat aitorpen, ebazpen, arau, biltzar, gomendio, zuzentzara, etab. agertzen dira. Guri interesatzen zaiguna, arestian justizia errestitatiboaren definizioa ematerakoan aipatu dudan 2012/29/UE zuzentzara da, hau, Europar Batasunaren puntuan barneratzen da.

Laugarren atalean (12-20.or.), Espainiako justizia errestitatiboaren marko normatiboa eta esperientziak adierazten dira. Puntu hau hainbat azpiataletan bananduta dago. Lehenengoan, gazte justiziaren eremuan, 5/2000 Lege Organikoko, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena, 19. artikulua²⁶ aipatzen da. Artikulu honetan, judizioz kanpoko konponbideak hartzen dira kontuan, hezkuntza izaeradunak eta prozesu penalaren alternatiba gisa aurkezten direnak. Hain larriak ez diren kasuetan, Ministeritza Fiskalak espedientearekin ez jarraitzea erabaki dezake, beti ere egitateen larritasuna eta adingabearen inguruabarrak baloratuz.

Bigarren azpiatalean, justizia negoziatua eta erreparazioa instrukzio- eta epaitze-fasean azaltzen da. Justizia errestitatiboak, zigor arloko justiziaren prozesuaren etapa guztietan egon behar du, hau da, ikerketa edo instrukzio fasean, epaitze fasean eta epaia eman ondorengo fasean. Azpiatal honetan, instrukzio eta epaiketa faseko elementuak adierazi dira:

- Adiskidetze edo erreparazio akordioen bidez, epaitzea ez den konponketarako mekanismoak ahalbidetzen dira: erantzukizun penala barkamenarekin azkentzea (delitu pribatuetan), salaketa kentzeko akordio konpontzailea...
- Akusatzailearen eta defentsaren arteko negoziazioaren ondorioz, adostasun akordioak eta epaiak egiteko aukera ematen da, beti ere, ezarritako espetze zigorra 6 urte baino gehiagokoa ez denean.

²⁶ 5/2000 Lege Organikoko 19.artikulua: “*Sobreseimiento del expediente por conciliación o reparación entre el menor y la víctima.*”

También podrá el Ministerio Fiscal desistir de la continuación del expediente, atendiendo a la gravedad y circunstancias de los hechos y del menor, de modo particular a la falta de violencia o intimidación graves en la comisión de los hechos, y a la circunstancia de que además el menor se haya conciliado con la víctima o haya asumido el compromiso de reparar el daño causado a la víctima o al perjudicado por el delito, o se haya comprometido a cumplir la actividad educativa propuesta por el equipo técnico en su informe. El desistimiento en la continuación del expediente sólo será posible cuando el hecho imputado al menor constituya delito menos grave o falta.”

- Egileak kaltea konpontzea aringarri bat da, ahozko epaiketa egin aurretik erantzukizuna osorik edo zati batean ordaintzen bada.

Hirugarren azpiatalean, delituaren biktimari laguntzea eta honen parte hartzea azaltzen da. Biktimen Zuzentaraua aipatzen da, honekin, biktimen parte-hartze aktiboa epaiketan eta zigorraren betearazpenean areagotu dela adieraziz. Puntu honetan, Biktimen Estatutuari buruz era jorratzen da, bertan agertzen den justizia errestitiboko jardueri buruzko aipamen bati erreferentzia eginez: biktimaren erreparazio material eta moralera bideratua egon beharko dira, biktimaren baimen aske eta informatuarekin eta egileak alde aurretik egitateak onartzearekin. Bestetik, Estatutuan, biktimek justizia errestitibozko zerbitzuei buruzko informazioa jasotzeko duten eskubidea ere arautzen da eta 15. artikuluan, zerbitzuak eskuratzeko baldintzak arautzen dira.

Hurrengo azpiatalean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak zigor-arloko bitartekaritza intrajudiziala bultzatzea aztertzen da. 2016. urtean, BJKN-ak bitartekaritza intrajudiziala praktikatzeko gida bat egin zuen, zigor-arloko bitartekaritzaren inguruko kapitulu bat barneratzen duena. Puntuan zehar, kapitulu honetan zehaztutakoa jorratzen da.

Bosgarren azpiatalean, 2021. urteko Prozedura Kriminalaren Legearen aurreproiektuari egiten zaio erreferentzia. Gaur egun, gatazkak konpontzeko beste bide alternatiboen erabilereantzako erreforma prozesalak bideratzen ari dira. Aurreproiektu honek, lehen aldiz kapitulu oso batean, justizia errestitiboa arautzen du. Hau aurrera ateratzen den edo ez ikusi beharko da.

Azkenik, seigarren azpiatalean, espetxean emandako justizia errestitiboa azaltzen da. Justizia errestitiboa espetxeko eremura zabaltzearen inguruan iritzi ezberdinak daudela ikus dezakegu. Alde batetik, autore batzuek justizia errestitiboaren mekanismoa bere osotasunean arrakastaz espetxera eramatea ezinezkoa dela uste dute. Bestetik, mundu osoan zehar justizia mota hau espetxeetan sartzen duten proiektuak gauzatzen ari direla aipatzekoa da. Honen adibide “Victim-Offender Reconciliation Programs” eta “Sycamore Tree Project” dira. Puntu honetan, 2011-2012. urtean emandako ETA-ko preso eta biktimen arteko justizia leheneratzaileko topaketak ere aipatzen dira.

Estrategiako bosgarren puntuan (21-32.or.), justizia errestitiboko esperientziak Euskadin azaltzen dira. Puntu hau, beste 5 azpiatalez osatuta dago, banan-banan laburki aztertuko ditudanak.

Lehenengo azpiatalari dagokionez, justizia errestitiboa gazte justiziaren eremuan jorratzen da. Bitartekaritza, adiskidetze edo erreparazio prozesuak Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-justiziaren nortasunaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat direla azaltzen da. Datu batzuei erreparatuz, 2014 eta 2018 artean, 1.812 prozesu errestitibo aurrera eramane dira, non horietatik, 1.433 positiboki ebatzi dira (%79), 379 emaitza negatiboarekin.

Bigarren azpiatalari dagokionez, lan honen justizia errestitiboaren puntuaren hasieran (44.or.) aipatutako Justizia Errestitiboaren Zerbituari egiten dio erreferentzia. Izaera leheneratzailekun lehen zerbitzu publikoak 2007. urtean ezarri zirene Euskadin, Barakaldo eta Gasteizko Barruti Judizialeto zigor bitartekaritzako zerbitzuen esperientzia pilotuarekin. Urte berean, Zigor Bitartekaritzako Protokoloa egin zen eta 2008 eta 2009 urteen artean, esperientzia Bilbo eta Donostiako Barruti Judizialeto hedatu zen. 2018an, justizia errestitiboaren arloko Europako joerengatik, bitartekaritza zerbitzua berrantolatu zen, Justizia Errestitiboaren Zerbitzua sortzeko.

Hirugarren azpiatalean, biktimei laguntzeko zerbitzuak aipatzen dira. Biktimari Laguntzeko Zerbitzua Eusko Jaurlearitzako doako zerbitzua da. Legelariak, psikologoak, gizarte-langileak eta administrazioko laguntzaileak osatutako talde profesional batek kudeatzen du. Zerbitzu honetan, delitu baten biktima izan den pertsona orori, haren egoera edozein dela ere, informazioa eta laguntza ematen zaio, bai tratamendu psikologikoa eta aholkularitza judiziala. Horrez gain, laguntzeko zerbitzuaren eginkizunen artean, biktimari justizia errestitiboko zerbitzuei buruzko informazio osotua ematea sartzen da. Azpiatal honekin jarraituz, beste bi puntu bereizten dira: terrorismoaren biktimei laguntzea eta motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzea.

Lehenengoari dagokionez, lan honetan gailentasuna duen puntua izango litzateke. Orain arte azaldu bezala, Euskadin terrorismoaren bizitasuna hainbat urtez jasan izan da. Hau horrela izanik, terrorismoaren biktimei babesa eta laguntza emateko legeria espezifikoa bat sortu da, honako hauek osatua: ekainaren 19ko 4/2008 Legea,

Terrorismoaren Biktimen Aitorpena eta Erreparazioa, eta azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena. Honez gain, terrorismoaren biktimei arreta pertsonalizatua emateko, 2001. urtean Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu zen. Gaur egun, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzak betetzen ditu eginkizun horiek. Terrorismoaren biktimei buruzko legeriak erreparazio integrala du helburu; kaltea konpontzeko ez da soilik ordain ekonomiko bat bilatzen, haratago doa, leheneratzeko, errehabilitatzeko, laguntza integrala eta ordain morala emateko neurriak barneratzen dira. Are gehiago, erreparazioak, egindako kaltearen mina onartzea, bizikidetzak baketsua, berreraikuntza eta gizarte-eraldaketa ere bilatzen du. Terrorismo delituetan, biktimizazioa oso zabala izatea gerta daiteke, hau da, kolektibo edo gizarte bateri hedatzea, makrobiktimizazio bati buruz ari gara. Biktimizazioa maila ezberdinetan ematen denean, esku-hartze erreparatiboa gradu bakoitzera egokitu beharko da. Lehenengo mailan, biktima eta biktimarioa izango ditugu; bigarrean, zirkulu edo konferentzia erreparatiboen bitartez egindako talde lan kolektiboak; eta, hirugarren maila, berriztatze sozialean zentratzen da.

Motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzeari dagokionez, Euskadin badago erregulazio bat biktima hauen erreparazioa eta errekonozimendua bermatzeko. Hau, uztailaren 28ko 12/2016 Legean (apirilaren 4ko 5/2019 Legeak aldatua) eta otsailaren 25eko 20/2020 Dekretuan arautzen da. Hauetan, motibazio politikoko testuinguru batean haien eskubideak urrututa izan dituzten biktimei erreparazioa jasotzeko duten eskubidea jasotzen da.

Bosgarren puntu honetako laugarren azpiatalean, zigorrak eta ordezkotako neurriak kudeatzeko zerbitzuak azaltzen dira. Puntu honetan, gizartearentzako zerbitzurako lanek izan dezaketen izaera erreparatiboa, bergizarteratzerako eta erreparaziorako erabilgarria dena nabarmentzen da. Gizartearentzako lanak Zigor Kodearen 49. artikuluan²⁷ arautzen dira, hala nola, eragindako kalteak konpontzeko lanak edo biktimei laguntza edo babesa ematea izan daitezke. Nolabaiteko harremana egon behar da

²⁷ Zigor Kodeko 49. artikulua: “Los trabajos en beneficio de la comunidad, que no podrán imponerse sin el consentimiento de la persona condenada, le obligan a prestar su cooperación no retribuida en determinadas actividades de utilidad pública, que podrán consistir, en relación con delitos de similar naturaleza al cometido por la persona condenada, en labores de reparación de los daños causados o de apoyo o asistencia a las víctimas, así como en la participación de la persona condenada en talleres o programas formativos de reeducación, laborales, culturales, de educación vial, sexual, resolución pacífica de conflictos, parentalidad positiva y otros similares.”

delituaren eta egin beharreko lanaren artean, horrela, erantzukizuna hartzea erraztuko da, egindako kaltearen eta ondorioen kontzientzia hartuz eta erreparaziorako bidea erraztuz.

Azkenengo azpiatalean, EAE-ko espetxeetan emandako esperientzia errestituatiboak aipatzen dira. Aldez aurretik ikusi dugun bezala, errestituazio izaeradun hainbat esperientzia eman dira EAeko espetxeetan. Aipagarrienak jada azaldutako ETA-ko kideen eta hauen biktimen arteko 2011ko eta 2012ko topaketa leheneratzaileak dira. Era berean, aipatzekoa da 2013. urtetik Berriztu Hezkuntza Elkarteak Arabako espetxean kudeatutako justizia leheneratzaileko programa. Hasiera batean, 2013-2019 bitartean, 76 arau-hauslek parte hartu zuten, horietatik 6k ez jarraitzea erabaki zuten, eta beraz, guztira, 70ek parte hartu zuten. Ondoren, biktimak lokalizatu eta prozesua zertan datza azaldu zitzaizen eta guztietatik 15ek parte hartzeari uko egin zioten. Kaltea konpontzeko moduak askotarikoak izan ziren:

- Zuzeneko topaketa biktima eta biktimarioaren artean: 7 kasu.
- Aurrez-aurrekoa ez den zuzeneko komunikazioa: 14 kasu.
- Errestituazio sinbolikoa: 4 kasu.
- Errestituazio komunitarioa: 11 kasu.
- Zirkulu errestituatiboa: 7 kasu.

Ondorengo puntuan, estrategiako seigarrenean (33-35.or.), egoeraren diagnostikoa egiten da. Estrategian zehar ikusi den bezala, justizia errestituatiboa hainbat esparrutan aurki dezakegu Euskadin (gazte-justizia, zigor-arloa...). Aipatzekoa da, helduen justizia penalean, Euskadi estatu mailan erreferentea da arlo penaleko bideratzeetan: bideratzeen ia % 44, eta bitartekaritza prozesuetan lortutako akordioen %55 izanik. Honen arrazoia, justiziarekin lankidetzan aritzeko zerbitzu publikoak finkatuta daudela da, hala nola, justizia errestituatiboko zerbitzua, biktimari laguntzeko zerbitzua eta zigorrak eta neurri alternatiboak kudeatzeko zerbitzua. Hiru zerbitzu hauen osagarritasuna nabarmentzekoa da.

Hala ere, Euskadiko helduen zigor-arloko justizian justizia errestituatiboaren garapena oztopatzen duten elementuak daudela azpimarratzekoa da. Alde batetik, justizia errestituatiboaren zerbitzura bideratzen diren delituak, batez ere, delitu arinak dira (gorputz-osotasunaren, ondarearen edo familia-sistemaren aurkakoak). Hau, paradoxikoa da zeren, askotan, delitu larrietan sentitzen dute biktimek eta arau-hausleek erreparaziorako beharrik handiena. Laburbilduz, beharrezkotasun handiena delitu

larrietan aurkitzen da baina gehien erabiltzen den kasuak tipologia arineko delituak dira. Bestetik, biktima kolektiboak edo zehaztugabeak dauden kasuetan, beste teknika intentsiboago batzuk erabili daitezke, hala nola, aipatutako zirkulu eta konferentzia errestitutiboak. Mekanismo hauen erabilera oso mugatua eta eskasa da, nahiz eta oso baliagarria izan daitekeen, eta ondorioz, biktima kolektiboekin edo zehaztugabeekin lanean aritzerakoan, teknika hauen erabiltzea bultzatu behar da. Beste oztopoetariko bat, organo judizialen deribazioa oso ezberdina dela da, epaitegi batzuek normaltasunez eta jarraitutasunez bideratzen dute, eta beste batzuek ez. Hau, justizia errestitutiboaren inguruko ezjakintasunarengatik ematen da; eremu honetan parte hartzen duten langileen artean (epaile, magistratu, fiskal, abokatu, administrazioko langile, etab.) ez dago informazio nahikorik. Amaitzeko, indarrean dagoen erregulazioari dagokionez, biktimek justizia errestitutiboko zerbitzuetara jotzeko duten eskubidea aitortzera mugatzen da, ez da ezer adierazten justizia errestitutiboko zerbitzuen egiturari eta funtzioei buruz. Are gehiago, espetxe-legeriak espetxeetan, hirugarren graduan edo baldintzapeko askatasunean dauden pertsonekin errestitutazio prozesuak egiteko moduari buruz ez du ere ezer jasotzen.

Zazpigarren atalari (36.or.) dagokionez, estrategiaren xedea eta esparrua aipatzen dira. Honen bitartez, justizia errestitutiboaren garapena bultzatu nahi dela adierazten da, printzipio, arau eta joera amankomun batzuk kontuan hartuta, Euskadin garatzen diren zerbitzu eta programek koherentzia izateko, bai gazte-justizian, bai helduen zigor-justizian, baita espetxe-eremuan. Estrategiak, prozesu penalaren fasea edozein izanda, biktima eta delitugile guztiek informazioa eta justizia errestitutiboaren baliabideentzako aukera izan dezaten konpromisoa hartzen du, haientzat egokia den ala ez erabaki dezaten.

Zortzigarren puntuan (37.or.), strategiaren zeregina eta ikuspegia azaltzen dira. Zereginari dagokionez, gatazka juridikoak konpontzeko moduan aldatetako sortzea bilatzen da, delituaren ondorioak erreparatzea eta bizikidetzaren berreraikitzearen helburuarekin. Horretarako, formula integralagoak proposatzen dira, eraginkorragoak izatea espero direnak, non biktimari, delitugileari eta komunitateari hitza ematea eta parte-hartzea ahalbidetzen zaien. Horrela, zigor-arloa nolabait humanizatuz. Ikuspegiari dagokionez aldiz, justizia errestitutiboa delituaren erantzun normal gisa finkatzea nahi da. Horrela, biktima eta gizarteari kaltea berrezartzen zaio eta arau-hausleak egindakoaren erantzukizuna eta norainokoa bere gain hartzen ditu. Hau, prozesu

penalaren edozein fasetan emango litzateke, biktima, delitugilea edo komunitatea edozein delarik.

Estrategia honen azterketarekin jarraituz, bederatzigarren atalean (38-39.or.), oinarrizko printzipioak aipatzen dira. Programa eta praktika errestitutiboek arautzen dituzten oinarrizko printzipioak honako hauek direla zehazten da: borondatezkotasun printzipioa, informazio printzipioa, orientazioa eta laguntza, inplikaturako alderdien parte-hartzearen printzipioa, kaltea konpontzeko printzipioa, agintarien eta bideratzaileen neutraltasun printzipioa, konfidentzialtasun printzipioa eta adostasunean oinarritutako akordio kolektiboaren printzipioa. Puntuan, hauek banan banan garatzen dira.

Hurrengo atalean, hamargarrenean (40-45.or.), justizia errestitutiboko zerbitzu eta programen diseinatzea zehazten da. Lehenik eta behin, ikuspegi orokor bat azaltzen da, justizia errestitutiboaren mekanismoaren gainbegiraketa bat eginez eta hauen itxura eta helburu orokorrak azalduz. Ondoren, bi diseinu ezberdintzen dira, bakoitzak justizia errestitutiboaren tresnen forma eta izaera ezberdin bat beharko duelarik.

Lehenengoa, justizia errestitutiboko programen diseinatzea da. Estrategia hau aplikatuz, errestitutazio prozesua martxan jartzeko justizia errestitutiboko programa orokor bat eta zenbait espezializatu izan ahalko dira. Hauen diseinua eta ezarpena parte-hartzaileen, delituaren, komunitateen, ingurumen faktoreen eta abarren arabera izango da; ezaugarri guzti hauen azterketa bat egin beharko da eta beharrak eta erronkak identifikatuz, diseinua hortik abiatu. Ondoren, dena prest dagoenean justizia errestitutiboko programa bera emango da, alderdiak elkartuko dira eta akordio bat lortzea bilatuko da. Amaitzeko, programak jarraipen eta ebaluazio bat izan beharko du, behin amaituta, landutako kasuetan jarraipen bat egitea ezinbestekoa da, baita denbora bat igarota, egoeraren kontrol bat egitea ere.

Bigarren diseinua aldiz, justizia errestitutiboko programen diseinatzea makro biktimizazio kasuetan da, hau, ETA-ko terrorismoa inguratzen duten kasuei aplikagarri litzateke. Makro biktimizazio kasuetan, esku-hartze errestitutiboak eremu penaletik haratago dagoen ikuspegi espezifikoa, espezializatuagoa eta osagarriagoa eskatzen du. Estrategia honen bosgarren puntuaren hirugarren azpiatalean aztertu dudana bezala, makro biktimizazio kasuetan maila ezberdinak ematen dira eta eraginkorra izateko, bakoitzak, justizia errestitutiboko tresna moldatu eta zehatz bat eskatzen du. Egoera

hauetan, programa biktimen beharretara eta denboretara bideratuta egon behar dela azpimarratzen da, delitugileak alde batera utzi gabe. Prozesuari berari ematen zaio garrantzia, ez emaitza jakin bati. Horrez gain, bitartekariak izan behar dituzten rol eta ezaugarri jakin batzuk nabarmentzen dira: alderdiei laguntzeko egokitasuna, gatazkaren eta alderdi bakoitzaren gertakariak eta inguruabarrak zehatz-mehatz ezagutzea, inpartzialtasuna, prestutasuna, konpromisoa, eta beste hainbat. Prozesuari dagokionez, segurtasuna mantentzeko, erabateko diskrezioa eman beharko da. Gorago azaldu dudan bezala, kasu hauek oso mediatizatuak eta politizatuak izan daitezke. Biktimari, delitugileari eta egindako lanaren eraginkortasuna ez kaltetzeko ezinbestekoa da topaketa hauek publikoak ez egitea. Amaitzeko, programa orokorrean bezala, prozesuaren ebaluazio bat egin beharko da, non inplikaturako alderdien iritziak eta asetzeari jasoko diren, etorkizuneko planak eta estrategiei begira.

Puntu honekin amaitzeko, koordinazioa aipatu beharra dago. Justizia errestituzioaren estrategia egoki bat izateko, ezinbestekoa da esku har dezaketen operadore guztien arteko koordinazio eta programazio bat izatea. Talde errestituzio bakoitzeko langileek ezin izango dute inoiz modu indibidual batean jardun, estrategian aipatzen den bezala, prestakuntza progresiboa, integrala eta diziplinartekoa behar da.

Hamaikagarren atalean (46-56.or.), ardatz estrategikoak, helburuak eta jarduerak zehazten dira. Hiru ardatz estrategiko bereizten dira:

1. Ardatza: justizia errestituzioaren sarrera.
2. Ardatza: kalitatea, ezagutza eta justizia leheneratzailearekiko konfiantza.
3. Ardatza: kultura-aldaketa.

Ardatz estrategiko bakoitzarekiko, helburu batzuk zehazten dira, guztira 18 helburu daudelarik. Ondoren, ardatz eta helburu bakoitzarentzako burutu beharreko jarduerak ezartzen dira.

Azkenengo puntuan, hamabigarrenean (57-58.or.), strategiaren ezarpena eta ebaluazioa ezartzen dira. Justizia Sailburuordetzari dagokio, eta horren barruan, Justizia Zuzendaritzari, Euskadiko justizia errestituzioaren estrategian jasotako ekintzak ezartzen laguntzea. Estrategia honek dituen ekintzak bultzatu, koordinatu, koherentzia eman eta jarraipena egiteko, Euskadiko Justizia Leheneratzailearen Foroa sortzen da, aholkularitza talde bezala. Honek, justizia errestituzioaren strategiaren garapenean inplikaturako dauden erakundeak gonbidatuko ditu. Horrez gain, puntu honetan, 2022rako

Euskadiko aurrekontu orokorretan, justizia errestitatiboaren estrategia garatzearekin lotura zuzena duten partidak aurreikusten dira (4. Eranskina). Amaitzeko, estrategia hau dokumentu argia, irekia, malgua eta aldakorra bezala aurkezten da, emaitzen eta eman daitezkeen lege aldaketen arabera dena. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitatearen bidez kanpo-ebaluazio bat egitea aurreikusten da eta strategiaren garapenaren inguruko urteko memoria bat egingo da. Honetan, gazte-justiziaren, zigor arloko justiziaren eta espetxe eremuko justiziaren justizia leheneratzailearen inguruko datuak jasoko dira. 2024. urteko bigarren erdian, beste ebaluazio bat egingo da, strategiaren helburuen eta ekintzen garapena aztertuko duena. Azkenik, 2025ean, strategiaren azken ebaluazioa egingo da, honek, Euskadiko justizia errestitatiboaren egoerari buruzko diagnostikoa emango du, eta beste bat egitearen aukera eta beharrezkotasuna baloratuko da.

Euskadiko Justizia Errestitatiboaren Estrategia 2022-2025 zertan datza aztertuta, nahiko osotuta dagoen dokumentu bat dela aipatu beharra dago. Justizia errestitatiboaren inguruko informazio ugari ematen da, edonork ulertzeko modukoa, estilo argi eta zehatz batean. Zer den azaltzen da, dudak argitzen dira, legedia aipatzen da, strategiaren ezartze arlo ezberdinak aipatzen eta azaltzen dira (gazte-justizia, zigor-justizia eta espetxe eremua), esperientziak agertzen dira, datu batzuk ere noizbehinka aipatzen dira, terrorismoaren biktimei zuzendutako puntu zehatz bat garatzen da, egoeraren balorazio bat egiten da, non oztopoak eta zailtasunak aipatzen diren, diseinuak, helburuak, ardatzak eta jarduerak sakontasunez aztertzen dira eta amaitzeko, strategiaren ezartzea eta ebaluazioa ikertzen da.

Dokumentu honetan jasotako informazio ugari etorkizunerako oso erabilgarria eta ezinbestekoa dela iruditzen zait. Justizia errestitatiboaren eremuan Euskadi mailan aurrera pausoak eman nahi badira eta erabilpena areagotu nahi bada, horrelako plangintza tinko bat izatea beharrezkoa da.

Horrez gain, etorkizuneko aldaketa posibleei begira, estrategian aipatutako hainbat ideia azpimarratzea gustatuko litzaidake. Lehenik eta behin, justizia mota honen baliabideen erabilera ematen den arriskueteriko bat instrumentalizazioa eta ibilbide burokratiko sinple batera mugatzea dela iruditzen zait. Tresna hauen erabilera zabaltzerakoan, ezin da orokortu ezta behin eta berriz gauza bera egin, ezin da monotonia baten sartu, horrek, justizia errestitatiboak dituen erreparaziorako eta

birgizarteratzerako onurak kaltetu lituzkeelako. Hau ekiditeko, ezinbestekoa da prozesuak etengabe berrikusi eta ebaluatzea, baita kasu bakoitzarekiko ekintza eta planteamendu indibidualak bideratzea.

Bestetik, espetxe-eremuan ohikotasun gehiagorekin praktikatu beharreko mekanismoak direla kontsideratzen dut, beti ere, bi alderdien adostasuna dagoenean noski. Askatasunaz gabeturik egoteak ez luke justizia errestituatiboaren erabilera mugatu beharko, bereziki, nire aztergaia izanik, ETA-ko biktima eta presoekin burutu ahal diren elkarren arteko topaketak, espetxean egotearen egoerak ez luke eragotzi beharko. Beste ezaugarri batzuek bai oztopatu dezakete (adostasunik ez, prestakuntza egokirik ez...) baina askatasunaz gabetuta egoteak eta espetxearen instituzio berak ez. Gainera, aipatu izan dudana bezala, nahiz eta delitu ez hain larrietan gehienbat aplikatzen den, delitu larrietako biktima eta delitugile askok justizia errestituatiboaren beharra eta erabilera nahi izan dute eta horren ondorioz, delitu larriak gauzatu dituzten arau-hausleak espetxean dauden heinean, instituzio honek justizia errestituatiborako tresnak modu egokian bideratzeko baliabideak bermatu beharko ditu.

Hirugarrenik, justizia errestituatiboaren oztopo nagusienetarikoak nire aburuz, profesionalen prestakuntza eskasia eta erregulazio gabezia dira. Baina, hauek konpon daitezkeen elementuak dira, bereziki lehenengoa. Justizia errestituatiboaren eraginkortasuna eta etorkizunean nahi den gorakada egoki bat bermatzeko, ezinbestekoa da testuinguru hau osatzen duten profesional, talde, langile eta pertsona oro prestatzea eta informatzea. Horrez gain, ikasketa mailatan justizia errestituatiboaren inguruko irakasgai, informazio, bilera, mintegi, espezializazio, eta bestelako prestakuntza bideak antolatu behar dira. Erregulazioari dagokionez, argi dago arlo honen inguruko araudi zehatz bat lehenbailehen beharrezkoa dela. Gaur egun, 2019. urtean egindako funtzionamendu-protokolo bat dago, baina hau ez da nahikoa. Izan ere, deribazioaren, bitartekarien, prozesuaren ondorioen, parte-hartzeko bideen, eta beste hainbat ezaugarriei buruzko arau argiak sartu behar dira ordenamenduan. Aipatzeko da, prozedura kriminalaren legearen aurreproiektuak alderdi hauek neurri batean arautzen dituela eta justizia errestituatiboa prozesu penalaren fase guztietan indartzeko aukera ematen duela. Hala ere, hau onartzen eta aurrera eramaten den ikusi beharko da, baita bertan arautzen denarekin nahikoa den edo ez.

Laburbilduz, justizia errestituatiboaren 2022-2025 estrategia garrantzi handikoa iruditu zait; etorkizuneko helburu oparo eta onuragarri baten aurre-pausu indartsu bat dela uste dut, ezinbestekoa eta posible den heinean jarraitzekotan, aldaketa asko ekarri ahal dituena. Hala ere, hau errealitate bihurtzeko, beste hainbat ezaugarri aditu eta erreparatu behar dira, aurre egiteko erronka ugari daude.

4.2. JUSTIZIA TRANTSIZIONALA

Justizia trantsizionalaren zer den jakiteko, Nazio Batuak (2004) *Zuzenbide Estatua eta trantsizio justizia gatazkak pairatzen dituzten edo izan dituzten gizarteetan* izendatutako informean emandako definizioari adituko diogu:

Justizia trantsizionalak barne hartzen ditu gizarte batek eskala handiko abusuen iraganetik eratorritako arazoak konpontzeko egiten dituen ahaleginei lotutako prozesu eta mekanismo guztiak, arduradunek beren ekintzen kontuak eman dezaten, justiziari zerbitzu eman diezaioten eta adiskidetzeari lor dezaten. Mekanismo horiek judizialak edo estra-judizialak izan daitezke, eta nazioarteko partaidetza-maila desberdinak izan ditzakete, baita honako hauek ere: pertsonak epaitzea, ordaina ematea, egia bilatzea, erakundeen erreforma, aurrekariak ikerketa, kargua kentzea edo guzti hauen konbinazioak. (6.or.)

Definizio honen arabera, gizarte jakin batzuetan kokatzen gara, non iraganean, maila handiko eraso eta abusuak gertatu diren. Hauek sortutako kalteen konponketa emateko, estatuak berak mekanismo eta zerbitzuak erabiltzen ditu, bai judizialak bai estra-judizialak. Azken finean, estatu mailako krimen bortitzen kasuetan zigorgabetasunezko egoera bat ez ematea eta biktimekiko errespetua eta babesa bermatzea bilatzen da.

Nazio Batuak azaltzen duen bezala, justizia trantsizionala giza eskubideen nazioarteko arauen lau printzipiotan oinarritzen da:

1. Estatuak giza eskubideen urraketa larrien ustezko egileak ikertu eta prozesatzeko eta errudunak zigortzeko duen betebeharra.
2. Iraganeko gertakariei buruzko egia ezagutzeko eskubidea.
3. Biktimek erreparazioa lortzeko duten eskubidea.
4. Etorkizunean horrelako ankerkeriak berriro gertatzea eragozteko betebeharra.

Beraz, justizia trantsizionalaren helburuak gertakariak ikertzea eta zigorgabetasuna eragozteak, biktimen erreparazioa eta egia jakiteko eskubideak bermatzea eta etorkizunean horrelako egitateak berriro gertatzea ekiditea izango lirarteke. Hau horrela izanda, espazio-denboran bi unetan kokatzen den justizia dela esan daiteke; aurretik egindako kalteak eta gatazkaren ondorioak nolabait konpontzen edo erreparatzen saiatzen da eta baita etorkizunean horrelako gertaerak berriz errepikatzea eragozteko lanak eta saiakerak bideratzen ditu.

Justizia mota honek hainbat elementu ditu bere alde; instrumentu eta mekanismo ugari ditu, prozesu penalak, egiaren batzordeak, memoria historikoa berreraikitzekeo estrategiak eta erreparaziorako aukerak konbinatzen dituelarik. Gainera, horren bidez ezartzen diren zigorrek eta konponketek gizartean eragin handia izan dezakete denborarekin, nahiz eta posizio politiko eta sozial desberdinek txikiak eta eztabaidagarriak izan daitezkeela argudiatu.

Aipatzeko da, hasiera batean, Orozco-k (2003; 2005, Gómez-en aipatuta, 2013) azaltzen duen bezala, trantsizio politikoaren ezaugarri nagusia haustura bikoitza zen, hau da: alde batetik, zapalkuntzazko iraganaren eta aldaketazko etorkizunaren arteko haustura; eta, bestetik, biktimizazio bertikaleko²⁸ moduak irudikatzen zituen erregimen politikoarekiko haustura. Hala ere, aurrerago trantsizio-politiko mota ezberdinen dibertsitatea onartu da, orokortasunari uko eginez eta nazio eta tokiko testuinguruen garrantzia aitortuz. Justizia trantsizionalaren balioa beraz ez dago soilik aldaketa politikoaren pean baizik eta une horietan ematen ari den testuinguru sozial, politiko, kulturalen etab. eraginpean ere. Are gehiago, aipatzeko da denbora, diruak eta noski pertsonalak bere efektua mugatzen duela.

Justizia trantsizionalaren esanahia eta helburuak objektiboki beharrezkoak eta guztiz egokiak diruditen arren, sektore sozial ezberdinen artean desadostasuna dago, batzuk justizia trantsizionala eta honekiko egin daitekeen erabilera zalantzan jartzen dutelarik. Zati baten ustetan, justizia mota hau biktimen duintasuna berreskuratzeko, egia judiziala eta historikoa bilatzeko, memoria kolektiboa eta historikoa berreraikitzekeo eta biktimen erreparaziorako politikak aplikatzeko egokia eta integrala da. Aldiz, beste

²⁸ Biktimizazio bertikala: erasotzaile boteretsuak eta biktimak babesgabeak izateagatik bereizten den biktimizazio mota da, norabide bakarrekoa, non erasotzaileek indarkeriaren monopolioa dute eta biktima babesgabe eta errugabeek legitimitatearen monopolioa baino ez (Orozco, 2005, Oviedon aipatuta, 2018).

batzuek, kezka ikusten dute gobernuek egin dezaketen erabilera; ikuspegi pragmatikoegiak erabiliz instrumentatzea, justiziaren gainera adiskidetzea, egiaren gainera barkamena, etab. (Cortés, 2009, Jaramillon aipatua, 2011). Gainera, justizia forma hau egiturazko faktore gehiegi dauden testuinguruetan aplikagarria ez dela ere kritikatzeko da, hala nola, borroka armatu matxinatuak ematen diren herrialdeetan (Arango, 2007, Jaramillon aipatuta, 2011).

Kritika hauetan gehiago sakonduz, berradiskidetzean zentratzeak eta hau justiziaren gainera jartzeak, zuzenbidezko estatu baten oinarriak alde batera utziz, bakea bilatzerako bidean salbuespenezko erabaki juridikoak hartzea ekarri dezake. Hau, etorkizuneko bake utopiko batek sortutako itsutasunaren eraginez ematen da, ziurta ezina den bake bat helburu finko bezala jartzearen ondoriozkoa dena. Honekin ez dut esan nahi bake hori posible ez denik, baina bai ibilbidea luzea eta konplexutasunez beterikoa izan daitekeela, eszenatoki eta gatazka politiko ezberdinetan aldakorra eta horren ondorioz, berradiskidetzea justiziaren gainera jartzeak justizia trantsizionalaren mekanismoaren probetxuzko erabilera orokor bat besterik ez du erakusten, erabilera desegoki bat agian, kasu guztietan onuragarria izango ez dena eta bidean hartutako erabakien bitartez egoera gehiago korapilatu dezakeena.

Bestetik, egiaren gainera barkamena jartzerakoan gauza bera gertatzen dela iruditzen zait. Ezin da bata bestearen gainera jarri, ez dira kontrajarriak diren helburuak eta batera eman daitezke; bata bestearekiko lehenetsia izateak soilik ahulagoa denaren ahanztura ebentuala ekartzen du eta berriz ere, justizia trantsizionalaren instrumentuen uneko probetxurako erabilera desegoki eta presazkoa erakusten du. Beraz, lau ideia hauek (berradiskidetzea, justizia, barkamena eta egia) elkarlanean aritu beharreko helburuak dira, ez dira bata bestearen gainera lehenetsi behar; kasuan kasu aztertu eta baloratu beharko dira, egoera ezberdinetan helburu batek besteak baino lan gehiago eskatu dezakeelako eta beraz, eskura dauden baliabideak horretan zentratzera bideratu beharko dira. Trantsizio-politiko eta gatazka bakoitza aztertu eta hauen beharrak baloratu beharko dira eta hortik aurrera, gobernuek justizia trantsizionalaren tresnak modu batera edo bestera erabiltzea erabakiko dute, helburu bakoitzari eskatzen dituen baliabideak eta denbora emanaz. Laburbilduz, oreka bat bilatu behar da eta ez helburu bat une oro bestearen gainera jartzea.

Honekin jarraituz, aipatzekoa da askotan biktimen memoriaren betebeharra eta interes nazionalen aldeko ahanzturak talka egiten dutela (Jaramillo, 2011, 161. or.), berriz ere, hauen arteko oreka bat mantentzen ez delako. Biktimen memoriaren betebeharrak batek zigorgabetasunaren borrokan lagundu dezake eta trantsiziorako oztopo bihurtu daiteke. Hau da, memoria berreskuratu eta mantentzearen eragin sakon edo gehiegizkoetan trantsizioa posiblea izateko une zehatzetan ematen den inpunitatea eragotzi daiteke. Bestetik, interes nazionalen aldeko ahanztura handiek justizia eta egia nazio batentzat ezinezkoa bihurtzen dute. Zigorgabetasunezko kasu zehatzak egon izanak ez du esan nahi ahaztu behar denik, gertatutakoa oroitu behar da eta egindakoaren egia aitortu; ezin da interes nazionalen gatazka oso bat edo behintzat zati handi bat ukatu eta erantzukizun gabe utzi. Beraz, aurretik esan bezala, oreka bat bilatzea eta bata onartzerakoan besteak ez ukatzea bilatu behar da. Biktima eta biktimarioa nahitaez elkarloturik dauden gertaera bateko edo anitzeko bi aldeak dira; hauen arteko lotura onartzeaz gain bereizketa ez da ukatu behar. Justizia trantsizionalaren tresnak, baliabideak eta ekimenak oreka hau bilatzeko saiakeran bai loturan eta bai bereizketan jardun behar dute, testuingurua eta gatazka beraren ezaugarriak ere kontuan hartuz.

Oreka hau bilatzerako orduan, garrantzitsua iruditzen zait justizia trantsizionalaren arloan emandako beste eztabaida baten muina aztertzea. Honetan, justizia trantsizionala goiko ikuspegitik eta beheko ikuspegitik bereizten dira. Hauen arteko ezberdintasuna prozesuan parte hartzen duten eragileetan kokatzen da. Goiko perspektibatik, politikaren eta zuzenbidearen arteko harremanak ikuspegi instituzional batetik bideratzen dira eta beraz, honetan, politika publikoen diseinua, arlo juridikoa eta agintari politikoen rola azpimarratzen dira (Gómez, 2013, 152.or.). Beheko perspektibatik aldiz, justizia trantsizionaleko mekanismoen diseinuan eta aplikazioan estatukoak ez diren bestelako eragileek parte hartzen dute, gatazka konpontzeko praktika ez-formalak bideratzeagatik bereizten dira. Azken ikuspegi honek, aurrekoa kritikatzeko du hau murriztatzailea eta dimentsio bakarrekoa dela argudiatuz (Gómez, 2013, 153.or.).

Beheko ikuspegitik beraz, estatukoak ez diren eragileak barneratzen dira, hau da, gizarte-mugimenduak. Hauen rola aztertu nahi dira, ohikotasunez praktika instituzionalek haiek isilarazteko joera baitute; baztertuak izan diren sektoreak dira eta hauen esperientzia eta iritziak ezinbestekoak dira, beraiek baitira gatazka bizi izan dutenak. Hau honela izanda, tokiko eragileekin egiten den justizia trantsizionala eraginkorragoa izan daiteke, bilatzen den eta ezinbestekoa den oreka lortzeko bidea izan

daiteke; estatukoak ez diren eragile instituzionalek jorratzen dituzten ekimenek askoz ere sendotasun handiagoa ematen diote gatazka konpontzeko edo behintzat eraldatzeko prozesuari. Goiko ikuspegitik aurrera eramandako politika instituzionalek ez dituzten komunitatearen beharrianak eta sentimenduak kontuan hartzen, justizia trantsizionalaren erabilera orokortu eta formal bat egiten dute, itxuraz ondo geratzen baina barnetik edukirik gabekoa dena.

Beraz, justizia trantsizionala ezin daiteke soilik estatuko eragileetara mugatuta egon, gatazkaren konpontze- eta bake-prozesu baten bidean, justizia mota honen tresnen eta mekanismoen erabilpena eragile sozialen eskuetan ere egon behar da. Azken hauen garrantzia eta ezinbestekotasuna aitortu beharra dago, hauek baitira gatazkaren kalteak jasan dituztenak eta beharrak eta interesak hobekien irudikatuko dituztenak. Puntu honetan zehar hainbatetan errepikatu dudan bezala, oreka bat bilatu behar da eta hori ezinezkoa izango da soilik instituzioen parte-hartzea bultzatzen bada; eragile sozialen esku-hartzearen bermatze ezak justizia trantsizionalaren erabilera desegoki eta huts bat suposatzen du, soilik interes nazionaletan zentratuta dagoena eta helburu politikoduna.

Laburbilduz, justizia trantsizionaleko mekanismoen erabilera ezin da dimentsio instituzional batera mugatu. Aitzitik, prozesu horiek estatukoak ez diren eragileek parte-hartzea eskatzen dute, baita osatu daitezkeen tresnak eraikitzea ere. Subjektu sozialek ez dute instituzioek daukaten botere gaitasun bera eta horregatik, beharrezkoa da justizia trantsizionalean eta eskubideak babestearen arloan zentzu demokratikoak eraikitzen parte har dezaten bermatzea.

Puntu honekin amaitzeko, arestian aipatu bezala, justizia trantsizionalaren aplikagarritasun eza egiturazko faktore gehiegi dauden testuinguruetan sakontasun gehiagorekin aztertuko dut. Testuinguru hauetariko bat borroka armatu matxinatuak dira, ETA-ko gatazka esaterako. Hauetan, ez dugu biktimizazio bertikaleko, hau da, erasotzaile boteretsu eta biktimak babesgabeko gatazkarik ikusten baizik eta alderantziz, ematen den biktimizazioa horizontala da. Biktimizazio mota honetan, gatazka armatu baten bi alderdiak edo gehiagok bere burua biktimizatzen dute; rolen kolapsoa ematen da, hau da, biktimen eta biktimarioen artean dagoen distantzia murriztu egiten da. Hau, ETA-ko terrorismoaren kasuan argi eta garbi ematen dela ikus dezakegu. Euskal gizartearen zati handi batek eta borroka armatuan parte-hartu dutenek haien burua biktimizat ikusten dute, Estatu espainiarraren eta horrek berarekin atxikituta dituen

instituzio, politika, arau, erregimen eta bestelakoen biktima, euskal kulturaren, bizitzaren, nortasunaren eta gizartearen suntsitzaileak, zapaltzaileak eta kolonizadoreak direnak. Horren baitan, ETA-ko kideak nolabait biktima kontsideratzen dira eta rol honen babesean eta Euskal Herriko independentziaren helburuaren argudiopean, borroka armatuari bide ematen diote Espainiako Estatu zapaltzailearen eta honen parte diren kideen aurka. Ondorioz, askoren aburuz, gatazka honetan biktima eta biktimarioaren rolak difuminatu egiten direla ikus dezakegu, ez dira biktima indibidualak baizik eta kolektiboki kaltetua izan den eta izaten jarraitzen duen gizarte oso bat. Hau horrela delarik, ez litzateke egokia justizia trantsizionaleko prozesu bat gatazka honetan planteatzea; bakoitzak jokatzen duen papera lainotuta dagoen heinean eta bi alderdiek haien burua biktimatzat hartzen dutenean, berradiskidetzarako eta bakearen lorpenerako tresna trantsizionalen erabilpena ez litzateke eraginkorra izango.

Honez gain, Gema-ri egindako elkarrizketan (1. Erankina, 1. Ekarrizketa, 5. galdera) ikus daitekeen bezala, ETA-ko terrorismoaren gatazkan justizia trantsizionala planteatzea ez da marko egokia. Justizia trantsizionala, izena berak adierazten duen bezala, trantsizio aldiatarako da, esaterako diktadura batetik demokrazia baterako trantsizioa. Nahiz eta trantsizio hau Espainian ETA-ren urteetan bai eman den (Francoren diktaduratik estatu demokratiko batera egindako trantsizioa) ez lirateke aplikagarria izango. Izan ere, ETA Francoren diktadurarekin jaio zen baina pertsona gehiago erail, mehatxatu, bahitu eta zauritu ditu ostean etor den demokrazian.

4.3. DAMUAREKIN ETA BARKAMENAREKIN LOTUTAKO BIRGIZARTERATZEA

Birgizarteratzearen inguruko azkenengo puntu honetan, bi kontzeptu garrantzitsu definitu eta aztertuko ditut: damua eta barkamena. Hauek, ETA-ko terrorismoaren arloan, presoen birgizarteratzean eta biktimen errekupeazioan oso agerikoak eta eztabaidatuak izan dira.

Lehenik eta behin, **damutzeari** buruz arituko naiz. Espainiako Errege Akademiaren arabera (2023), damutzea horrela definitzen da: “zerbait egin izanagatik edo egiteari utzi izanagatik atsekabea sentitzea”. Beraz, norbanakoak duen sentimendu bat da, zeozer egiteagatik edo ez egiteagatik sortutakoa. Zeozer egite edo ez-egite hau egoeraren araberrako da eta horren izaera positibo edo negatiboa bakoitzaren

subjektibotasunera mugatzen da. Pertsona batzuek atsekabetasunezko sententzio hau bizitzeko joera edo erraztasunak dituzte, beste batzuek aldiz, zailtasunak. Pertsona bakoitza ezberdina da, eta sentimenduak izateko gaitasuna, zenbatekotasuna eta intentsitatea aldakorra da subjektu batetik bestera; egoera berdin baten aurrean gizabanako bat damutu daiteke eta beste bat ez. Horrelako sentimenduak, bakoitzaren izaera, bizipen, esperientzia, ezaugarri, testuinguru, heziketa etab.-engandik baldintzatuta daude.

Damutzea ETA-ko terrorismoan kokatzerakoan, delitugileari buruz hitz egitea ezinbestekoa da. Damutzea kasu honetan, gauzatutako egitatearengatik atsekabea sentitzea izango litzateke. Honen inguruan eztabaidak ugariak eta biziak izan dira. Batzuen ustetan ezinbestekoa da ETA-ko preso batek haren egiazko damutzea espresuki eta publikoki erakustea, honen bitartez, egindako kaltea onartzen delako, biktimarenganako enpatia erakusten delako eta biolentziaren deslegitimazioa ematen delako. Beste batzuen ustetan, damutzea edo ez damutzea preso bakoitzaren erabaki propioa da; pertsona bakoitzak sentitzen duen edo sentitzen ez duen atsekabea da, ezinbestekoa ez dena eta derrigortu behar ez dena.

Ikuspegi penal batetik, hainbat izan dira kasuak non erdi-askatasunerako aukera bat izateko damutzearen egiazkotasuna eta adierazpena modu ez-zuzen batean eskatu diren. Damutzea espetxeratuak idazten duen karta baten bidez ematen da, non egindakoarengatik barkamena espresuki eskatzen duen. Karta hauen edukieraren balorazioen bitartez, Audientzia Nazionalak, behin baino gehiagotan hirugarren graduak atzera bota ditu (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 4. galdera). Beraz, presoak karta baten bitartez bideratzen duen damutzearen benekotasuna eta norainokotasuna, ezezagunak ditugun irizpide batzuen bitartez baloratzen da erdi-askatasuneko erregimen bat onartzeko edo ukatzeko. Hau, nire ustetan, nahiko eztabaidagarria da: hirugarren gradu bat edo 100.2. artikulua lortzeko idatzizko mezu baten edukiaren balorazioaren menpe egotea ez zait bide egokia iruditzen. Are gehiago, balorazio hau egiten dutenak ez dira presoarekin lanean aritzen diren teknikoak edo presoarekin erlazioa duten espetxeko langileak baizik eta guztiz aldentuta eta haren egoerari buruz sakontasunean ezer ez dakiten Audientzia Nazionaleko pertsona multzo bat (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 5. galdera). Beste bide batzuk daude idatziaren zintzotasuna balioztatzeko eta niretzat egokiena, presoarekin haren espetxe eta birgizarteratze prozesuan lanean ari diren teknikoen balorazioa kontuan hartzea eta baloratzea izango litzateke, behin baino

gehiagotan, egindako lan oparo eta ezinbestekoa oztopatu baita. Gainera, zer ez esan denok ez daukagula idatziz espresatzeko eta gure ideiak azaltzeko gaitasun bera eta edukiaren zati asko irakurlearen interpretaziorako geratzen dira; ezin dira aurpegi eta gorputz keinuak antzeman, ahotsaren tonua, urduritasuna, begirada, etab. Laburbilduz, honek ez dio bergizarteratzeko helburu bati erantzuten ezta biktima erreparatzeko ahalegin bati, gainera, ibilbide egoki bat oztopa dezake.

Birgizarteratzearen ikuspegi batetik, damutzea, Aguirreren (2012, 97-98.or.) ustetan, ez da eragindako sufrimenduaren edo minaren aitorten hutsa, haratago doa; damuan, biktimaren duintasun pertsonala aitortzeak haren aurka erabili izan den eta justifikatzen zen indarkeria deslegitimatzea dakar. Damutzearekin egindako kaltea onartzeaz gain bideak gaitzesten dira.

Bestetik, askoren ustetan, damutzea publikoa izan behar da, ez da soilik biktimaren eta delitugilearen artekoa izan behar baizik eta gizarteari zabaldu behar zaio. Borroka armatua eta bide honen legitimazioa, terrorismoa eta delituzko ekintzak publikoak eta helaraziak izan ziren bezala, barkamena ere gizartearengana zabaldu beharrekoa izan behar dela justifikatzen da (Aguirre, 2012, 98.or.). Nire ustetan, ideia ulergarria da, baina zalantzak ditut Talioren legearen erabilerarekin (“begia begi truk”), hau da, bide armatua publikoa egin duzu beraz orain zure damutzea publikoa izan behar da, egoera konpontzen edo klima lasaitzen den. Publikotasunak mediatizazioa dakar eta mediatizazioak helburu politikoetarako erabilpena dakar; esandakoaren eta sentitutakoaren manipulazioa eta beharrezkoa ez den eta ekidin daitekeen gehiegizko esposizioa, bai delitugilearentzat, baina baita biktimarentzat ere. ETA-ko terrorismoak nahiz eta gizarte osoarengan eragina izan, honen asetzan ezin ditugu biktima zuzen eta zeharkakoen interesak alde batera utzi. Damutzearen publikotasuna bezalako gauza eskakizunak aldarrikatzerakoan, delitugile horrengatik zuzenean edo zeharka kaltetua izan denari nola eragin ahalko dion planteatu beharko genuke ere. Egia da gizarterekin zor bat dagoela baina hau ezin da besteen gainetik jarri; ezin ditu biktimen interesak eta beharrak gainditu. Are gehiago, publikotasunaren beharrak, preso batzuek haien atsekabea eta damutzea ez erakustea eta onartzea ekarri dezake.

Damutzearekin amaitzeko, egin beharreko galdera honako hau da: Posible al da ETA-ko preso baten birgizarteratze egokia ematea damutzea espresuki adierazi gabe? Erantzun bat emateko nahiko konplexua den galdera bat da, lan hau baino askoz ere

sakonagoa den azterketa bat beharko lukeena. Hala ere, nolabait erantzuten saiatuko naiz. Nire ustetan gakoa birgizarteratzearen kontzeptuan aurkitzen da; bakoitzak birgizarteratzearen inguruan dugun ideiaren arabera da erantzuna. Preso baten birgizarteratzea gizartean modu integratu batean barneratzea eta berriz deliturik ez gauzatzea bada, erantzuna baiezkoa izan ahalko litzateke. ETA-ko preso gehienek ikasketak dituzte, espetxean formazio akademikoa garatzen jarraitu dute, babes eta laguntza familiar zein soziala daukate, lanerako aukerak dituzte eta gizartera berriz bueltatzeko prestutasuna erakusten dute. Baina, honez gain, birgizarteratzea biktimarenganako erreparazioarako ahaleginak, egindako sufrimenduaren onartzea, gizartearekiko zorra ordaintzea eta borroka armatuaren deslegitimazioa badira, erantzuna ezezkoa da, azken honetan, damutzea ezinbestekoa eta fundamental da. Hau, gainerako delitu tipologietara ere islatu dezakegu, zer da guretzat birgizarteratzea eta zer espero dugu espetxeratuaren irteerarekin?

Puntu honetan, beste alde batetik, barkamenari buruz arituko naiz, damutzearekin oso erlazionaturik dagoelarik.

Barkamena, Echeburuak (2013, 66.or.) definitzen duen bezala, “eskuzabaltasun ekintza bat da, eta zor bat borondatez kitatzea dakar. Barkamena ematea ez da justizia-ekintza bat, inork ez duelako irainduarengandik barkamena eskatzeko eskubiderik, eskuzabaltasun-ekintza bat da baizik.” Beraz, ez da kaltea eragindakoak kaltetuari galdatzen dion zerbait, baizik eta azken honek, borondatez ematen duen eskuzabaltasunezko eta gizatasunezko ekintza bat. Ricoeur-ek adierazten duen bezala (2000, Echeburuan aipatuta, 2013), arau-hausleak ezin du barkamena galdatu baina barkamen-eskaera bat bai egin dezake, beti ere, atzera bota daitekeela edo ezezkoa jasotzeko aukera egonik.

Argi utzi behar da barkamena ahanztura ez dela, barkatzeko, ezinbestekoa baita gertatutakoaren eta horrek sortutako minaren oroitzea (Echeburúa, 2013, 66.or.). Barkamena ez da ere emandako portaeraren onartzea.

Barkamenaren bitartez, mina asetzen da, zama bat kentzen da eta zabalduko zauri bat gutxika-gutxika orbaintzen joaten da. Biktimak, haren errekupeazio prozesuan laguntzeko eta aurrera egiteko hartzen duen erabaki kontzientea da. Barkamenaren bitartez ez da egitatea ezabatzen edo gertatutakoa konpontzen, iragana ezin baita aldatu,

baina, etorkizunerako bidea zabaltzen da, amorrurik eta mendekuzko sentimendurik gabeko etorkizuna.

Bakoitzaren asetze, bake, lasaitasun, eta bestelako sentimenduez gain, barkamenak ondorio psikologiko positiboak ere izan ditzake: bakean bizitzea, iragana orainean eta etorkizunean eraginik ez izatea, osasuna hobetzea, bakoitzak bere buruarekiko duen adiskidetzeta eta autoestimua berreskuratzea, etab. Barkatzea beraz, askapenaren sinonimoa da (Echeburúa, 2013, 68.or.).

Delitugileei dagokienez, egindako kalteengatik barkamena eskatzeak bere burua ez gorrotatzeko, egindakoarekin bizitzen jakiteko eta gauzatutako ekintzen gainean errekifikaziorako eta baketzerako ibilbide bat jarraitzea suposatzen du. Hau da, ez du egindako kaltea barkamenaren eskaerarekin konpentsatzen baizik eta minaren onartzearen, erantzukizunaren, autokritikaren eta errekifikazioaren bidea hartuz, bere ekintzen ondorioz sortutako mina nolabait konpontzen edo baretzen saiatzen da.

Barkamena eskatzearen bitartez, egindakoagatik eta sortutako sufrimenduagatik min zintzoa eta benetako damutzea erakutsi behar dira. Barkamen bat eskatzeko, egindako kaltea aitortu, biktimarekiko enpatia, damutu, gauzatutakoa deslegitimatu, kaltea erreparatzeko nahia, eta beste hainbat ezaugarri izan behar dira.

Barkamena ikuspegi juridiko batetik aztertuz, 7/2003 Lege Organikoa berriz aipatzea ezinbestekoa da. Lan honetako bigarren puntuan azaldu dudana bezala, LO honen bitartez, ETA-ko kideak izateagatik eta terrorismo delituengatik kondenatutako presoek kaleratzeak (hirugarren gradua eta baldintzapeko askatasuna) luzatu eta zailtzen dira. Baina, zer erlazio du barkamenak 7/2003 Lege Organikoarekin? Honen erantzuna, Zigor Kodeko 90.1 artikulua amaietan aurki dezakegu zehatz mehatz:

“Asimismo, en el caso de personas condenadas por delitos referentes a organizaciones y grupos terroristas y delitos de terrorismo del Capítulo VII del Título XXII del Libro II de este Código, o cometidos en el seno de organizaciones o grupos criminales, **se entenderá que hay pronóstico de reinserción social cuando** el penado muestre signos inequívocos de haber abandonado los **fin**es y los **medios** de la actividad terrorista y además haya **colaborado** activamente con las autoridades, (...), **lo que podrá acreditarse mediante** una declaración expresa de repudio de sus actividades delictivas y de abandono de la violencia y **una**

petición expresa de perdón a las víctimas de su delito, así como por los informes técnicos que acrediten que el preso está realmente desvinculado de la organización terrorista y del entorno y actividades de asociaciones y colectivos ilegales que la rodean y su colaboración con las autoridades.”

Artikulu honen helburua, kondenatuaren gizarteratze pronostikoa egiaztatzea eta balioztatzea izango litzateke, honen kaleratzea baldintzapeko askatasunean posiblea den ala ez jakiteko. Hau baloratzeko bidetariko bat, barkamen espresuaren eskaera dela adierazten da. Honen bitartez, biktimak jasandako kalte moralak konpontzea bilatzen da. Dufraix-ek (2008, 120.or.) azaltzen duen bezala, delitugilea birgizarteratzeko gaitasuna konponketari egilesten zaio. Beraz, artikulu honetan araututakoarekin, barkamen espresuaren eskaeraren funtzioa, kondenatuaren gizarteratze pronostikoa egokia den edo ez baloratzeko dela ondorioztatu daiteke.

Barkamen eskakizunak kondenatuaren birgizarteratzea baloratu dezake, baina, zergatik? Zein da bereiztasuna? Nik, egia esan ez daukat oso argi. Barkamena eskatzeak, beste hainbat gauzez gain, biktimarekiko errespetua erakustea eta egindakoaren erantzukizuna hartzea suposatzen duela ulertzen dut, baina, honekin, birgizarteratze pronostikoa egokia dela baloratu daiteke? Horrez gain, damuarekin azaldutako gauza bera gertatzen dela iruditzen zait: karta baten bidez adierazitako barkamenak ez du indar nahikorik eta ezin daiteke objektiboki baloratu. Are gehiago, Dufraix-ek (2008, 128.or.) esaten duen bezala, barkamena eskatzea tratamendu egoki baten emaitza dela pentsatzen bada, zergatik ez da delitu arruntetan aplikatzen? Delituak guztiz desberdinak izan arren, biktimari barkamena eskatzeari dagokionez ez litzateke bereizketarik egon beharko, bi kasuetan, neurria kondenatua birgizarteratzeko ezarriko litzateke eta.

Honek, hainbat eztabaida ekarri izan ditu. 2015. urteko Zigor Kodearen erreformarekin, 7/2003 Lege Organikoak araututako 90. artikulua eraldatu egiten da eta aipatutako 90.1. artikuluko azken paragrafoa 90.8 artikulua izatera pasatzen da, honako aldaketa hauekin:

“En el caso de personas condenadas por delitos cometidos en el seno de organizaciones criminales o por alguno de los delitos regulados en el Capítulo VII del Título XXII del Libro II de este Código, **la suspensión de la ejecución del resto de la pena impuesta y concesión de la libertad condicional requiere** que el penado muestre signos inequívocos de haber abandonado los **fin**es y los

medios de la actividad terrorista y haya **colaborado** activamente con las autoridades, (...), **lo que podrá acreditarse mediante** una declaración expresa de repudio de sus actividades delictivas y de abandono de la violencia y **una petición expresa de perdón a las víctimas de su delito**, así como por los informes técnicos que acrediten que el preso está realmente desvinculado de la organización terrorista y del entorno y actividades de asociaciones y colectivos ilegales que la rodean y su colaboración con las autoridades.”

Artikulu honetan hainbat aldaketa daude. Alde batetik, aplikagarri zaien delitu tipologiak zerbait aldatzen direla ikus dezakegu; terrorismo delituengatik kondenatutakoak espresuki agertzen ez dira, baizik eta zehaztutako kapituluetako delituen egile bezala adierazten dira. Bigarrenik, artikulua zigorraren gainerako zatiaren betearazpena etetea edo baldintzapeko askatasuna lortzeko baldintzei buruzkoa dela zehazten da, aurrekoan ez bezala. Hirugarrenik, modifikazioa eta gero, birgizarteratzeko pronostikorik aipatzen ez dela nabarmentzekoa da. Kasu honetan baloratzen dena, etetea edo baldintzapeko askatasuna lortzeko merezidunak diren da, ez haien birgizarteratze pronostikoa positiboa den. Gainerakoa berdin mantentzen da; barkamen espresuaren eskakizuna balorazio tresna bezala galdatzen da.

Zati juridikoa ixteko, lanean zehar adierazitako beste ideia batzuk berriz ere azpimarratzea gustatuko litzaidake. Lehenik eta behin, helburuen eta hauek lortzeko bideen bereizketa. Zuzenbidezko Estatu demokratiko batean, helburuak guztiz zilegizkoak dira eta hauek ukatzea ez litzateke eskatu beharko; zilegizkoa ez dena helburu hauek lortzeko bideak dira, hau da, borroka armatua, eta honen deslegitimazioa bai da galdagarria. Bestetik, Langraiz Bidearen puntuan kritikatu dudana bezala, kolaborazio aktiboa bat izatea nahiko eztabaidagarria iruditzen zait; informazioa emateko eta etorkizuneko kalteak eragozteko preso ororen baliabideak ez dira berdinak, zer esanik ez, ETA jada existitzen ez dela eta hainbat urte igaro ondoren, talde armatuaren inguruko informazio baliagarria ematea oso zaila dela.

Puntu honekin amaitzeko, barkamenak birgizarteratzean lagundu dezake? Noski baietz. Hala ere, nahiz eta lagungarria izan, ez da galdagarria; ezin da delitugile bat barkamena eskatzera behartu, ezta biktima bat barkamena ematera bultzatu. Barkamena biktimaren borondatezko erabakia da, eta eskaera, guztiz zintzoa eta errespetuzkoa izan behar da; ez arau batek zeharka eragindakoa. Justizia errestituziozko topaketen bitartez

hainbat barkamenezko egoera eman dira, batzuk onartuak eta beste batzuk ez (berriz ere, biktimaren erabakia da). Nire ustetan, hauek dira barkamenaren eskaera bat emateko testuinguru aproposenak; biktima eta biktimarioa aurrez-aurre daudenean, leku pribatu eta lasaietan, non gertatutakoari buruz mintzatzera borondatez hurbildu diren eta egoera eta etorkizuna aldatzeko nahia eta prestutasuna erakutsi duten.

5. IKUSPEGI EZBERDINAK: ELKARRIZKETAK

Behin lanaren alde teorikoa azterturik, hau osatzeko, ETA-ko presoan birgizarteratzearekin zerikusia, erlazioa edo ezagutza dituzten pertsonak elkarrizketatzea egokia iruditu zait. Horrela, azaldutako guztia antzeman dezake irakurleak, errealitatean zer gertatzen den eta nola jarduten den ikusiz.

Horretarako, hiru pertsona elkarrizketatzea erabaki dut. Alde batetik, Gema Varona Martinez daukagu, graduako bigarren mailan nire irakaslea izandakoa eta biktimekin askotan lanean aritzen dena. Bigarrenik, Carmen Gonzalez Babarro, Zubiko elkarteko abokatua eta azkenik, ETA-ko kide bat, espetxean hainbat urte bizi izan dituen.

5.1. GEMA VARONA MARTINEZ

Elkarrizketa hau egiterako orduan, nire ideia ETA-ko gertakari baten biktima zuzena edo zeharkakoa izandako pertsona bat elkarrizketatzea zen. Asmo handiko ideia bat zen eta azkenean hainbat arrazoiengatik aurrera ez eramatea erabaki nuen. Ez daukat inolako prestakuntzarik biktima batekin aritzerako orduan; errespetua, enpatia, ulergarritasuna, eta beharrezkoak diren bestelako sentimenduak izan ahal ditut baina horrek ez du esan nahi biktima batekin esertzeko eta hitz egiteko beharrezkoak diren gaitasunak ditudanik. Nire lana ETA-ko kideei buruzko birgizarteratzea izanik, galderen bitartez nahi ez dudan min edo sufrimendu bat sortzea posiblea zela ohartu nintzen eta ondorioz, ez arriskatzea erabaki nuen, hau da, helburu akademikoentzako, posiblea litekeen sufrimendu bat ez berpiztea. Hala ere, lan honetan biktimen ikuspuntua jaso nahi nuen eta egoera hau izanik, Gema-ri elkarrizketa egitea pentsatu nuen.

Gema, bigarren mailan “victimology” eta “criminal policy” ikasgaietako irakasle izan dut eta behin baino gehiagotan ETA-ko biktimen gaia jorratu dugu, hala nola, lanak eginez edo ETA-ko biktima bat klasera hitz egitera ekarriz. Zuzenbidean lizentziatua eta Kriminologian diplomatua da eta hogeita hamar urte baino gehiagotan diziplinarteko lan kriminologikoan aritu da. Biktimen inguruko lan ugari egin ditu eta beste hainbat proiektuetan parte-hartu du ere. Aipatzekoak dira, alde batetik, bere justizia errestitutiboaren inguruko tesia, Doktoregoko Aparteko Saria jaso zuena. Bestetik, bitartekaritzaren eta biktimologiaren arloan egindako ekarpenengatik bi aintzatespenderdin jaso dituela. Eta amaitzeko, IVACEko Zuzendaritza Batzordeko kidea, Biktimologiako Euskal Elkarte Zientifikoko presidentea eta Journal of Victimology-ko argitaratzaile kidea dela.

Arrazoi guzti hauengandik eta atzetik dituen beste hainbat ekarpen, beka, meritu, lan eta bestelakoengatik elkarrizketarako pertsona aproposena iruditu zitzaidan. Posta elektronikoz berarekin kontaktuan jarri nintzen eta nire ideia azaldu nion, ondo iruditu zitzaien. Konferentzia batean atzerrian zegoela komentatu zidan baina galderak mezuz bidaltzeko eta berak audioz erantzuteko irtenbidea eman zidan eta horrela egin genuen. Anonimotasuna gordetzeko aukera jakinarazi nion, baina beharrezkoa ez zela esan zidan. Guztira, biktimekin eta ETA-ko terrorismoarekin erlazionaturiko 10 galdera dira, jarraian aztertuko ditudanak.

Lehenengo galdera (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 1. galdera), ETA-ko terrorismoaren biktimek euskal gizartearengandik sentitutako babesaren ingurukoa da. Lanean zehar behin baino gehiagotan aipatu dudak bezala, urte askoz biktimak ez dira babestuak sentitu, euskal gizarteak alde batera begiratzen zuen eta ez zuen enpatiazko erreakziorik erakusten. Egoera hau izanda, askok hemendik alde egin zuten. Gemaren ustetan, urte askotan baztertuak egon dira, ez zen sentimenduzko kontu bat baizik eta errealitate bat. Hala ere, egoera hoherantz aldatu egin da; ez zen berdina 60, 70, 80 eta 90-eko hamarkadetan bizitako babesgabetasun eta enpatia eza, gaur egungo egoerarekin alderatuz. Miguel Angel Blancoren hilketarekin inflexiozko puntu bat ematen dela azaltzen du eta geroztik aurrera, euskal gizartearen erantzuna aldatzen joan da. Orokorrean, gaur egun lagunduagoak eta babestuagoak sentitzen direla azaltzen du, hala ere, hau ez da guztien errealitate bat, biktima batzuek bazterketa oraindik sentitzen eta jasaten dute. Bestetik, biktima bakoitzaren errealitatea ezberdina dela azpimarratzen du: ez da berdina herri txiki edo hiri baten bizitzea, Guardia Zibila izatea, Polizia Nazional

baten familiarra etab. Amaitzeko, galdera honen erantzun sakonago bat izateko eskuragarri ditugun baliabide eta iturriekin kontrastatu behar dela aipatzen du, horretarako, Deusto Barometro, Euskobarometro eta Varona, Desazón eta Esperanza ikerketa gomendatzen ditu.

Bigarren galderan (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 2. galdera), ETA-ko biktimen funtsezko beharizanen inguruan hitz egiten da. Beharizanak biktimaren arabera direla azaltzen du, ez da berdina ume bat izatea, nerabe bat, etab. Horrez gain, izaera askotarikoak izan ahal direla argitzen du: elkartasunezkoak, errekonozimenduzkoak, psikologikoak, sozialak, judizialak etab. Biktimen beharrak errealitate bat izaten jarraitzen dutela aipatzen du, nahiz eta delitua epaitu nahiz eta urteak igaro, hor jarraitzen dute.

Hirugarren galderari dagokionez (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 3. galdera), erresilientziari buruz mintzatzen da. Lehenik eta behin, erresilientzia definitzen du. Gemaren hitzetan, erresilientzia ez da erresistentzia ezta hazkunde traumatikoa. Erresilientzia adaptazioa eta ahalik eta normalena den bizitza bat izaten jarraitzea bezala ulertzen bada, ETAREN biktimetan asko eman dela baieztatzen du, bereziki emakumeetan, hauek izan baitira zeharkako biktimen gehiengoa eta haien semeak mendeku eta gorroto gabe hezi dituztenak. Bestetik, biktimen bereiztasunak eta ezaugarri indibidualak kontuan izan behar direla azpimarratzen du berriz ere, ez baita berdina herri edo hiri baten bizi den pertsona, beste leku batera bizitzera joan dena, familia babesa duena edo ez duena, etab. Ondorioz, modu orokor batean ezin da erantzun zehatz bat eman, baina erresilientzia egon bai egon da. Honez gain, Desazón eta Esperanza eta Huygens-en liburua gomendatzen ditu.

Laugarren galderan (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 4. galdera), justizia errestitutiboa jorratzen da. Justizia errestitutiboa terrorismo delituetan oso gutxitan erabili izan den tresna bat dela azaltzen du. Bi alderdien arteko borondatezkotasuna egon behar da. Parte-hartzeko interesak bai daudela adierazi du baina egoerak eta egoerak daude. Nahikoa da justizia errestitutiboarekin? Gemaren ustetan ez. Ez da kasu eta pertsona guztientzako egokia ezta konponbide bakarra. Justizia errestitutiboa solidaritate, egia, justizia, erreparazio eta errekonozimendu premiei erantzuteko beste pausu bat da, eta behar hauek gizarte laguntzarekin, laguntza psikologikoarekin eta abarrekin osatu behar dira.

Bosgarren galderan (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 5. galdera), justizia trantsizioala eta ETA-ko terrorismoaren kasuan honek duen aplikagarritasunari buruz hitz egiten da. Gemaren ustetan, justizia trantsizionala ezin daiteke Euskadi eta Espainiako terrorismo gatazkan aplikatu, ez da marko egokia. Justizia trantsizionala guda zibil batetik demokraziarako trantsizio bat dagoen garaietarako da, eta hori, ezin daiteke gatazka honetan islatu; ez da trantsizio bat egon, zeren, nahiz eta ETA diktadurarekin sortu, demokrazian jardun eta erail du gehienbat. Horrez gain, justizia trantsizionalean bi talde bereizten direla argitzen du, gatazka honetan egokia iruditzen ez zaiona. Azkenik, makro mailako justizia bat dela argitzen du, pertsona oro epaitu ezin direnean justizia eta bakea orekatzeko erabiltzen dena.

Seigarren galderari dagokionez (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 6. galdera), hedabideei eta mediatizazioari buruz hitz egiten da. Gemak azaltzen duenez, argi eta garbi ikus daiteke biktimen minaren eta sufrimenduaren manipulazio bat eman dela, baita memoriarena ere. Manipulazio hau, partidista da, politizatua. Gertakari hauek, noski, bigarren mailako biktimizazioa sortzen dute.

Zazpigarren galderan (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 7. galdera), mendekuari buruz galdetzen diot, ea biktimak mendekuzkoak diren eta gertakarien asetzea zigorraren gogortasunaren eta astuntasunaren bitartez bilatzen duten. Honen erantzuna, batan bat bai egongo dela da, edonor mendekuzkoa izan daitekeen bezala, baina orokorrean, ez da ematen den zeozer. Gemak eta beste lankide batzuk elkarrizketatu izan ahal dituzten biktimak ez dira gizartea bezain zigortzaileak. Bilatzen dutena justizia da, baina ez justizia adiskidetzat eta laguntasunezko zentsu batean baizik eta egia jakitearen eta egindakoaren deslegitimazioaren zentsuan. Gertakariak ematerakoan biktima baten burutik zer gertatzen den jakitea eta epaitzea oso zaila da. Hasiara batean, normalena, mendekuzko pentsamendu horiek izatea da, baina, garrantzitsuena, hauek aurrera ez eramatea da, orain arte gertatu den bezala.

Zortzigarren galderari dagokionez (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 8. galdera), errua eta damutzeari buruz aritzen da. Errektifikazioa azpimarratzen du. Zigor Zuzenbidean erru penala eta erantzukizunaz hitz egiten da; garrantzitsua erantzukizuna da, justizia errestitutiboko terminoetan erantzukizun aktibo bat izatea.

Bederatzigarren galderan (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 9. galdera), biktimek barkamen eta damutze espresu bat behar dutenaren inguruan mintzatzen da. Biktima orok

ez du honen beharrik, eta are gehiago, Gema-ren ustetan damutzea baino egokiagoa errektifikazioaz hitz egitea. Hau da, egindako eta gertatutakoa gaizki zegoela esan eta onartu behar da, borroka armatuaren bidea deslegitimatatu behar da. Barkamenari dagokionez, biktima batzuk ez daude interesatuta. Bakoitzak barkamena modu zehatz batera ulertzen du; batzuek barkamen pribatuak nahi dituzte, baina, orokorrean eskatzen dena ekintzen bitartez erakusten den barkamen publikoak dira, hala nola omenaldiak ez egitea, listetan ez agertzea, etab.

Amaitzeko, azkeneko galderan (1. Eranskina, 1. elkarrizketa, 10. galdera), mendekuan eta gorrotoan biziz, biktimaren errekupeazio bat edo presoaren birgizarteratze egoki bat eman daitekeen galdetzen diot. Gemak honen erantzuna argi dauka: ez, ezin daiteke eman. Errekupeazioa, termino biktimologikoetan, biktimarentzat zein delitugilearentzat ahalik eta bizitza osoena izatea da, eta hori gorroto eta mendekuarekin ezinezkoa da. Are gehiago, ez dira soilik biktimarioa eta biktima berreskuratu behar, baizik eta baita gizartea bera.

5.2. CARMEN GONZÁLEZ BABARRO

Bigarren elkarrizketaren bitartez, informazio juridikoa eta errealitatean ETA-ko presoan espetxeko egoera nolakoa den ikustea izan da nire helburua. Horretarako, praktikak burutu ditudan elkarteko abokatuari elkarrizketatzea pentsatu nuen. Elkartea Zubiko deitzen da, 2002ko azaroan sortzen da, presoan gizarteratzea eta laneratzea errazteko baliabide bat izateko helburuarekin. Irabazi, asmorik gabeko eta joera ideologiko eta erlijiosorik gabeko elkartea da eta lanaren gabeziaren ondorioz sortutako “espetxeratze-irteera” zirkulua eta beste zailtasun gehigarri batzuk haustea bilatzen du. Horretarako, Zubia programa espezifikoa eta integralaren bidez, pertsonaren arlo guztiak jorratzen dira, arreta berezia enpleguan jarritz. Zubiko elkarteak laguntza integrala pertsonari eta baita haren familiari ematen die; laguntza eta orientazio laboral, psikosozial eta sozio-juridikoa eskaintzen die, gizartean eta lan-merkatuan sartzeko prozesu osoan zehar: espetxean egotetik, baimenak edukitzetik, erdi-askatasuneko erregimenean sartzetik, espetxetik ateratzeraino. Elkarrizketatua, Carmen, Zubiko elkarteko abokatua da eta berak ikusten eta bizitzen dituen kasuen bitartez lana osotzea iruditu zait.

Gemarekin bezala, Carmenekin kontaktuan jarri nintzen eta inolako arazorik gabe elkarrizketan parte hartuko zuela erantzun zidan. Maiatzaren hasieran, Bilbora Zubia zentrora hurbildu nintzen eta bertan aurrez-aurre egin nizkion galderak. Anonimotasuna gorde zezakeela komentatu nion, hala ere, axola zitzaiola eta bere izena agertu zitzakeela komentatu zidan. Kasu honetan, elkarrizketak 8 galdera ditu, guztiak presoaren espetxe eta ibilbide juridikora mugatzen direnak.

Elkarrizketarekin hasteko, lehenengo galderan (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 1. galdera) presoaren eskubideen inguruan aritu gara, hauen urraketei buruz hain zuzen. Carmenen ustetan, agian, dispartzio politikaren gai osoa nahiko eztabaidagarria da. Azken finean, presoek, haien etxebizitza eta familiarik gertuen dagoen espetxean egoteko eskubidea daukate, deserrotzea saihesteko, familiak bisitatu ahal izateko eta komunikatuta egoteko. Hori dela eta, honen inguruko espetxe politika zalantzarikoa zen; mugetik oso gertu jokatzen baitzen. Horrez gain, lehenengo graduko erregimena, inkomunikazioak, atxiloketak, jurisdikzio espeziala eta Audientzia Nazionalaren papera ere aipatzen ditu. Laburbilduz, legegintza esparruan elementu batzuk gutxienez eztabaidagarriak zirela kontsideratzen du.

Hala ere, egoera kontutan hartu behar dela adierazten du. Arriskua eta mehatxuak zeuden eta azkenean, hainbat ETA-ko preso batera egoteagatik espetxearen kontrola galtzea saihestu nahi zen. Oso garai nahasia izan zen, egoera bereziki zailekin.

Bigarrenari dagokionez (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 2. galdera), zigor zuzenbidearen eta espetxe politiken aldaketak biktimaren nahiak eta beharrak asetzegatik edo indar mediatiko eta sozialagatik eman diren galdetzen diot. Carmenen iritziz, zigor zuzenbidearen arloan biktimak ez dira lehentasuna. Lehentasuna aldiz, erruduna izango litzateke eta baita zigor zuzenbideak dituen helburu anitzak: zigortzea, prebentzio orokorra, disuasio-eragina, ordena sozialaren kontrola eta birgizartratzea. Ondorioz, biktima normalean baztertuta egoten da. Bestetik, maila penalean izandako aldaketa asko hedabideetan helarazitako berriengatik ematen dela azaltzen du. Kasu mediatiko bat dago, alarma soziala sortzen da, horrek korrante sozial bat ekartzen du eta zigorren gogortasuna aplikatzeko aldarrikapenak ematen dira. Honen bidez, delinkuentziaren arazoa konponduko dela pentsatzen da. Okerreko ideia bat da, zeren, Carmenek azaltzen duen bezala, kontuan hartu beharreko beste hainbat faktore daude, delituzko kausak multifaktorialak baitira.

Hirugarren galderan (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 3. galdera), 7/2003 Lege Organikoari buruz mintzatzen gara. Lege Organikoa baino lehenago, Segurtasun Aldirik ez egoteak gauzak errazten zituela adierazten du. Gauza ez da lehen ETA-ko preso guztiak oso goiz eta modu erraz batean ateratzen zirela (3. Elkarrizketan ikus dezakegun bezala), baizik eta kasu mediatiko batzuk egon zirela, non presoak ez zituen gizartearentzat egokiak ziren behar bezain urte igaro espetxean, eta ondorioz, mediatizazio eta erabilera politikoarekin, legearen bitartez Segurtasun Aldi bat ezartzea erabaki zen. Kondenaren erdia integralki betetzearen galdakizunaren bitartez, hirugarren gradu baterako proposa den pertsona bati oztopoak jarri ahal zaizkio. Carmenek espetxe-legeriak tresna proposak badituela komentatzen du, presoaren ibilbide indibidualizatura enfokatutakoak, baina gakoa, hauen erabileran aurkitzen da, nola aplikatzen diren.

Helburua beraz, alarma soziala eta gizartea orokorrean baratzea izan da, berrerortzea ekiditea edo delituen prebentzioa baino. Hau, maila sozial batean ez da ikusten, gizartearen zati nabarmen baten ustetan, prebentzioa eta konponbidea subjektuak espetxean ahalik eta denbora gehien egotea baita. Honek, segurtasunezko pertzepzio oker bat ematen du.

Laugarren galderan (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 4. galdera), hirugarren graduak aztertzen dira, hauek lortzeko betekizunak eta ukatzeak. Zubiko elkartean izan dituzten kasuetan, hirugarren graduen ukatzeak barkamenaren balorazioaren ondorioz eman dira. Adierazpen zintzoa izatea eskatzen da, zalantzarik gabea, damu eta barkamen eskaera argi batez adierazten dena. Adierazpen honen balorazioan dago gakoa. Carmenek azaltzen duenez, izandako kasuetan, gainerako betebeharrak betetzen ziren: ingurune egokia, jarrera egokia, parte diziplinarioen eza, aldeko pronostikoa etab., baina barkamenaren zintzotasuna kolokan jartzen zen.

Barkamena eskatzerakoan, publikoak izatea eskatzen ez dela argitzen du. Presoak idatzi eta aurkezten duen dokumentu bat da, eta edukiaren balorazioarekin, barkamena zintzoa, argia eta benetakoa den erabakitzen da, zalantzarik eta justifikaziorik gabekoa. Kasu batzuetan, idazki-eredu bat denez, formaltasun huts bat dela argudiatu da, eta ez galdatzen den bezalako eskaera ekintza bat.

Bosgarren galderan (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 5. galdera), indarrean jarritako doktrina berriari buruz galdetzen diot, ea zein den horren inguruan duen iritzia eta nolako

eragina izan duen haien lanean. Bere ustetan, benetan zentzua duen aldaketa bat baino, oztupoak jartzeko gai politiko bat da; legalitatetik, ETA-ko presoak espetxetik ez ateratzeko ahal duten guztia egiten ari direla erakustea.

Errebokazio kasuak izan dituzte eta atsekabetuta kontatzen ditu, atzera botatako kasuetatik, oso ondo zihoazen eta lan handia egiten ari ziren prozesuen kasuak izan dituzte eta. Maila pertsonalean, hainbat esparru landu behar direla azaltzen du: espetxean hainbat urtez egon izana, lehenengo graduan, familiatik urrun, bueltatzeak dakarren bizikidetzeta eta egokitu beharra, gai psikologiko eta mentalak, bizitza laborala, autoestimua, etab. Eta, ibilbide bat dagoenean, pertsona egokitzen hasia dela, bat-batean ezeztatu egiten dute. Ez ezer gaizki egin delako, baizik eta berrikusi egin delako eta ezezkotzat jotzea erabaki delako, batzuen ustetan baldintzak betetzen ez dituelako (barkamenaren zintzotasuna, etab.). Carmenek ez dio zentzurik ikusten.

Doktrinari dagokionez, gauza bera gertatzen dela kontatzen du, ibilbidea eta aurrerapausoak asko oztopatzen dituela. Behin errekurtsioa jarrita espetxera bueltatzeak inongo logikarik ez duela uste du; horren bitartez soilik egindako lana oztopatzen da, are gehiago, presoarengan larritasun, amorrutik eta atsekabetasunezko egoera bat sortzen da, zeren berriz sartzearen beldur eta aukera hori une oro presente dago. Segurtasun juridiko gabeziaren sentazioa sortzen du, baita biktimizazioarena. Gainera, haiek izan dituzten kasuetan, tekniko eta profesionalen txosten eta balorazioak positiboak izan dira. Atzera botatzea erabaki duena, prozesua eta kasua sakon ezagutzen ez duen norbait izan da, eta irizpide hori gailentzen da kondenatuarekin eskuz-esku lan egiten duten pertsonen, profesionalen eta teknikarien gainetik. Ondorioz, mekanismo hauek beste gauza batzuetarako balio dutela dio Carmenek: prentsarako, politikarako, alarma sozialerako, etab. baina ez birgizarteratzeko, haiek izan dituzten prozesuak asko oztopatu baitituzte.

Seigarren galderarekin jarraituz (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 6. galdera), barkamena eta damutzeari buruz aritzen gara, ea birgizarteratze egoki bat izateko bi kontzeptua hauek beharrezkoak diren edo ez. Elkarrizketatuaren aburuz, damutzea eta barkamenaren eremuan oraindik lan asko egin beharra dago. Espetxean hainbat urtez egoten den pertsonak bere burua biktimizatzen amaitzen du, sistemaren biktima sentitzen da. Gainera, ETA-ko presoaren egoera azpimarratzekoa da: lehenengo graduko erregimena, etxetik eta familiatik urrun egoteak, lekualdatze ugariak, etab. Ondorioz, bereingatik eta familiagatik, sistemaren biktima kontsideratzen dira (3.

elkarrizketatuaren kasua adibidez). Horrek, damutzearen eta barkamena eskatzearen pausua eragotzi dezake. Hala ere, Carmenen ustetan gutxika-gutxika ibilbide honetan pausuak ematen ari dira, baina horretarako, lan asko egin beharra dago. Egindakoa eta horrek modu zuzen, zeharka eta sozial batean eragindako kaltea baloratzea, aztertzea eta lantzea urrun dagoela pentsatzen du; biziraupeneko fasean daude oraindik, espetxetik nola atera eta haien bizitza bideratzeko fasean.

Onartze eta erantzukizun pertsonal bat egotea oso garrantzitsua dela dio, horretarako, autokritika egin behar da; norbanakoak bere burua azertu, baloratu egindakoaren zergatia, egoerak, helburua, emaitzak, etab. analizatu eta baloratu behar ditu. Analisi hau egin ezean, subjektua ez doa inora; aurrera egiteko ezinbestekoa da autokritika egitea. Alegia, egindako mina eta sufrimendua ikusi eta onartzera prest egon behar da.

Carmenek, prozesuaren denborak azpimarratzen ditu; prozesu bat egon behar da, bere denbora behar duena eta hori erabat errespetatu behar da, ezin dira ekimenak bultzatu, presaka eta berehala egitera behartu, zintzoak izan behar baitira. Azkenik, hedabideen eragina ere aipatzen du; mediatizazioaren eta egindako edo esandakoaren erabilera desegoki bat ematearen beldurra dagoela. Hala ere, predisposizioa bai ikusten duela aipatzen du, oso positiboa iruditzen zaiona.

Zazpigarren galderari dagokionez (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 7. galdera), justizia errestitutiboaren inguruan galdetzen diot. Prozesu errestitutiboak bai ematen ari direla komentatzen dit, baina oso ezkutuan mantentzen direla. Bere ustez, elkartzeko hauen bitartez bakoitzaren barnean sentimendu eta emozio asko mugitzen eta lekualdatzen dira eta horregatik, ibilbide egokian gaudela dio, baina ibilbidearen hasieran. Behar adina denbora eman behar zaiola uste du, ondo egiteko behar bezala egin behar den prozesua izan behar du. Horrez gain, aterki komun bat egon arren, pertsona bakoitza mundu bat dela azpimarratzen du. Bakoitzak bere barneko prozesu pertsonala eramane du, eta gizarteratzeko, damutzeko, barkamena eskatzeko edo kaltea bere gain hartzeko une batean dago.

Azkenengo galderan, zortzigarrenean (1. Eranskina, 2. elkarrizketa, 8. galdera), ETA-ko presoek gainerako espetxeratuekiko dituzten ezberdintasunak aipatzen dira. Berriz ere, Carmenek, bakoitzak bere prozesu indibiduala duela nabarmentzen du. Haien

lana, prozesu horren arabera aritzea da, modu pertsonalizatu eta indibidualizatu batean, hau baita eraginkorra eta emaitza onak ematen dituen.

ETA-ko presoek profilari dagokionez, maila intelektualean edo trebetasun sozialetan atentzioa deitzen duten pertsonak izan dituztela aipatzen du, egia da, bakoitzaren ibilbideak eta egoerek honetan eragina dutela.

ETA-ko presoekin lan egitea, beraientzat esperientzia berri bat izan dela azaltzen du. Pertsona horiek ez ziren zentrorra joaten, ez zuten eskatzen, ez zituzten laguntzazko mezuak idazten, etab. Haien kontaktu bakarra familia, ingurukoak eta espetxeratutako gainerako ETA-ko presoak ziren, hau da, zirkulu mugatu bat. Horrekin batera, ETA-ko presoek inkomunikazio, isolamendu eta segregazio maila, espetxean dauden beste pertsona batzuek ez dute bizi izan. Haien bizitza pautak batzuk jarraitzea eta tinko mantentzea izan da, ideologiarekin jarraitzea, zure inguruko pertsonen laguntza eta babesarekin. Hau, gainerako presoek ez duten ezaugarri bat da.

Gainerako delituengatik espetxeratuak dauden gizabanakoek baino laguntza eta sostengu sozial eta familiar handiagoa izan ohi dutela ere aipatzekoa da. Hortaz, gero gizartera bueltatzeko eta moldatzeko izugarritzko gogoak eta gaitasunak dituztela ikusi izan dute.

Amaitzeko, ikasketak eta formakuntza azpimarratzekoa da. Espetxe barruan, ETA-ko presoek gehiengoak ikasten, irakurtzen, informatzen eta eguneratzen jarraitzen du, interesa daukate (3. elkarrizketatua adibidez). Trebetasun sozialei, portaerari, hezkuntzari etab. dagokionez, bereizgarriak dira ere bai. Izan ere, azkenean, abiapuntua beste bat da, inguruabarrak bestelakoak dira eta espetxera sartu baino aurreko bizitza, egoera, ezaugarriak etab. guztiz ezberdinak izan dira.

5.3. ETA-ko PRESOA IZANDAKOA

Azkenengo elkarrizketa honetan, ETA-ko terrorismoarengatik eta borroka armatuan parte hartzeagatik hainbat urtez espetxeratua egon den pertsona bat elkarrizketatu dut. Honen bitartez, esperientzia zuzenean bizi izan duen pertsona batek nola kontatzen eta baloratzen duen aztertu nahi izan dut. Pertsona hau, ia 20 urtez egon da espetxean eta beste hainbat daramatza kalean, demokraziaren hasieran espetxeratua

izan baitzen. Gaur egun, bizitza normal eta osotu bat darama. Elkarrizketaren bitartez, haren esperientziak eta birgizarteratzea ikustea eta baloratzea izan da nire helburua.

Elkarrizketa aurrera eraman ahal izateko pertsona honekin harremanetan jarri nahiz eta horrelako gauzak egiteko jada prest dagoela uste duela komentatu zidan. Egun baten geratu ginen eta udaletxean eskatutako zerbitzu publikorako gela probatu bat erabili nuen elkarrizketa egiteko. Hasi baino lehen anonimotasuna gorde zezakeela komentatu nion eta nahiago zuela esan zidan; haren datu edo bizipen zehatzak agertzea axola ez zitzaiola baina izena isilpean mantentzea nahiago zuela. Kasu honetan, elkarrizketak 8 galdera ditu eta bere bizipenei, espetxean egondako denborari eta kaleratzeari buruzkoak dira.

Elkarrizketaren lehenengo galderan (1. Eranskina, 3. elkarrizketa, 1. galdera), bere istorioa laburtzea eskatzen diot: zenbat denbora egon zen espetxean, zer espetxetan, noiz atera zen, etab. Subjektuak, enpresa batean lan egiten zuela kontatzen dit, eta bertan gertatzen den leherketa batean bi langile hiltzen direla²⁹. Hau dela eta, 1978ko abenduaren 15ean atxilotu egiten dute. Bederatzi egunez egoten da polizia-etxean eta han etengabe jipoitzen eta torturatzen dutela kontatzen du. Lehen aldiz lege antiterrorista aplikatzen zuten atxilotua izan zen eta horren ondorioz mantentzen dute hainbat egunez polizia-etxean. Are gehiago, egun hauetan ez zuen zerbitzu juridikorik jaso eta soilik gabon egunean haren familiari besarkada bat ematen utzi zioten. Gau hartan, Carabancheleko espetxera eraman zuten. Bertan hilabete bat egonda, diligentziak egiteko lehenengo aldiz Audientzia Nazionalen hartzen dutela azaltzen du eta hortik, Madriletik Soriara lekualdatzen dute. Sorian, 55-60 bat kide zeudela azaltzen du. Beraz, dispertsio-politika oraindik errealitate bat ez zela ikus dezakegu. Soriako espetxean 3 urtez egon zen.

1981ean, Soriatik Puerto de Santa Mariara lekualdatzen dute. Pertsona asko zirela azaltzen du, pilatzen ari zirela eta ondorioz, Carabancheleko multzo bat hartu eta denak Puerto de Santa Mariara eroan zituzten. Bertan, bi modulutan banandu zituzten, bakoitzean hasiera batean 50 zirelarik, gero, kopurua handitzen joan zen. Puerto de Santa Marian 1983arte egon zen, Espainian Herrera de la Mancha presondegia zabaltzen den arte. Subjektuak azaltzen duenez, espetxe honen konnotazio edo ezaugarri

²⁹ Delituzko egitateen deskribapen honetan, subjektuak portaeraren erantzukizuna bere gain hartzen ez duela azpimarratzekoa da. “Leherketa bat egoten da” eta “bi pertsona hiltzen dira”.

nagusienetarikoa gogortasuna eta erregimen bortitza zen. Horrez gain, psikologo, soziologo, kriminologo eta bestelako espezializatuz osaturiko kabinete bat muntatu zutela kontatzen du. Helburua, urte batzuk geroago martxan jarriko zen sakabanatze politikari begira haien nortasuna ikertzea zen, zein espetxera bidali erabakitzeke. 1987an hasten da sakabanatze politika eta bost espetxetan banatzen dituzte. Subjektua, beste lau kiderekin, Ocañako espetxera bidaltzen dute.

Ocañako espetxeko urteak nahiko ondo gogoratzen ditu; jasotako tratua egokia zen, lehenengo graduan zeuden baina nahiko leuna zela dio; direktorearekin harreman ona zuten, telebista, kubiertoak eta bestelakoak izan ahal zituzten, patio orduak luzatzen zituzten, funtzionarioekin erlazioa gainerako espetxeetan baino hobea zen etab. Baina, urtebete Ocañan egonda, berriro Puerto de Santa Mariara lekualdatzen dituzte. Behin Puerton, bakarrik 6 hilabete egon ziren eta Burgoseko espetxera lekualdatu zituzten. Espetxe honetan, gutxi gorabehera urte bat egon zen eta ondoren, Castellonera bidali zuten. Castellonek hilabete bakar bat egon zen eta hortik Nanclaresera eroan zuten. Nanclaresen 5-6 hilabete bota zituen eta handik berriro Ocañara bidali zuten, espetxea berriztu zuten eta. Bertan, urte bat egon zen eta bigarren aldiz Burgosera lekualdatu zuten. Honen ostean, denbora gutxi pasa eta gero, berriz ere Nanclaresera bidali zuten. Ibilbide honetan, Navalcarneko espetxean ere egon da.

Nanclaresen igaro zituen azkenengo bi urteak eta bertan, bigarren graduko erregimena ezarri zioten. Hala ere, Ortega Lararen bahitzea zela eta, nahiz eta bigarren graduan egon tratua lehenengo gradukoa zela kontatzen du.

1998. urtean ateratzen da espetxetik, ezarritako 31 urteko kondena osorik betez, hau da, ia 20 urteko espetxe zigorra betez.

Bigarren galderari dagokionez (1. Eranskina, 3. elkarrizketa, 2. galdera), espetxean egondako urteetan berarentzat zailena zer izan den galdetu diot. Lehenik eta behin, buruak buelta asko ematen dituela azpimarratu du, oso erreza dela euforiako une batetik tristeziako une batera igarotzea. Hau kudeatzeko, hainbat mekanismo erabiltzen zituzten. Berak, kirol asko egiten zuen, egunean bi ordu/bi ordu eta erdi baita furbola ere, eta horrek, buruari asko laguntzen zion. Beste mekanismo bat ikasketak izan ziren; espetxean formakuntzarekin jarraitu zuen eta hainbat gradu gauzatu zituen (euskal filologia, historia eta euskal historia, baita soziolinguistikari buruzko tesia). Haez gain, dinamika pertsonal eta dinamika kolektiboa bereizten ditu, biei garrantzia emanez.

Dinamika kolektiboa ezinbestekoa zen berarentzat: denbora pasatzeko lagunekin jolastea, hitz egitea, harreman bat izatea eta eztabaida politikoak egitea. Honekin batera, espiritu kolektibo bat izateak asko lagundu zion ere: herri bereko eta egoera berdinean dauden hainbat pertsona direla pentsatzea.

